

DURANGOKO AZOKAREN ERAGINA EUSKAL KULTURGINTZAN



2025eko maiatza



Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus



Edukia

0. SARRERA.....	3.
1. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA.....	5.
2. EZAUGARRITZEA: Durangoko Azokaren katearen hiru begiak	11.
2.1. Lehenengo katebegia: SORTZAILEAK.....	11.
2.2. Bigarren katebegia: ERAGILEAK.....	22.
2.3. Hirugarren katebegia: BISITARIAK	27.
3. AZOKAREKIKO HARREMANA	34.
3.1. Azoka bisitatzea: BISITARIAK.....	34.
3.2. Azokan erakusmahai jartzea: ERAGILEAK.....	46.
3.3. Azokan norberaren lanak aurkezte: SORTZAILEAK.....	52.
4. AZOKAKO JARDUNA.....	66.
4.1. Ezagutzera eman eta saldu: ERAGILEAK.....	66.
4.2. Erosi eta ezagutu: BISITARIAK.....	81.
5. AZOKAREN BEGIRADA EKONOMIKOA.....	113.
5.1. Antolakuntza gastuak eta diru-sarrerak.....	113.
5.2. Bisitarien gastuak.....	116.
5.3. Eragileen diru-sarrerak.....	126.
6. AZOKAREN EKARPENA ETA EUSKAL KULTURAN DUEN GARRANTZIA.....	129.
6.1. Zabalpenaren eta babesaren garrantzia: ERAGILEAK	129.
6.2. Kultur sorkuntza sustatzea: zer eta nola: SORTZAILEAK.....	134.
6.3. Durangoko Azokaren balio inmateriala: BISITARIAK.....	154.
7. EUSKAL KULTURAREN EGOERA: KULTURGINTZA, KONTSUMOA ETA ZALETASUNA	156.
7.1. Ikuspegi orokor alderatua	156.
7.2. Sormen-ikuspegia: SORTZAILEAK.....	162.
7.3. Industria-ikuspegia: ERAGILEAK.....	190.
7.4. Kontsumoa eta zaletasuna: BISITARIAK	201.
8. ONDORIOAK	223.



0. SARRERA

Durangoko Azokaren inguruko ikerketa-lan sakona egin du Siadecok 2024ko azken hiruhilekoan eta 2025eko lehenengoan, Gerediaga Elkartek eskatuta. Hiru ikuspegitatik landu ditugu 2024ko Durangoko Azokaren bueltan aztergai izan ditugun ikerketa-ildoak —Durangoko Azokako jarduna, haren eragina euskal kulturgintzan eta euskal kulturgintzaren egoera orokorra—. Hiru ikuspegi horiek dira:

- SORTZAILEENA** | Durangoko Azokara beraien lanak aurkeztera bertaratu diren kultur ekoizleena.
- ERAGILEENA** | Azokako egunetan standa edo erakusmahaia jarri duten entitate, talde eta norbanakoena.
- BISITARIENA** | 2024ko abenduaren 6an, 7an eta 8an Durangoko Azokara bertaratu diren norbanakoena.

Planteamendu metodologikoan azaltzen da unibertso horietako bakoitzaren inguruko informazioa jasotzeko modua eta aurrera eramandako lana. Txostenaren egiturari dagokionez, ibilbide modura planteatu dugu, gaika antolatuz eta gai horien inguruan ikuspegi ezberdinak emanez, txostenaren irakurketa eta emaitzen azterketa errazteko asmoz.

EZAUGARRITZEA	AZOKAREKIKO HARREMANA	AZOKAKO JARDUNA	AZOKAREN BEGIRADA EKONOMIKOA	AZOKAREN ERAGINA ETA EKARPENA	EUSKAL KULTURAREN EGOERA
Durangoko Azokaren katearen hiru begiak: — Sortzaileak — Eragileak — Bisitariak	— Azoka bisitatzea (bisitariak) — Azokan erakusmahaia jartzea (eragileak) — Azokan norberaren lanak aurkeztea (sortzaileak)	— Ezagutzera eman eta saldu (eragileak) — Erosi eta ezagutu (bisitariak)	— Antolakuntza-gastuak eta diru-sarrerak (Gerediaga) — Bisitarien gastuak Azokan eta Azokatik kanpo — Eragileen diru-sarrerak	— Zabalpena eta babesak (eragileak) — Sustapen-mota eta azoka-eredua (sortzaileak) — Durangoko Azokaren balio inmateriala (bisitariak)	— Sormen-ikuspegia — Industria-ikuspegia — Kontsumoa eta zaletasuna — Ikuspegi orokor alderatua



2016 eta 2018 urteetan ere Durangoko Azokari buruzko ikerketak egin zituen Siadecok. Hiru edizioetako bakoitzean planteamendua ezberdina izan zen arren, zenbait datu konparagarriak izan daitezke. Kasu horietan, alderaketaren ikuspegia ematen duten taulak txertatu ditugu. Gainera, VII. Inkesta Soziolinguistikoko (Eusko Jaurlaritza-Nafarroako Gobernua-Euskararen Erakunde Publikoa, 2021) eta Euskal Herriko kultur ohituren inkestako (Eusko Jaurlaritza-Kulturaren Euskal Behatokia, 2019) datuak ere erabili ditugu taula horietan.

Amaieran, ondorioen atal batekin borobildu dugu txostena.



1.

PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Azokak duen eragina aztertzeko, hiru unibertsoekin lan egin dugu: Durangoko Azokara 2024ko abenduaren 6, 7 eta 8an bertaratu diren bisitariak; sortzaileak, hau da, Durangoko Azokara beraiei lanak aurkeztera bertaratzen direnak; eta Azokan erakusmahaia jartzen duten eragileak.

Galdetegiak

Hiru galdetegi ezberdin erabili dira, azterketa-unibertso bakoitzerako bat (sortzaileak, kultur eragileak eta bisitariak). Online erantzutekoak izan dira sortzaileei eta kultur eragileei bidali zaizkienak; bisitarienak berriz, azoka egunetan aurrez aurre egindako elkarrizketa bidez bete dira.

Bi online galdetegiak, aurrez akotatuak bi unibertsoetako sortzaile eta kultur eragile guztiei bidali zaizkie eta ahalik eta kopuru altuenak erantzuteko ahaleginak egin dira. Siadecotik egin da landa-lanaren jarraipena: sortzaileekin zein kultur eragileekin harremanetan jarri, argibideak eman, galdetegiari erantzutea eskatu eta informazio ahalik eta osatu eta zuzenena jasotzeko jarraipen-lana egin.

BISITARIAK

2024ko Azoka, abenduaren 5etik 8ra izan da, 4 egunekoa. Lehen egunean, “Ikasle Goiza” egin zen eta Euskal Herri osoko ikastetxe ezberdinetako ikasleek bisitatu zuten azoka.

Unibertsoa zenbat herritarrek osatu duten, zehazki jakiterik ez dago. Baina Landakogunean bada sartu-irtenak zenbatzeko sistema bat, eta haren arabera ia 229 mila sartu-irten izan dira 4 egunetan. Horrek ez du esan nahi 229 mila pertsona desberdin izan direnik Azoka bisitatu dutenak: batetik, pertsona bera behin baino gehiago sartu-irten daitekeelako Landakogunetik, eta egun bakarrean ala gehiagotan bisitatu, eta bestetik, sartu-irten horietan 16 urtez beherakoak ere kontabilizatuta daudelako.

Bestalde, azterketaren unibertsoa 16 urtez gorako Azokako bisitari guztiek osatu dute, baita Landakogunera sartu ez direnek ere, espazio hori bisitatu gabe Azokaren beste guneren bat bisitatzen dutenak gutxi diren arren.

Baina kopuru hori erreferentzia bat da, bistari gehien-gehienak igarotzen baitira Landakogunetik.

Landakogunean kontabilizatutako irteeren kopuruak, egunari jarraiki:

	Irteerak	
	Kopuruak	%
Abenduak 5	57.523	25,0
Abenduak 6	76.200	33,1
Abenduak 7	63.264	27,5
Abenduak 8	33.176	14,4
Guztira	230.163	100,0

Iturria: Gerediaga Elkarte, 2024

Lagina, laginketarako prozedura eta inkestak egindako ordu-tarte eta tokiak

Unibertsoa: 2024ko Durangoko Azokara bertaratutako 16 urte eta gehiagoko herritarrak

Lagina: 800 bisitari

Laginketa: Ausazko laginketa sinplea eta sistematikoa, azokako 15 inkestatze-puntu ezberdin, ordutegien eta bisitarien joan-etorrien edo fluxuen arabera definituta

Metodologia: Aurrez aurreko eta banakako inkestatzea, aurrez finkatutako guneen eta ordutegiaren arabera.

Akats-tarte estatistikoa: $\pm 3,54\%$ ko akats-tartea, $95,5\%$ eko konfiantza-tartearekin, $p=q=0,05$ denerako.

Landa-lanaren datak: 2024ko abenduak 6, 7 eta 8.



Aurretiaz finkatu da, lagina unibertsoaren ezaugarrietara ahalik eta gehien hurbildu dadin zein lekutan eta zein ordutan egin inkestak:

- Inkestak non egin: 15 inkestatze-puntu finkatu dira. Horietako 9 Landakoguneko beste hainbeste sartu-irteeratan, 2 Ahotsenean, eta bana Saguganbaran, Irudienean, Szenatokian eta Talaia-Durango Museoan.
- Inkestak zein ordutan egin: Azoka goizeko 10:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta ordutegi horretan egin dira inkestak, orduero zenbat egin finkatuta.
- Nola hautatu inkestatu beharreko pertsona: Inkestagile bakoitzak zein tokitan eta zein ordutan egin behar zuen finkatuta, ordu hori iritsi baino zertxobait lehenago inkestagileak bizkarrez ipini behar zuen, eta ordua iristean, buelta eman eta gertuen zuen pertsonari proposatu behar zion erantzutea.

Baina aurten bisitariak inkestatzeko landa-lana bereziki konplikatua gertatu da. Esan bezala, aurrez finkatuta zegoen inkestagile bakoitzak zein tokitan ipini behar zuen, zein ordutan egin behar zuen inkesta bakoitza eta nola hautatu behar zuen inkestatu beharreko pertsona. Garrantzitsua da elkarriketatuak ausaz aukeratzea, Azoka bisitatzen duten herritarren (unibertsoaren) antzeko profil soziodemografikoa lortzeko.

Baina edizio honetan izandako eguraldi makurrak eta Azokara joandako jende uholdeak asko zaildu dute landa-lana aurrez finkatuta zegoen bezala garatzea. Kanpoaldean inkestak betetzea oso desatsegina gertatzen zen bisitariarentzat, baina maiz Landakogunean bertan egitea ezinezkoa zen aforoa beteta zegoelako; eta ilaran itxoin ondoren, Landakogunea bisitatu eta handik irtetzerakoan (nekea pilatuta eta eguraldia ez zela lagun), herritarrek lehenbailehen alde egin nahi zuten; herritarren aldetik, aurreko edizioetan baino ezezko gehiago jaso dira, eta asko izan dira hasi bai baina amaitu gabe geratu diren galdetegiak.

Horrek guztiak eragin du luginaren alborapen edo desbideratze bat, eta unibertsoaren sexu eta adin-tartearen banaketaren datu zehatzik ez izan arren, aurten bi aldagai hauekiko inkestatuen banaketa, 2016ko eta 2018ko edizioetan jasotakoaren nahikoa desberdina zenez, lagina 2018ko sexuaren eta adin-tartearen arabera haztatu egin da.



Inkestak honako egunetan eta ordu—tartean egin dira, inkesta lekuaren arabera:

		Eguna			Guztira	
		Abenduak 6 Kop	Abenduak 7 Kop	Abenduak 8 Kop	Kop	%
Landakogunea		140	154	196	490	61,3
Landakogunearen ingurua	Ahotsenea Literatura	36	37	17	90	11,3
	Ahotsenea Musika-Plateruena	30	55	33	118	14,8
	Saguganbara (Elkartegia)	16	14	5	35	4,4
	Guztira	82	106	55	243	30,4
Durangon zehar	Irudienea (Zugaza zinea)	14	3	5	22	2,8
	Szenatokia (San Agustin Kulturgunea)	11	7	7	25	3,1
	Talaia-Durangoko Museoa	11	6	3	20	2,5
	Guztira	36	16	15	67	8,4
Guztira		258	276	266	800	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

		Ordu-tartea			Guztira	
		10:00-14:00 Kop	14:00-17:00 Kop	17:00-20:00 Kop	Kop	%
Landakogunea		194	149	147	490	61,3
Landakogunearen ingurua	Ahotsenea Literatura	38	17	35	90	11,3
	Ahotsenea Musika-Plateruena	35	39	44	118	14,8
	Saguganbara (Elkartegia)	17	11	7	35	4,4
	Guztira	90	67	86	243	30,4
Durangon zehar	Irudienea (Zugaza zinea)	9	10	3	22	2,8
	Szenatokia (San Agustin Kulturgunea)	16	6	3	25	3,1
	Talaia-Durangoko Museoa	9	8	3	20	2,5
	Guztira	34	24	9	67	8,4
Guztira		318	240	242	800	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Inkestak egindako egun eta ordu-tartearen arabera:

	Ordu-tartea			Guztira	
	10:00-14:00 Kop	14:00-17:00 Kop	17:00-20:00 Kop	Kop	%
Abenduak 6	94	77	87	258	32,3
Abenduak 7	105	74	97	276	34,5
Abenduak 8	119	89	58	266	33,3
Guztira	318	240	242	800	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

SORTZAILEAK

2024ko Durangoko Azokan lanen bat aurkezten parte hartutako 129 sortzailek osatutako datu-oinarria jaso genuen Gerediagatik. Online galdetegi bidez, 110 sortzaileren erantzunak jaso ditugu.

Unibertsoa: 129 sortzaile

Jasotako erantzunak: 110 (% 85,3)

Metodologia: Online galdetegia.

Landa-lanaren datak: 2024ko azaroaren 13tik abenduaren 20ra

Galdetegian Durangoko Azokaz, euskal kulturgintzaz, eta sortzaile gisa, euren egoeraz galdetu zaie; galdera itxiak eta irekiak tartekatu dira, beren iritzia luze eta zabal adierazteko aukera emanez.

1. taula.

DAn parte hartu duten kultur ekoizleen ezaugarri nagusiak.

		Kop.	%
Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?	Literatura (liburuak)	43	39,1
	Musika	28	25,5
	Besterik (Ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, jokoak, ...)	39	35,5
	Guztira	110	100,0
Talde baten izenean edo norbanako gisa erantzuten diozu galdetegi honi?	Norbanako gisa	76	69,1
	Talde baten izenean	34	30,9
	Guztira	110	100,0
Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?	Emakumezkoa	46	41,8
	Gizonezkoa	56	50,9
	Ez bitarra	7	6,4
	Zehaztu gabe	1	0,9
	Guztira	110	100,0
Adina:	< 35 urte	34	30,9
	35-49 urte	52	47,3
	>=50 urte	23	20,9
	Ed/Ee	1	0,9
	Guztira	110	100,0
Kultur ekoizpena al da zure lanbide bakarra?	Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra	22	20,0
	Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera	33	30,0
	Beste lanbide bat nagusiki	55	50,0
	Guztira	110	100,0
Autoekoizlea zara edo argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainia baten bidez argitaratu ohi dituzu zure lanak?	Autoekoizlea naiz	47	42,7
	Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak	45	40,9
	Aurreko bi bideak erabiltzen ditut	18	16,4
	Guztira	110	100,0
Aurtengoa barne, zenbat aldiz etorri zara Durangoko Azokara zure lanak aurkeztera?	Behin, aurtengoa lehen aldia da	39	35,5
	2-5 alditan	45	40,9
	>5 aldiz	26	23,6
	Guztira	110	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

ERAGILEAK

Durangoko Azokan standa edo erakusmahaia jarritz parte hartu duten 83 kultur eragileren erantzunak jaso ditugu.

Gerediagatik bidalitako informazioaren arabera, 150 eragilek jarri zuten postua 2024ko Azokan. Baina hautaketa bat egin zen, kanpoan utziz izaera instituzionala zutenak, herri-administrazioekin edo bestelako erakunde instituzionalekin lotutakoak.

Unibertsoa: 150 eragile

Azterketan parte hartu dutenak: 110 eragile

Jasotako erantzunak: 83 (%75,4)

Metodologia: Online galdetegia.

Landa-lanaren datak: 2025eko otsailaren 12tik martxoaren 14ra.

2. taula.

DAn parte hartu duten kultur eragileen ezaugarri nagusiak

		Kop.	%
2024ko edizioa kontuan hartuta, zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan, erakusmahaia jarritz?	Behin (aurten lehenengo aldia izan da)	17	20,5
	2-5 aldiz	23	27,7
	6-15 aldiz	22	26,5
	16-30 aldiz	6	7,2
	30 aldiz baino gehiagotan	15	18,1
	Guztira	83	100,0
Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)	Liburuaren industria (nagusiki)	43	51,8
	Musikaren industria (nagusiki)	32	38,6
	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	8	9,6
	Guztira	83	100,0
Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?	Autonomoa (pertsona fisikoa)	21	25,3
	Enpresa	31	37,3
	Elkartea	20	24,1
	Besterik (Kooperatiba, Fundazioa, Bestelakoa..)	11	13,3
	Guztira	83	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.



2.

EZAUGARRITZEA

Durangoko Azokaren katearen hiru begiak

Kate baten modura irudikatu dugu Durangoko Azoka, eta kate horren hiru begi nagusiak aztertu ditugu ikerketa honetan: sortzaileena, eragileena eta bisitariena. Atal honetan, katebegi bakoitzaren ezaugarriak aztertu ditugu.

2.1. Lehenengo katebegia: SORTZAILEAK


2024ko Durangoko Azokara euren lanak aurkeztera joan diren sortzaile edo kultur ekoizleak aztertu ditugu atal honetan. Ia hamarretik lau literaturaren edo liburuaren sektorean kokatuko genituzke, genero eta diziplina ezberdinak kontuan hartuz, multzo horretan —narratiba, olerkia, saiakera, liburu ilustratuak, haurrei zuzendutakoak, etab.—. Gainerakoei dagokionez, laurdena musikaren sektorean kokatzen da eta % 35 bestelakoetan —ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala, jolasak, etab.—.

Generoari dagokionez, sortzaileen erdia gizonezkoa da, % 42 emakumezkoa eta % 6 ez bitarra. Adinari dagokionez, 35 urtetik beherakoa da % 31, 35-49 urte artekoa % 47 eta 50 urtetik gorakoa % 21. Bi aldagaiak batera gurutzatuta, adina eta generoa, 50 urtez gorakoetan gizonezkoak nabarmen gehiago dira (% 73,9), erdiko adin-tartean (35-49 urte), gizonezkoak erdia baino gutxiago dira —% 48,1 gizonezkoak, % 48,1 emakumezkoak eta % 3,8 ez bitarrak—; eta 35 urtez azpiko gazteetan, oraindik eta gutxiago —gizonezkoak % 41,2, emakumezkoak % 47,1 eta ez bitarrak % 11,8—.

Emakumezkoen pisua esanguratsua da liburuaren sektorean (% 48,8) eta gizonezkoena, berriz, musikan (% 67,9). 35 urtetik beherakoen pisua bereziki altua da musikan (% 57,1) eta 50 urte edo gehiagokoena, aldiz, liburuaren sektorean (% 34,9).

1. grafikoa.


Durango Azokan parte hartu duten sortzaileak, diziplina artistikoaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

2. grafikoa.

Durango Azokan parte hartu duten sortzaileak, generoaren eta adinaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

3. taula.

Durango Azokan parte hartu duten sortzaileak, diziplina artistikoaren, generoaren eta adinaren arabera (%).


		Literatura	Musika	Besterik	Guztira
Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?	Emakumezkoa	48,8	28,6	43,6	41,8
	Gizonezkoa	44,2	67,9	46,2	50,9
	Ez bitarra	7,0	3,6	7,7	6,4
	Zehaztu gabe	0,0	0,0	2,6	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Adina	< 35 urte	11,6	57,1	33,3	30,9
	35-49 urte	53,5	32,1	51,3	47,3
	>=50 urte	34,9	10,7	12,8	20,9
	Ed/Ee	0	0	2,6	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
		39,1	25,5	35,5	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Hamarretik zazpik norbanako gisa erantzun dute eta hamarretik hiruk talde baten izenean. Norbanako gisa erantzun dutenen pisua nabarmentzen da liburuaren sektorean (% 95,3), emakumezkoen artean (% 78,3) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 87,0). Talde baten izenean erantzun dutenena, aldiz, musikan (% 60,7), gizonezkoen artean (% 35,7) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 44,1).

3. grafikoa.

Talde baten izenean edo norbanako gisa erantzuten duten (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

4. taula.

Talde baten izenean edo norbanako gisa erantzuten duten, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Norbanako gisa	95,3	39,3	61,5	78,3	64,3	57,1	55,9	71,2	87,0	69,1
Talde baten izenean	4,7	60,7	38,5	21,7	35,7	42,9	44,1	28,8	13,0	30,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Gutxiengoa da kultur ekoizpena lanbide bakar duena, hamarretik bi dira. Hamarretik hiruk beste lanbide batekin uztartzen dute. Eta erdiak beste lanbide batean ari dira nagusiki, nahiz eta sormen-lanak ere egin.

Kultur ekoizpena lanbide bakar dutenen pisua azpimarratzeko modukoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (% 33,3) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 30,4). Nagusiki beste lanbide bat dutenen pisua, berriz, musikan (% 75), gizonezkoen artean (% 58,9) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 60,9).

Kultur ekoizpena beste lanbide batekin uztartzen dutenen pisua bereziki altua da emakumeen artean (% 37).

4. grafikoa.

Sortzaileen dedikazio-maila kultur ekoizpenean (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

5. taula.

Sortzaileen dedikazio-maila kultur ekoizpenean, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra	16,3	7,1	33,3	19,6	23,2	0	8,8	23,1	30,4	20,0
Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera	27,9	17,9	41	37	17,9	71,4	35,3	34,6	8,7	30,0
Beste lanbide bat nagusiki	55,8	75	25,6	43,5	58,9	28,6	55,9	42,3	60,9	50,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Nahiko pareko daude autoekoizleak (% 42,7) eta lanak argitaletxe/ diskoetxe/ ekoiztetxe /konpainien bidez argitaratzen dituztenak (% 40,9). % 16,7k aurreko bi bideak erabiltzen ditu.

Autoekoizleen pisua esanguratsua da emakumeen artean (% 45,7) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 58,8). Lanak argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen dituztenen pisua, aldiz, liburuaren sektorean (% 86,0), eta 50 urtetik gorakoen artean (% 65,2).

5. grafikoa.

Sortzaileen lanak argitaratzeko bideak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

6. taula.

Sortzaileen lanak argitaratzeko bideak, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Autoekoizlea naiz	2,3	67,9	69,2	45,7	39,3	42,9	58,8	42,3	17,4	42,7
Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak	86,0	3,6	17,9	41,3	39,3	57,1	29,4	38,5	65,2	40,9
Aurreko bi bideak erabiltzen ditut	11,6	28,6	12,8	13,0	21,4	0,0	11,8	19,2	17,4	16,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

2024koa barne, DAn 2-5 aldiz izan direnak dira gehienak (% 40,9), % 35,5entzat lehen edizioa da eta % 23,6 DAn bost alditan baino gehiagotan izandakoa da.

DAn lehen aldia izan dutenen pisua bereziki altua da bestelako diziiplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (% 51,3) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 52,9). DAn bost alditan baino gehiagotan izan direnen pisua, berriz, liburuaren sektorean (% 41,9) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 43,5).

6. grafikoa.

Sortzaileek DAn duten esperientzia (zenbat aldiz izan diren) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

7. taula.

Sortzaileek DAn duten esperientzia (zenbat aldiz izan diren), gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Behin, aurtengoa lehen aldia da	23,3	32,1	51,3	34,8	33,9	57,1	52,9	26,9	30,4	35,5
2-5 alditan	34,9	46,4	43,6	43,5	41,1	14,3	38,2	48,1	26,1	40,9
>5 aldiz	41,9	21,4	5,1	21,7	25	28,6	8,8	25	43,5	23,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Kultur ekoizle gisa aurrera eramaten duten jarduerak, gehienetan, ez du enpresa-egiturarik. Hamarretik lauk ez dute inolako egiturarik, laurdenek autonomoetan izena emana dute eta % 18,2 elkarte-egiturekin ari da kultur ekoizpenean. % 6,4 ari da enpresa gisa eta % 3,6 kooperatiba gisa.

Inolako enpresa-egiturarik ez dutenen pisua bereziki esanguratsua da liburuaren sektorean (% 53,5).

Eta autonomoetan alta emanda daudenena ere, liburuaren sektorean (%32,6), baita emakumezkoen artean (% 34,8) ere. Elkarteena, musikan (% 28,6) eta bestelakoetan (% 30,8) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 23,5).

7. grafikoa.
Sortzaileen jarduera ekonomikoaren enpresa-egitura (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

8. taula.
Sortzaileen jarduera ekonomikoaren enpresa-egitura, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).


	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Inolako enpresa egiturarik gabea	53,5	46,4	23,1	41,3	44,6	14,3	47,1	34,6	47,8	40,9
Autonomoa	32,6	17,9	23,1	34,8	17,9	28,6	17,6	28,8	30,4	25,5
Kooperatiba	4,7	0	5,1	6,5	1,8	0,0	2,9	5,8	0,0	3,6
Enpresa	2,3	3,6	12,8	0,0	10,7	14,3	2,9	5,8	13,0	6,4
Elkartea	0,0	28,6	30,8	10,9	21,4	28,6	23,5	21,2	0,0	18,2
Besterik	4,7	3,6	5,1	4,3	3,6	14,3	5,9	3,8	4,3	4,5
Zehaztu gabe	2,3	0,0	0,0	2,2	0,0	0,0	0,0	0,0	4,3	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Kultur ekoizleen jardueren ia erdia Gipuzkoan erregistratuta dago (% 47,3), ia hamarretik hiru Bizkaian (% 29,1). % 10etik beherako pisua dute Arabak (% 9,1) eta Nafarroak (% 8,2). % 2,7 besterik ez dago Ipar Euskal Herrian erregistratuta.

Jarduera Gipuzkoan erregistratuta dutenen pisua altuagoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (% 51,3) eta emakumezkoen artean (% 54,3). Bizkaian erregistratuta dutenena, berriz, musikan (% 32,1) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 35,3).

8. grafikoa.
Sortzaileen jarduera ekonomikoa erregistratuta dagoen lurraldea (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

9. taula.
Sortzaileen jarduera ekonomikoa erregistratuta dagoen lurraldea, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Araban	7,0	10,7	10,3	6,5	10,7	14,3	5,9	9,6	13	9,1
Bizkaian	27,9	32,1	28,2	32,6	23,2	57,1	35,3	28,8	21,7	29,1
Gipuzkoan	46,5	42,9	51,3	54,3	44,6	14,3	47,1	48,1	43,5	47,3
Nafarroan	9,3	7,1	7,7	2,2	12,5	14,3	8,8	7,7	8,7	8,2
Ipar Euskal Herrian	2,3	7,1	0,0	0,0	5,4	0,0	2,9	1,9	4,3	2,7
Euskal Herrikan	4,7	0,0	2,6	2,2	3,6	0,0	0,0	3,8	4,3	2,7
Zehaztu gabe	2,3	0,0	0,0	2,2	0,0	0,0	0,0	0,0	4,3	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

DAn parte hartu duten kultur ekoizleen hiru laurdenek baino gehiagok Euskal Herri mailan merkaturatzen dituzte euren lanak. Hamarretik lauk Euskal Herrian oro har, eta beste % 36,4k Euskal Herriko lurralde jakinetan, zehazki. Lanak Euskal Herritik kanpo ere merkaturatzen dituztenak % 23,6 dira.

Lanak Euskal Herritik kanpo ere merkaturatzen dituztenen pisua nabarmentzeko modukoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (% 30,8), gizonezkoen artean (% 30,4) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 30,4).

9. grafikoa.

DAn parte hartu duten kultur ekoizleen lanak merkaturatzen diren lurraldeak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

10. taula.

DAn parte hartu duten kultur ekoizleen lanak merkaturatzen diren lurraldeak, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Araban	2,3	0,0	2,6	0,0	3,6	0,0	0,0	3,8	0,0	1,8
Bizkaian	2,3	10,7	7,7	8,7	3,6	14,3	11,8	5,8	0,0	6,4
Gipuzkoan	7	10,7	15,4	8,7	14,3	0	14,7	7,7	13	10,9
Euskal Autonomia Erkidegoan oro har	16,3	17,9	15,4	19,6	12,5	28,6	20,6	15,4	13	16,4
Nafarroan	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ipar Euskal Herrian	0,0	3,6	0,0	0,0	1,8	0,0	0,0	1,9	0,0	0,9
Euskal Herrian oro har	48,8	42,9	28,2	45,7	33,9	42,9	38,2	38,5	43,5	40,0
Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere	23,3	14,3	30,8	17,4	30,4	14,3	14,7	26,9	30,4	23,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Hamar sortzailetik seik baino gehiagok 15 urte baino gutxiago daramatzate kultur ekoizpenean: % 35,5ek 5 baino gutxiago eta % 25,5ek 6-15 urte. Beste laurden batek 16-25 urte daramatza eta % 14,5ek 25 urte baino gehiago. Batez beste, 13,3 urte daramatzate.

Bost urte baino gutxiago daramatzatenen pisua bereziki handia da musikan (% 50), emakumezkoen artean (% 45,7) eta 35 urte baino gutxiagokoen artean (% 70,6). Hogeita bost urte baino gehiago daramatzatenen pisua, berriz, liburuaren sektorean (% 27,9), gizonezkoen artean (% 23,2) eta 50 urte edo gehiago dituztenen artean (% 56,5).

10. grafikoa.


Sortzaileek kultur ekoizpenean daramaten denbora (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

11. grafikoa.

Sortzaileek kultur ekoizpenean batez beste daramaten denbora, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

11. taula.

Sortzaileek kultur ekoizpenean daramaten denbora (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera- tura	Musika	Besterik	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
<=5 urte	20,9	50	41	45,7	28,6	28,6	70,6	26,9	4,3	35,5
6-15 urte	27,9	17,9	28,2	26,1	23,2	28,6	26,5	26,9	17,4	25,5
16-25 urte	23,3	25,0	25,6	23,9	25,0	28,6	2,9	40,4	21,7	24,5
>25 urte	27,9	7,1	5,1	4,3	23,2	14,3	0,0	5,8	56,5	14,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste	17,3	11,1	10,4	9,7	16,1	14,7	4,4	13,7	25,7	13,3

Iturria: Siadeco, 2024

2.2. Bigarren katebegia: ERAGILEAK

2024ko Durangoko Azokan, Landakogunean standa edo erakusmahaia jarri duten eragileak aztertu ditugu atal honetan.


Eragileek Azokan duten esperientziari dagokionez, multzorik handienak dira 2-5 aldiz joan direnena (% 27,7) eta 6-15 aldiz joan direnena (% 26,5). Erdia pasatxo nagusiki liburuen industrian kokatuko genuke (% 51,8). Ia hamarretik lau nagusiki musikaren industrian (% 38,6). Enpresa egituraren arabera, % 37,3 enpresa da, laurdena autonomoa (% 25,3) eta ia beste laurden bat elkarte (% 24,1).

Liburuaren industriaren pisua nabarmentzen da 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 81,0). Musikaren industriaren pisua, berriz, 2-5 aldiz joan direnen artean (% 60,9). Elkarteak, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoaren pisua altuagoa da DAn lehen aldia dutenen artean (% 17,6).

Autonomoak direnen pisua nabarmentzen da lehen aldia dutenen artean (% 52,9). Enpresa direnen pisua, 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 61,9). Bestelako egiturak dituztenen pisua nabarmentzen da 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 23,8).

12. grafikoa.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileak, enpresa-egituraren eta sektorearen arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

12. taula.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileak, enpresa-egituraren, Durangoko Azokan duten esperientziaren eta sektorearen arabera (%).

		2024ko edizioa kontuan hartuta, zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan, erakusmahaia jarritz?				Guztira
		Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiago	
Zein sektoretan kokatzen den	Liburuaren industria (nagusiki)	29,4	30,4	63,6	81	51,8
	Musikaren industria (nagusiki)	52,9	60,9	31,8	9,5	38,6
	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	17,6	8,7	4,5	9,5	9,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?	Autonomoa	52,9	34,8	13,6	4,8	25,3
	Enpresa	5,9	17,4	59,1	61,9	37,3
	Elkartea	35,3	30,4	22,7	9,5	24,1
	Besterik	5,9	17,4	4,5	23,8	13,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Hamarretik ia lauk dute erregistratua bere jarduera (% 38,6) eta hamarretik hiru pasatxok Bizkaian (% 31,3). Ia % 11 dira bai Araban erregistratua dutenak, baita Nafarroan erregistratua dutenak ere.


Gurutzaketa-aldagaien arabera, Gipuzkoan erregistratua dutenen pisua altuagoa da 2-5 aldiz joan direnen artean (% 43,5), elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 62,5) eta enpresa direnen artean (% 48,4).

Bizkaian erregistratua dutenena, aldiz, lehen aldia dutenen artean (% 35,3), liburuaren industrian (% 37,2) eta bestelako egiturak dituztenen artean (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa...) (% 45,5).

Nafarroan erregistratua dutenena 16 alditan baino gehiagotan parte hartu dutenen artean (% 23,8) elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 12,5) eta bestelako egiturak dituztenen artean (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa...) (% 27,3).

Ipar Euskal Herrian erregistratua dutenena lehenengo aldia dutenen artean (% 29,4), musikaren industrian (% 18,8) eta elkarte direnen artean (% 30,0).

13. grafikoa.
Durangoko Azokan parte hartu duten eragileek zein lurraldetan duten erregistratuta euren jarduera ekonomikoa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

13. taula.
Durangoko Azokan parte hartu duten eragileek zein lurraldetan duten erregistratuta euren jarduera ekonomikoa, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Araban	0,0	13,0	4,5	4,8	4,7	9,4	0,0	19,0	3,2	0,0	0,0	6,0
Bizkaian	35,3	34,8	31,8	23,8	37,2	28,1	12,5	38,1	29,0	20,0	45,5	31,3
Gipuzkoan	23,5	43,5	40,9	42,9	37,2	34,4	62,5	23,8	48,4	45	27,3	38,6
Nafarroan	0,0	8,7	9,1	23,8	11,6	9,4	12,5	0,0	16,1	5,0	27,3	10,8
Ipar Euskal Herrian	29,4	0,0	13,6	4,8	7,0	18,8	0,0	9,5	3,2	30,0	0,0	10,8
Euskal Herrikan kanpo	11,8	0,0	0,0	0,0	2,3	0,0	12,5	9,5	0,0	0,0	0,0	2,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Durangoko Azokan stand-a edo erakusmahaia jartzen parte hartu duten hamar eragiletik lauk (% 39,8) Euskal Herrian oro har merkaturatzen du bere jarduera. Beste % 36 da Euskal Herritik kanpo ere merkaturatzen duena. % 12k adierazi du Euskal Autonomia erkidegora mugatzen dela bere merkaturatze-eremua, % 8,4k Bizkaira mugatzen dela eta % 3,6k Ipar Euskal Herrira mugatzen dela.

Gurutzaketa-aldagaien arabera, Euskal Herritik kanpo ere merkaturatzen dutenen pisua altuagoa da Durangoko Azokara 2-5 aldiz joan direnen artean (% 43,5), liburuaren industrian (% 41,9) eta enpresa direnen artean (% 48,4).

14. grafikoa.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileek nagusiki zein lurraldetan merkaturatzen duten euren kultur ekoizpena (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

14. taula.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileek nagusiki zein lurraldetan merkaturatzen duten euren kultur ekoizpena, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomia	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Araban	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Bizkaian	11,8	8,7	9,1	4,8	7,0	9,4	12,5	23,8	0,0	0,0	18,2	8,4
Gipuzkoan	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Euskal Autonomia Erkidegoan	11,8	13,0	18,2	4,8	9,3	15,6	12,5	9,5	9,7	25,0	0,0	12,0
Nafarroan	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ipar Euskal Herrian	11,8	0,0	4,5	0,0	0,0	9,4	0,0	4,8	0,0	10	0,0	3,6
Euskal Herrian oro har	23,5	34,8	36,4	61,9	41,9	31,3	62,5	23,8	41,9	40	63,6	39,8
Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere	41,2	43,5	31,8	28,6	41,9	34,4	12,5	38,1	48,4	25,0	18,2	36,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Hamar eragiletik zazpik adierazi du azken kontsumitzaileak dituela ohiko bezero (lehen tokian edo bigarren tokian) (% 71,1). Ia erdiek, liburu-dendak dituztela ohiko bezero (% 47,0). Laurdenek, erakunde publikoak dituztela bezero (% 25,3).

Gurutzaketa-aldagaien arabera, azken kontsumitzaileak ohiko bezero dituztenen pisua nabarmentzen da 2-5 aldiz joan direnen artean (% 82,6), liburuaren industrian (% 79,1) eta elkartearen artean (% 85,0). Liburu-dendak dituztenena 16 aldiz baino gehiagotan joan direnen artean (% 66,7), liburuaren industrian (% 79,1) eta enpresen artean (% 67,7). Erakunde publikoena 16 aldiz baino gehiagotan joan direnen artean (% 33,3), elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 50) eta bestelako izaera dutenen (Kooperatiba, Fundazioa, Bestelakoa...) artean (% 36,4).

15. grafikoa.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileen bezero-mota ohikoena (%), lehen eta bigarren bezero-mota ohikoenen erantzunak batuta).



Iturria: Siadeco, 2024.

15. taula.

Durangoko Azokan parte hartu duten eragileen bezero-mota ohikoena, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Azken kontsumitzaileak	58,8	82,6	81,8	57,1	79,1	65,6	50	66,7	61,3	85,0	81,8	71,1
Erakunde publikoak	23,5	26,1	18,2	33,3	11,6	37,5	50	19,0	19,4	35,0	36,4	25,3
Ikastetxeak	11,8	4,3	13,6	23,8	20,9	3,1	12,5	14,3	22,6	5,0	0,0	13,3
Argitaletxeak/ diskoetxeak	17,6	8,7	4,5	0,0	4,7	12,5	0,0	19,0	3,2	5,0	0,0	7,2
Plataforma digitalak	29,4	13,0	9,1	0,0	0,0	28,1	12,5	14,3	6,5	20,0	9,1	12,0
Liburu-dendak	29,4	30,4	59,1	66,7	79,1	6,3	37,5	38,1	67,7	25,0	45,5	47,0
Kultur programa-tzaile pribatuak	23,5	21,7	4,5	9,5	0,0	31,3	25	14,3	9,7	20,0	18,2	14,5
Besterik	5,9	8,7	4,5	9,5	4,7	9,4	12,5	9,5	6,5	5,0	9,1	7,2

Iturria: Siadeco, 2024


2.3. Hirugarren katebegia: BISITARIAK

2024ko abenduaren 6an, 7an eta 8an Durangoko Azokara bertaratu diren bisitariak aztertu ditugu atal honetan. Horien artean emakumezkoak nagusitzen dira: ia bostetik hiru dira (% 58,1), eta gizonezkoak, aldiz, bostetik bi (% 40,6).

Adinari dagokionez, ia erdiak 26 eta 46 urte artean ditu: % 25,4k 36 eta 45 urte artean, eta % 21,5ek, 26 eta 35 urte bitarte. 16-25 adin-tartean kokatzen da bisitarien % 21,2, eta 46 urtetik gora ditu % 31,9k.

Adinaren arabera generoen arteko proportzioak aztertuta, emakumezkoa adin-tarte guztietan nagusitzen da. Hala ere, badira alde esanguratsuak: gazteenen artean emakumezkoen proportzioa zazpi puntu altuagoa da (% 65); eta 26 eta 45 urte bitartekoan artean gizonezkoen pisua bost puntu inguru igotzen da (% 45,9 da 26-35 adin-tartean, eta % 44,8, 36-45 adin-tartean).

16. grafikoa.
Durangoko Azokako bisitariak, generoaren eta adinaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

16. taula.
Durangoko Azokako bisitariak, generoaren eta adinaren arabera (%).

	Adina					Guztira
	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Emakumezkoa	65,0	53,0	54,7	59,2	60,6	58,1
Gizonezkoa	31,5	45,9	44,8	40,0	39,4	40,6
Besterik	3,5	1,2	0,5	0,7	0,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	21,2	21,5	25,4	17,4	14,5	


Iturria: Siadeco, 2024

Lurraldeari erreparatuz gero, Bizkaikoa da bisitarien erdia pasatxo (% 52,3) eta % 30,6 gipuzkoarra da. Azoka bisitatzen dutenen % 7,6 da arabarra, % 6,7 nafarra eta % 1,2 Ipar Euskal Herrikoa. % 1,5 Euskal Herritik kanpoko da.

Gazteenen artean bizkaitarren pisua nabarmen txikiagoa da (% 38,9), eta gainontzeko lurraldeen kasuan, alderantziz, nabarmen altuagoa da lurralde horien pisua gazteenen artean (Ipar Euskal Herriaren kasuan izan ezik).

17. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitarien lurraldea (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

17. taula.

Durangoko Azokako bisitarien lurraldea, generoaren eta adinaren arabera (%).

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Bizkaia	54,4	49,9	38,9	56,4	61,1	52,7	49,7	52,3
Gipuzkoa	29,6	31,7	35,3	30,4	27,8	26,0	34,3	30,6
Araba	6,5	8,6	9,9	6,6	6,4	9,7	5,6	7,6
Nafarroa	7,9	5,1	12,1	5,9	2,8	7,7	5,6	6,7
Euskal Herriko iparraldea	0,4	2,3	0,7	0,0	1,9	1,0	2,7	1,2
Euskal Herritik kanpo	1,2	1,9	3,2	0,7	0,0	1,9	2,2	1,5
Ed/Ee	0,0	0,4	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Durangoko Azokaren bisitarien hamarretik zazpi unibertsitate-mailako ikasketak ditu (% 71,6), % 18,9k Lanbide Heziketako edo Batxilergoko ikasketak, eta % 8,8k batere ez edo lehen mailakoak ditu.

Emakumezkoen artean (% 74,5), eta batez ere, 26 eta 45 urte bitartekoaren artean (% 86,4 eta % 81,2) gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituztenak, eta gizonezkoek (% 22,9) eta 46 urtetik gorakoek (% 28 eta % 27,1) gehiago dituzte Lanbide Heziketakoak edo Batxilergokoak.

Ikasketarik ez edo soilik lehen mailakoak dituztenak laurden bat dira 16 eta 25 urte artekoen artean (% 25,3), seguruenik horietako asko oraindik ikasten ari direlako.

18. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitarien ikasketa-maila (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

18. taula.


Durangoko Azokako bisitarien ikasketa-maila, generoaren eta adinaren arabera (%).

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Batere ez/ Lehen mailakoak	8,3	9,6	25,3	4,5	3,1	2,9	8,5	8,8
Lanbide Heziketa/Batzilergoa	16,1	22,9	20,8	9,1	14,9	28,0	27,1	18,9
Erdi/goi mailako/Goi mailako ikasketak	74,5	67,5	53,6	86,4	81,3	69,1	61,9	71,6
Zehaztu gabe	1,0	0,0	0,3	0,0	0,7	0,0	2,5	0,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Azoka bisitatu dutenen hiru laurden lanean ari da: % 45,4 enpresa pribatuan edo autonomo gisa –gizonezkoen artean gehiago, % 54,2–, eta % 29,4, aldiz, administrazioan edo enpresa publiko batean –emakumezkoen artean % 35,4–. Hurrengo multzorik handiena ikasleena da: % 15,1 da –% 65,1 16 eta 25 urte artean dituztenen kasuan–. Jubilatua edo pentsionistak dira bisitarien % 6,5, nabarmen gehiago 55 urtetik gorakoen artean (% 42,6).

19. grafikoa.
Durangoko Azokako bisitarien lan-egoera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

19. taula.
Durangoko Azokako bisitarien lan-egoera, generoaren eta adinaren arabera (%).


	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Ikaslea	16,1	13,0	65,1	3,6	1,2	1,0	0,0	15,1
Administrazioan/enpresa publiko batean lanean	35,2	21,4	5,8	33,8	36,8	47,2	23,0	29,4
Enpresa pribatuan edo autonomo gisa lanean	39,6	54,2	23,5	58,2	59,5	49,0	29,3	45,4
Langabezian	1,5	2,6	3,9	4,4	1,2	0,0	0,0	2,1
Etxeko lanetan	1,5	0,8	0,0	0,0	1,2	1,0	5,0	1,2
Jubilatua/pentsionista	5,4	8,0	0,3	0,0	0,0	1,0	42,6	6,4
Besterik	0,1	0,0	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2
Ed/Ee	0,5	0,0	0,6	0,0	0,0	1,0	0,0	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Euskaldunak dira bisitari ia guztiak: % 92,8 da euskaraz hitz egiteko gai, eta % 5,6k hitz egin ez arren ulertzen du. 45 urtez azpiko bisitariak euskaldunagoak dira, 46 urtetik gorakoak baino; hala ere, diferentzia hori, batez ere, euskaldun hartzailea da: % 9,6 46-55 adin-tartean, eta % 13,3, 55 gorakoen artean. Bisitarien % 1,6 besterik ez da erdalduna.

20. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitarien euskara-ezagutza (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

20. taula.

Durangoko Azokako bisitarien euskara-ezagutza, generoaren eta adinaren arabera (%).

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Bai, euskaraz hitz egiteko gai naiz	92,6	93,0	95,0	95,2	96,7	87,5	85,8	92,8
Ulertu egiten dut, baina hitz egin ez	6,3	4,7	1,9	3,6	3,3	9,6	13,3	5,6
Ez, ez dut ulertzen	1,1	2,3	3,2	1,2	0,0	2,9	0,9	1,6
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Hitz egiterakoan, parean daude euskaraz errazago egiten dutenak eta bi hizkuntzatan erraztasun bera dutenak: % 37,4 eta % 36,5 dira, hurrenez hurren. % 22,6k erdaraz errazago hitz egiten du euskaraz baino. 2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren Euskal Herri mailako datuekin alderatuta, Azoka bisitatzen duten euskaldunen euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboa altua da: Azokako bisitari euskaldunen %38,7 euskal elebiduna da, hau da, erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino; aldiz, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Euskal Herriko 16 urtez gorako herritar euskaldunen % 26,3 da euskal elebiduna, % 28,6 elebidun orekatua (euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun bera) eta % 45,1 erdal elebiduna.


Gazteek errazago egiten dute euskaraz helduagoek baino: 16-25 adin-tartekoen % 46,6k eta 26-35 adin-tartekoen % 41,7k erdaraz baino errazago egiten dute. Aldiz, 46 eta 55 urte artekoen % 26,9 eta 55 urtetik gorakoen % 33,5 erdaraz moldatzen da hobeto. Aldiz Inkesta Soziolinguistikoko Euskal Herri mailako datuetan, zenbat eta gazteago izan, orduan eta altuagoa da erdaraz errazago egiten duten euskaldunen multzoa —16-24 adin-tartean, euskaldunen % 55,5 erdal elebiduna da—.

Emakumezkoen artean gehiago dira erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak (% 24,1); eta gizonezkoen kasuan, berriz, euskaraz ez dakitenak (% 5,1).

Irakurtzeaz ari garenean, euskarazko gaitasuna jaitsi egiten da: % 26,9k du erraztasun handiagoa euskaraz –gazteen artean nabarmen gehiagok–, eta % 36,6k erraztasun bera du euskaraz zein gaztelaniaz. Beste heren batek (% 33,3) errazago irakurtzen du erdaraz –gehiagok adinean gora egin ahala–.

21. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitariek euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

21. taula.

Durangoko Azokako bisitariek euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna, generoaren eta adinaren arabera (%).

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Hitz egin	Euskaraz errazago erdaraz baino	37,7	37,5	46,6	41,7	35,6	35,7	22,8	37,4
	Erraztasun bera euskaraz eta erdaraz	35,8	37,1	28,8	36,9	45,5	28,7	41,0	36,5
	Erdaraz errazago euskaraz baino	24,1	20,2	20,5	18,3	18,9	26,9	33,5	22,6
	Ez dakit euskaraz	2,4	5,1	4,1	3,1	0,0	8,7	2,7	3,4
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Irakurri	Euskaraz errazago erdaraz baino	27,0	27,2	39,7	34,0	22,7	18,3	15,1	26,9
	Erraztasun bera euskaraz eta erdaraz	37,5	34,2	34,5	36,1	44,3	37,3	25,9	36,6
	Erdaraz errazago euskaraz baino	33,4	33,5	22,2	26,2	33,1	36,6	56,3	33,3
	Ez dakit euskaraz	2,1	5,1	3,6	3,7	0,0	7,7	2,7	3,3
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien erdiarentzat euskara da eguneroko hizkuntza. Heren batek egiten du euskaraz beti edo ia beti bere eguneroko bizitzan (% 34,1); 55 urtetik gorakoen kasuan jaitsi egiten da ehuneko hori % 27,2ra. Eta euskaraz gehiago egiten du % 17,1ek.


Bigarren multzorik handiena erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dutenena da: % 22,4 dira. Esanguratsua da proportzioa zertxobait altuagoa dela 35 urtetik beherakoen artean: 26 eta 25 urtekoen % 27k egiten du erdaraz gehiago, % 28,3k 26-35 adin-tartean. Eta % 7,8k egiten du beti edo ia beti erdaraz.

Euskaraz erdaraz bezainbeste egiten dutenak % 18,6 dira, eta ehunekorik altuena 36 eta 45 urte bitartekoek dute (% 25,8).

Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz beti edo ia beti (% 35,7), baina erdaraz ere gehiago egiten dute (% 23,2) gizonezkoek baino (% 20,5).

22. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitariek zein neurritan egiten duten euskaraz eguneroko bizitzan (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

22. taula.

Durangoko Azokako bisitariek zein neurritan egiten duten euskaraz eguneroko bizitzan, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Beti/ia beti euskaraz	35,7	32,3	35,3	35,6	34,8	35,7	27,2	34,1
Euskaraz erdaraz baino gehiago	15,5	19,7	13,6	15,9	22,3	11,6	21,6	17,1
Euskaraz erdaraz bezainbeste	17,7	19,8	13,5	13,6	25,8	20,0	19,4	18,6
Erdaraz euskaraz baino gehiago	23,2	20,5	27,0	28,3	14,7	22,1	20,3	22,4
Beti/ia beti erdaraz	7,9	7,6	10,6	6,6	2,4	10,6	11,5	7,8
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



3.

AZOKAREKIKO HARREMANA


3.1. Azoka bisitatzea: BISITARIAK

2024ko Durangoko Azokara bertaratu diren bisitariek, zergatik, zerk bultzatuta egin duten Azokara bisita aztertu dugu atal honetan. Durangoko Azoka bisitatzeko arrazoi nagusietan aipatuena euskara eta euskal kultura bultzatzea da, bi herenak aipatu du (% 65,4). Jarraian dago euskal kulturako produktuak erosteko arrazoia (% 62,2), lehen arrazoi moduan gehien aipatu dena: % 33,9k aipatu du, euskara eta euskal kultura bultzatzeko arrazoiaren gainetik (% 21,3).

Hirugarren arrazoi nagusia giroarena da: bisitarien erdiak aipatzen du Durangon sortzen den planak erakarrita joaten dela Azokara –% 13,4k eman du lehen arrazoi gisa, % 18,5ek bigarren arrazoi moduan eta % 15entzat hirugarren arrazoia da–.

Gainontzeko arrazoiek ez dute hainbesteko pisurik: % 32,3k sortzaileak ikusi edota haiekin harremantzea aipatu du; % 28,6k ohitura; % 28,2k egitarauari egin dio erreferentzia; eta % 27,7k Azokari babesa ematea.

23. grafikoa.
Durangoko Azokara joateko hiru arrazoien batura (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

23. taula.
Durangoko Azokara joateko hiru arrazoi garrantzitsuenak eta hiru arrazoi batura (%)

	1. arrazoa		2. arrazoa		3. arrazoa		3. arrazoi nagusien batura	
	%	Ranking	%	Ranking	%	Ranking	%	Ranking
Euskal kulturako produktuak erostea	33,9	1	13,9	4	14,4	3	62,2	2
Azokaren barruan antolatutako emanaldi, kontzertu edo hitzaldietara joatea	11,0	4	9,8	5	7,4	7	28,2	6
Euskal kulturaren sortzaileak ikusi edota haiekin harremantzea (idazleak, musikariak...)	6,2	6	15,8	3	10,3	6	32,3	4
Giroa: euskal kulturari loturiko jaia, aisialdiko plana, sozializatzeko lekua	13,4	3	18,5	2	15,0	2	46,8	3
Euskara eta euskal kultura bultzatzea	21,3	2	24,8	1	19,3	1	65,4	1
Durangoko Azokari babesa ematea	5,3	7	8,4	6	14,0	4	27,7	7
Ohitura	8,3	5	8,0	7	12,4	5	28,6	5
Ed/Ee	0,8						0,8	

Iturria: Siadeco, 2024

Generoen artean, arrazoi batean dago alde esanguratsua (gainontzekoetan apenas dago alderik). Euskal kulturako produktuak erostea arrazoi gisa aipatu dute emakumezkoen % 65,1ek, eta berriz, gizonezkoen % 57,9k.

Kasu honetan, adinak gehiago markatzen du; batez ere, bi muturretan daude aldeak:

- **55 urtetik gorakoak** zertxobait gehiago doaz euskal kulturako produktuak erostera (% 69,2), Durangoko Azokari babesa ematera (% 38,8) eta ohituragatik (% 34). Eta gutxiago, aldiz, giroagatik (% 37,2) eta egitarauagatik (% 15,8).
- Beste aldean, gazteenek, **25 urtetik beherakoek** proportzio handiagoan bisitatzen dute Azoka, batez ere, giroagatik (% 61,2), eta neurri txikiagoan, baita sortzaileekin zuzeneko harremana izateko aukera ematen dutelako (% 37,5) eta egitarauagatik (% 32,8) ere. Azoka bisitatzeko erabakian eragin txikiagoa dute euskal kulturako produktuak erosteak (% 56,1), Azokari babesa emateak (% 20,5) eta ohiturak (% 18,6).

24. taula.

Durangoko Azokara joateko hiru arrazoi batura, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkua	Gizo- nezkua	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Euskal kulturako produktuak erostea	65,1	57,9	56,1	60,2	64,2	63,5	69,2	62,2
Azokaren barruan antolatutako emanaldi, kontzertu edo hitzaldietara joatea	27,4	28,9	32,8	32,4	28,7	27,0	15,8	28,2
Euskal kulturaren sortzaileak ikusi edota haiekin harremanantzea (idazleak, musikariak...)	33,1	30,9	37,5	31,1	33,2	31,8	25,6	32,3
Giroa: euskal kulturari loturiko jaia, aisialdiko plana, sozializatzeko lekua	46,8	47,6	61,2	58,2	38,2	35,6	37,2	46,8
Euskara eta euskal kultura bultzatzea	65,3	65,4	66,2	58,6	69,0	64,5	68,9	65,4
Durangoko Azokari babesa ematea	27,2	28,5	20,5	32,1	21,4	30,7	38,8	27,7
Ohitura	28,0	29,4	18,6	19,9	38,6	32,5	34,0	28,6
Ed/Ee	0,6	1,0	1,2	0,0	0,0	2,9	0,0	0,8

Iturria: Siadeco, 2024


Durango Azokaren eskaintzaz galdetuta, bisitarien % 58,3k Landakoguneko erakusmahaietako eskaintza eta gainerako guneetako eskaintza, biak, baloratzen ditu gehien. Bi alderdi horiek baloratzen dituztenen proportzioa handiagoa da emakumezkoen (% 63,3) eta 25 urtetik beherakoen (% 64,2) eta 46 eta 55 urte bitartekoaren (% 64,5) artean.

Erakusmahaietako eskaintza gehien baloratzen dutenak % 29,6 dira. Proportzio hori ia erdira arte igotzen da 55 urtetik gorako kasuan (% 47,5). Gainera, gizonezkoek (% 33,5) emakumezkoek baino zertxobait hobeto baloratzen dute (% 27,2). 25 urtetik beherakoek baloratzen dute okerrren: % 22,1.

Azkenik, gainerako guneetako eskaintza % 10,3k baloratzen dute gehien. Gehiago gizonezkoen (% 14,5) eta 36 eta 45 urte artekoen kasuan (% 14,4).

24. grafikoa.

Durango Azokak eskaintzen duenetik bisitariak gehien baloratzen dutena (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

25. taula.

Durango Azokak eskaintzen duenetik bisitariak gehien baloratzen dutena, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Landakoguneko erakusmahaietako eskaintza	27,2	33,5	22,1	27,7	29,8	25,8	47,5	29,6
Gainerako guneetan dagoen eskaintza (aurkezpenak, mahai-inguruak, kontzertuak...)	7,3	14,5	11,1	9,1	14,4	8,7	5,6	10,3
Aurreko biak	63,3	50,5	64,2	60,4	54,0	64,5	46,9	58,3
Ed/Ee	2,1	1,5	2,7	2,9	1,9	1,0	0,0	1,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien multzo nabarmen batek aurretik bisitatu izan du Durangoko Azoka: % 27,8 6-15 alditan egon da azokan; % 26,1 2-5 alditan; eta % 34,8, 16 aldiz baino gehiago. % 11,1arentzat lehen aldia izan da 2024koa.

Zenbat aldiz joan diren, adinari lotuta dago erabat. Lehen aldiz joan direnak 25 urtetik beherakoetan dira gehien: bostetik bat lehen aldiz joan da (% 21,1). Beste aldean, 30 aldiz baino gehiago joan da 55 urtetik gorakoen laurden bat (% 26,1).

Generoaren arabera, emakumezkoak gehiago joan dira 6-15 aldiz (% 29,9) eta 30 aldiz baino gehiago (% 11,7). Eta gizonezkoak, berriz, 16-30 alditan (% 29,2).

25. grafikoa.
Bisitaria zenbat aldiz joan den Durangoko Azokara (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

26. taula.
Bisitaria zenbat aldiz joan den Durangoko Azokara, generoaren eta adinaren arabera (%)


	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Behin, aurtengoa lehen aldia da	10,7	11,4	21,1	14,2	7,8	2,9	7,4	11,1
2-5 alditan	25,7	26,3	43,1	29,9	21,3	17,1	14,9	26,1
6-15 alditan	29,9	25,1	28,2	36,7	23,7	29,9	18,9	27,8
16-30 alditan	21,7	29,2	7,7	17,9	33,4	34,8	32,7	24,7
30 alditan baino gehiagotan	11,7	8,0	0,0	1,2	13,8	14,4	26,1	10,1
Ed/Ee	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien hamarretik ia lau azken 15 ediziotan joan da lehen aldiz Durangoko Azokara, 2010 eta 2024 artean. Laurden bat (% 26,3) 2000 eta 2009 artean joan zen lehen aldiz, eta % 20,4 lehenago, 1990etik 1999ra.

Lehen aldiz etorri ziren urtea zuzenean lotuta dago bisitarien adinarekin. 25 urtetik beherakoen hiru laurden azken 15 urteetan etorri zen lehen aldiz, 2010 urtean edo lehenago; eta aldiz, 55 urtetik gorakoen % 42,3k 1989an edo lehenago bisitatu zuen Azoka aurrenekoz.

26. grafikoa.
Bisitaria zein urtetan joan da Durangoko Azokara lehen aldiz (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

27. taula.
Bisitaria zein urtetan joan da Durangoko Azokara lehen aldiz, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
2020-2024 artean	19,2	17,7	35,6	25,9	11,9	7,7	8,6	18,7
2010-2019 artean	21,2	20,1	39,4	23,9	14,9	13,5	8,5	20,8
2000-2009 artean	26,3	26,2	23,9	35,8	29,8	23,9	12,6	26,3
1990-1999 artean	19,4	22,2	0,0	13,9	33,5	28,0	28,1	20,4
1980-1989 artean	9,9	11,4	0,0	0,0	9,9	23,2	26,8	10,4
1974-1979 artean	2,2	1,3	0,0	0,0	0,0	1,0	11,2	1,8
1974aren aurretik	0,6	1,1	0,0	0,0	0,0	1,0	4,3	0,8
Ed/Ee	1,2	0,0	1,1	0,6	0,0	1,9	0,0	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Azokaren bisitarien erdia lagunekin joan da 2024ko edizioan, eta jarraian daude bikotearekin joan direnak, % 44,3. Zertxobait gutxiago dira seme-alabekin joan direnak (% 28,6), baina proportzioa nabarmentzekoa da, baita ere. Norekin egin den azokako bisita galdetu dugunean, kide-mota bakarra baino gehiago erantzuteko aukera eman da, bisita bera kide-mota bat baino gehiagorekin egin daitekeelako, edo bisita bat baino gehiago egin, bisita-kide diferenteekin.


Gutxiago dira familiako beste norbaitekin (% 11,1), bakarrik (% 8,4), gurasoekin (% 4,6), lankideekin (% 4,5) edo eskolaren bitartez (% 0,7) joan direnak.

Emakumezkoen artean multzorik handiena lagunekin joan da, erdia pasatxo (% 53,9); gizonezkoen gehiengoa, aldiz, bikotekidearekin joan da (% 50,8). Gizonezkoen % 11,5 bakarrik joan da, emakumezkoak baino gehiago (% 6,0).

Adinari dagokionez, gazteenek joera handiagoa dute lagunekin joateko (16-25 adin-tartean % 79,2 eta 26-36 tartean, % 65,6), eta hortik aurrerakoak, gehiago joaten dira familiaretan, hau da, bikotekidearekin eta seme-alabekin, 36 eta 45 urte artekoen hamarretik sei.

27. grafikoa.

Durangoko Azokaren bisitaria norekin joan den 2024ko edizioan (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

28. taula.

Durangoko Azokaren bisitaria norekin joan den 2024ko edizioan, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Eskolaren bitartez	0,8	0,6	1,2	1,2	0,0	0,0	1,3	0,7
Gurasoekin	5,8	2,2	9,5	6,0	2,8	1,0	2,5	4,6
Bikotearekin	40,1	50,8	17,1	35,7	60,2	53,8	57,5	44,3
Seme-alabekin	28,8	29,1	0,0	4,3	62,1	52,1	19,4	28,6
Familiako beste norbaitekin	11,1	11,2	7,4	6,4	17,0	13,4	10,4	11,1
Lagunekin	53,9	45,4	79,2	65,6	36,1	30,6	35,3	50,5
Lankideekin	4,8	4,0	6,2	6,2	4,7	2,9	1,3	4,5
Bakarrik	6,0	11,5	5,3	4,9	11,4	8,7	12,6	8,4

Iturria: Siadeco, 2024

Lagunarteko plan bezala ikusten dute askok Durangoko Azoka, eta hori agerian geratu da bisitatu duen edizio guztiak kontuan izanda norekin joan den galdetu zaienean. Azokara inoiz lagunekin joan da hamar bisitaritik zortzi (% 83,8), hamarretik sei haiekin bisitatu du Azoka beti edo gehienetan (% 63,8).


Bikotekidearekin inoiz joan direnak hamarretik sei dira (% 61,7), ia erdia beti edo gehienetan (% 46,4). Eta seme-alabak daude hirugarren lekuan: laurden bat pasatxo beti edo gehienetan joan da haiekin (% 27,1). Seguruenik, kasu askotan, batekin baino gehiagorekin joan dira aldi berean: bikotekidearekin eta lagunekin, bikotekidearekin eta seme-alabekin, etab.

Bisitari batzuek eskolaren bidez edo gurasoekin egin zituzten lehen bisitak, eta beste batzuekin joaten dira gaur egun; hala adierazi du % 28,1ek eta % 32,5ek, hurrenez hurren.

Durangoko Azokak duen sozializazioarako funtzio horren adierazle, hamarretik ia zortzik adierazi du inoiz ez dela joan bakarrik (% 78).

28. grafikoa.

Bisitaria norekin joan den Azoka bisitatu duen edizio guztiak kontuan izanda (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

29. taula.

Bisitaria norekin joan den Azoka bisitatu duen edizio guztiak kontuan izanda (%)

	Eskola- ren bitartez	Zure gura- soekin	Zure biko- tearekin	Zure seme- alabekin	Familiako beste norbai- tekin	Zure lagunekin	Bakarrik
Beti edo gehienetan	1,7	10,3	46,4	27,1	16,3	63,8	12,2
Lehen bai, orain ez	28,1	32,5	7,4	7,8	10,2	12,3	5,8
Lehen ez, orain bai	0,3	0,3	7,9	7,8	4,1	7,7	3,0
Inoiz ez	68,9	56,4	37,4	56,0	68,3	15,4	78,0
Ed/Ee	0,9	0,5	0,8	1,3	1,1	0,8	1,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Azokako edizio guztiak kontuan hartuta, inoiz norekin joan diren generoaren eta adinaren arabera aztertuz gero, zenbait alde esanguratsu daude:

- **Eskolaren bitartez edo gurasoekin** inoiz joan direnak gehiago dira adinean behera egin ahala: eskolarekin 55 urtetik gorako % 3,4 besterik ez da joan, eta 25 urtetik beherakoen % 43,1; eta gurasoekin, 55 urtetik gorako % 12,1 eta 25 urtetik beherakoen % 57,5. Gurasoekin zertxobait gehiago joan dira emakumezkoak gizonezkoak baino (% 45,1 eta % 41, hurrenez hurren).
- **Bikotekidearekin** joatea ohikoagoa da gizonezkoen artean (% 66,7) emakumezkoen artean baino (% 58,5). Adinari dagokionez, 36 eta 55 urte arteko hamar bisitaritik zortzi joan da inoiz bikotekidearekin.
- Inoiz **seme-alabekin** joan den bisitariaren proportzioa handia da 36 urtetik aurrerakoetan, batez ere, 46 eta 55 urte bitarteko artean (% 79). Emakumezkoak zertxobait gehiago joan dira gizonezkoak baino seme-alabekin.
- 16 eta 35 urte bitartekoak neurri txikiagoan joan dira **familiako gainontzeko kideekin**, bostetik ia bat joan da inoiz.
- **Lagunekin** joan izan dira noizbait gehienak, eta hori oso zabaldua dago adin guztietan, baina gehiago dira adinean behera egin ahala: 55 urtetik gorakoetan hamarretik ia zazpi, eta 35 urtetik beherakoetan hamarretik bederatzi pasatxo.
- **Bakarrik** nabarmen gehiago joan da gizonezkoa (% 27,1) emakumezkoa baino (% 16,5), eta 16 eta 25 urtekoak gutxien (% 9,6).



30. taula.

Bisitaria norekin joan den Azoka bisitatu duen edizio guztiak kontuan izanda, generoaren eta adinaren arabera (%).

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Eskolaren bitartez	Inoiz bai	30,6	29,6	43,1	35,4	32,4	27,0	3,4	30,2
	Inoiz ez	68,1	70,1	56,3	63,4	66,9	72,0	95,3	68,9
	Ed/Ee	1,3	0,4	0,6	1,2	0,7	1,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zure gurasoekin	Inoiz bai	45,1	41,0	57,5	55,2	45,5	32,8	12,1	43,1
	Inoiz ez	54,3	58,7	42,2	43,6	54,5	66,3	87,9	56,4
	Ed/Ee	0,6	0,4	0,3	1,2	0,0	1,0	0,0	0,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zure bikotearekin	Inoiz bai	58,5	66,7	24,3	51,7	80,4	82,6	73,4	61,7
	Inoiz ez	40,3	32,9	74,6	47,0	18,9	16,4	26,6	37,4
	Ed/Ee	1,2	0,4	1,1	1,2	0,7	1,0	0,0	0,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zure seme- alabekin	Inoiz bai	44,5	41,5	0,8	4,8	68,5	79,0	71,4	42,7
	Inoiz ez	53,9	57,5	96,5	94,0	30,8	19,1	28,6	56,0
	Ed/Ee	1,6	1,0	2,6	1,2	0,7	1,9	0,0	1,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Familiako beste norbaitekin	Inoiz bai	30,6	30,7	19,8	18,6	43,9	35,6	34,7	30,6
	Inoiz ez	68,2	68,4	78,7	80,2	55,4	62,5	65,3	68,3
	Ed/Ee	1,2	1,0	1,5	1,2	0,7	1,9	0,0	1,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zure lagunekin	Inoiz bai	84,0	83,6	90,8	91,9	83,0	77,9	69,8	83,8
	Inoiz ez	15,3	15,4	8,9	8,1	15,7	20,2	29,3	15,4
	Ed/Ee	0,7	1,1	0,3	0,0	1,2	1,9	0,9	0,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Bakarrik	Inoiz bai	16,5	27,1	9,6	15,6	29,2	26,1	25,2	21,0
	Inoiz ez	82,5	71,9	89,5	83,2	70,8	71,0	74,8	78,0
	Ed/Ee	1,0	1,0	0,9	1,2	0,0	2,9	0,0	1,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Aurtengo edizioaren berri izaterakoan, bisitarien ia erdiak bi iturri nagusi aipatu ditu: komunikabide tradizionalak % 49,7k, eta ahoz ahokoa % 49,3k. Bi kasutan % 30 inguruk lehenengo iturri moduan aipatu ditu.

Oso gertu daude internet eta sare sozialak, % 43,6k aipatu ditu, % 18,7 lehen iturri moduan, eta % 24,9k, aldiz, bigarrena bezala.

Altua da iturririk aipatu beharrean, betidanik, ohituragatik edo bertakoa delako ezagutzen dutela dioten multzoa (% 26,8).

29. grafikoa.

Durangoko Azokaren aurtengo edizioaren berri nondik iritsi zaien (lehen iturria eta bigarren iturria, biak batuta) (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

31. taula.

Durangoko Azokaren aurtengo edizioaren berri nondik iritsi zaien (lehen iturria, bigarren iturria eta biak batuta) (%)

	Lehenengoa	Bigarrena	Guztira (biak batera)
Komunikabide tradizionalak	29,6	20,1	49,7
Internet eta sare sozialak	18,7	24,9	43,6
Ahoz ahokoa	29,7	19,7	49,3
Besterik	20,6	6,2	26,8
Ed/Ee	1,4	29,2	1,4
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2024



Generoaren arabera, gizonezkoek emakumezkoek baino nabarmen gehiago jaso dute informazioa komunikabide tradizionalen bidez (% 58,3 eta % 44,5, hurrenez hurren), eta emakumezkoek, aldiz, internet eta sare sozialen bidez (% 47,7 eta % 37, hurrenez hurren). Ahoz ahokoan ere gizonezkoen proportzioa handiagoa da, baina aldea txikia da, 3 puntukoa.

Adinari dagokionez, adinean gora egin ahala gehiago dira komunikabide tradizionalen bidez informatu direnak: % 30,6 25 urte artekoetan, eta % 73,2 55 urtetik gorakoetan. Eta alderantziz: adinean behera egin ahala, gehiago informatu dira bitarteko digitalen bidez (55 urtetik gorakoak % 19,6 eta 25 urtetik beherakoak % 61,6). Ahoz ahokoaren bidez gazteenek jaso dute informazioa batez ere, hamarretik zazpik izan du Azokaren berri bide horretatik (% 71,6).

32. taula.

Durangoko Azokaren aurtengo edizioaren berri nondik iritsi zaien (biak batuta), generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Komunikabide tradizionalak	44,5	58,3	30,6	34,9	57,8	59,8	73,2	49,7
Internet eta sare sozialak	47,7	37,0	61,6	57,3	36,8	34,7	19,6	43,6
Ahoz ahokoa	47,6	50,9	71,6	52,3	42,1	33,6	44,1	49,3
Besterik	28,5	25,1	14,1	24,1	30,8	37,5	29,3	26,8
Ed/Ee	1,3	1,6	1,6	1,8	0,7	2,9	0,0	1,4

Iturria: Siadeco, 2024


3.2. Azokan erakusmahaia jartzea: ERAGILEAK

Durangoko Azokan standa edo erakusmahaia jarritz parte hartu duten eragileen kasuan ere, salerosketa da parte hartzeko arrazoi nagusia. % 81,9k hautatu du produktuen salmenta (liburuak, diskoak, bestelakoak...) DAn parte hartzeko bi arrazoi nagusien artean. Gehien hautatu den hurrengoa, bisitariei produktuak erakustea eta horien inguruko informazioa ematea da (% 45,8). Antzeko neurrian aipatu da, halaber, enpresaren edo elkartearen promozioa edo sustapena (% 42,2). DAn parte hartzen duten bestelako eragileekin hartu-emanak izatea, aldiz, % 21,7k.

Gurutzaketa-aldagaien arabera, produktuen salmenta nabarmentzen da 16 alditan baino gehiagotan parte hartu dutenen artean (% 90,5), liburuaren industrian (% 86,0) eta enpresen artean (% 93,5). Promozioa edo sustapena egitea, berriz, DAra 2-5 aldiz joan direnen artean (% 52,2), elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 62,5), eta elkarte direnen artean (% 50,0). Beste eragileekin hartu-emanak izatea, DAn lehen aldia dutenen artean (% 29,4), musikaren industrian (% 31,3) eta bestelako egiturak (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa...) dituztenen artean (% 36,4).

30. grafikoa.

Eragileek DAn parte hartzeko arrazoiak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.



33. taula.

Eragileek DAn parte hartzeko arrazoiak, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Produktuen salmenta (liburuak, diskoak, bestelakoak...)	64,7	82,6	86,4	90,5	86,0	78,1	75,0	81,0	93,5	70,0	72,7	81,9
Enpresa edo elkartearen promozioa edo sustapena egitea	47,1	52,2	27,3	42,9	37,2	43,8	62,5	28,6	45,2	50,0	45,5	42,2
Durangoko Azokak ematen duen prestigioa lortzea	17,6	8,7	4,5	0,0	4,7	12,5	0,0	14,3	3,2	5,0	9,1	7,2
Bisitariei produktuak erakustea eta horien inguruko informazioa ematea	41,2	34,8	50,0	57,1	53,5	34,4	50,0	52,4	48,4	40,0	36,4	45,8
DAn parte hartzen duten bestelako eragileekin hartu-emanak izatea	29,4	21,7	27,3	9,5	16,3	31,3	12,5	23,8	6,5	35,0	36,4	21,7


Iturria: Siadeco, 2024

Oso gutxi dira Azokari begira argitalpen-kopurua jaitsi egin dutela adierazi duten eragileak (% 4,8). Ia herenek (% 32,5) adierazi dute azken bost urteetan kopurua igo egin dela eta laurdenek (% 25,3) berdin mantendu dela. % 15,7k baieztatu du Azokak ez duela eraginik argitalpen-kopuruan.

Argitalpen-kopurua igo egin dutela adierazi dutenen pisua altuagoa da 2-5 aldiz joan direnen artean (% 56,5), liburuaren industrian (% 39,5) eta elkarte direnen artean (% 40,0). Berdin mantendu dela adierazi dutenena 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 47,6), elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 50,0) eta bestelako egiturak (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa) dituztenen artean (% 36,4). Azokak eraginik ez duela baieztatu dutenena 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 28,6), musikaren industrian (% 18,8) eta bestelako egiturak (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa) dituztenen artean (% 27,3).

31. grafikoa.

Eragileek Azokari begira egindako argitalpen-kopuruaren bilakaera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

34. taula.

Eragileek Azokari begira egindako argitalpen-kopuruaren bilakaera, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomia	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Igo egin da	0,0	56,5	50	14,3	39,5	28,1	12,5	28,6	32,3	40,0	27,3	32,5
Berdin mantendu da	0,0	17,4	31,8	47,6	23,3	21,9	50,0	9,5	32,3	25,0	36,4	25,3
Jaitsi egin da	0,0	4,3	9,1	4,8	7,0	3,1	0,0	9,5	3,2	5,0	0,0	4,8
Azokak ez du eraginik argitalpen-kopuruan	0,0	21,7	9,1	28,6	16,3	18,8	0,0	9,5	25,8	0,0	27,3	15,7
Azokan lehen urtea izan da	100,0	0,0	0,0	0,0	11,6	28,1	37,5	42,9	3,2	30,0	9,1	20,5
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	4,8	2,3	0,0	0,0	0,0	3,2	0,0	0,0	1,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Durango Azokari begira ekoizpenean izan duten bilakaerari dagokionez, hainbat eragilek adierazi du urtero antzeko argitalpen-kopurua mantentzen duela. Edo Azokak ez duela eragin zuzenik ekoizpenean.

Azokak gure liburu eta aldizkarien salmentan garrantzia handia badu, ez du eragiten kaleraturiko produktuen ekoizpenean

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Zenbakiak mantentzen ditugu, urteko produktuaren arabera gorabehera txikiren batekin batzuetan

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Urtero antzeko liburu kopurua argitaratu ohi dugu

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Azokarekin lotu duten ekoizpenean izan duten bilakaeraren faktoreak aipatu dituztenen artean, batzuek proiektuak lortu duen heldutasuna, oihartzuna edo eskaini ahal izan zaion denbora aipatu dituzte.

Taldea gero eta ezagunagoa izatea batez ere

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Argitaletxearen heldutasuna

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Batetik, argitaletxeari denbora gehiago eskaintzeko prest gaudela eta proiektu gehiago martxan jarri ditzakegula. Eta, bestetik, ezagunagoak garela eta kanpotik ere proposamen gehiago jasotzen ditugula

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea/ Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Reconocimiento, mayor alcance de público, aumento de demanda de nuestros productos y aumento de puntos de ventas

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Handiagoak gara eta irakurleok gure katalogoa hobeto ezagutzen dute

[Enpresa / Araba / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Ezagunagoak egin gara

[Elkartea / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]


Egungo egoeragatik, dedikazio gehiago. Beste esparru batzuk probatzeko aukera

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Datozen azokei begira, hamar eragiletik lau pasatxok adierazi du argitalpen-kopurua igo egingo duela (% 41,0) eta herenek berdin mantenduko dutela (% 33,7). % 8,4k besterik ez du uste argitalpen-kopurua jaitsi egingo dela. % 16,9k baieztatu du Azokak ez duela eraginik izango argitalpen-kopuruan.

Gurutzaketa-aldagaien arabera, kopuru hori igo egingo dela uste dutenen pisua altuagoa da 2-5 aldiz joan direnen artean (% 69,6), musikaren industrian (% 50,0), eta elkarte direnen artean (% 65,0). Berdin mantenduko dela uste dutenena, berriz,16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 57,1), elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 62,5) eta bestelako egiturak dituztenen (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa) multzoan (% 45,5). Azokak argitalpen-kopuruan eraginik izango ez duela uste dutenena, 16 alditan baino gehiagotan parte hartu dutenen artean (% 28,6), elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 25,0) eta bestelako egitura dutenen artean (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa...) (% 36,4).

32. grafikoa.
Eragileek hurrengo Durangoko Azokei begira egingo duten argitalpen-kopuruaren aurreikuspena (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

35. taula.
Eragileek hurrengo Durangoko Azokei begira egingo duten argitalpen-kopuruaren aurreikuspena, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Igo egingo da	52,9	69,6	36,4	4,8	39,5	50,0	12,5	57,1	22,6	65,0	18,2	41,0
Berdin mantenduko da	17,6	17,4	40,9	57,1	32,6	28,1	62,5	23,8	45,2	20,0	45,5	33,7
Jaitsi egingo da	5,9	4,3	13,6	9,5	11,6	6,3	0,0	9,5	16,1	0,0	0,0	8,4
Azokak ez du eraginik izango argitalpen-kopuruan	23,5	8,7	9,1	28,6	16,3	15,6	25,0	9,5	16,1	15,0	36,4	16,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Eragileen % 73,5ek promozio- edo sustapen-ekintzak egin ditu Durangoko Azokari begira. Horien pisua nabarmentzen da Azokara 2-5 aldiz joan direnen artean (% 82,6), musikaren industrian (% 78,1), eta elkarte direnen artean (% 80,0). Promozio- edo sustapen-ekintzarik egin ez dutela adierazi dutenena, lehenengo aldia dutenen artean (% 35,3), elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 37,5) eta bestelako egiturak (Kooperatiba, Fundazioa, bestelakoa) dituztenen artean (% 45,5).

Azokan eskaini dituzten produktuen promozio-ekintzak egin dituztenen ehunekoak gora egin du 2018tik 2024ra, modu nabarmenean: % 54,1etik % 71,1era.

33. grafikoa.

Eragileek DAri begira (aurretik) promozio- edo sustapen-ekintzarik egiten duten ala ez (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

36. taula.

Eragileek DAri begira (aurretik) promozio- edo sustapen-ekintzarik egiten duten ala ez, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Bai	64,7	82,6	68,2	76,2	72,1	78,1	62,5	76,2	74,2	80	54,5	73,5
Ez	35,3	17,4	31,8	23,8	27,9	21,9	37,5	23,8	25,8	20	45,5	26,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

3.3. Azokan norberaren lanak aurkeztea: SORTZAILEAK

Kultur ekoizpena lanbide/ofizio/afizio duten heinean, Durangoko Azoka haientzat zenbateraino den garrantzitsua galdetu zaie sortzaileei. % 47,3k garrantzi oso handia aitortu dio eta % 39,1ek nahiko handia. % 11 inguru besterik ez da Azokak garrantzi txikia edo batere ez duela adierazi duena.

Garrantzi oso handia ematen diotenene pisua bereziki altua da musikan (% 64,3) eta 50 urte edo gehiagokoen artean (% 56,5). Ez oso garrantzitsu kontsideratu dutenen pisua, aldiz, gizonezkoen artean (% 14,3) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 13,0).

34. grafikoa.
DAk kultur ekoizleentzat duen garrantzia (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

37. taula.
DAk kultur ekoizleentzat duen garrantzia, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Oso garrantzitsua	46,5	64,3	35,9	50	44,6	42,9	44,1	44,2	56,5	47,3
Nahiko garrantzitsua	37,2	28,6	48,7	43,5	33,9	57,1	47,1	44,2	17,4	39,1
Ez oso garrantzitsua	9,3	3,6	10,3	2,2	14,3	0	2,9	9,6	13	8,2
Ez da batere garrantzitsua	2,3	3,6	2,6	0	5,4	0	0	1,9	8,7	2,7
Ed/Ee	4,7	0	2,6	4,3	1,8	0	5,9	0	4,3	2,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Azokaren eraginaren inguruko galdera irekietan jaso diren erantzunetan oinarrituz, sortzaileen ikuspuntutik **ikusgarritasuna** da Durangoko Azokak duen eragin positiboenetariko bat. Euskal kulturaren erakusleaho bat da. Lanak ezagutzera emateko eta **hartzaile berriengana** iristeko aukera ematen du.

Ikusgarritasuna, erakusleihoa

Niretzat Durangoko azoka erakusleihoa da, nire sormen lana kulturgileen aurrean adierazteko bidea eta kontzertu antolatzaileen artean nire izena ikusgarri egiteko tresna

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Azokak, ezinbestean, sormen-lana anplifikatzen du eta ikusgarritasuna ematen dio

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Erakusleaho oso interesgarria da eta jendea ezagutzeko leku onena

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

La Feria de Durango es el escaparate de la literatura escrita en euskera y por tanto para mí es una buena oportunidad para promocionar mi trabajo

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Hartzaile berriengana iristea

Gure ingurutik kanpo dagoen jendearen aurrean gure musika aurkeztea Jende gehiago eta ezohikoagoarengana iristen da nire lana Azokaren bidez

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]



Sortzaileek azpimarratzen dute **aurrez aurreko hartu-emanak** sustatzen dituela Durangoko Azokak, hartzaileekin, beste sortzaileekin edo sektoreko eragileekin. Zubiak eraikitzeko eta **saretzeko** balio duela DAK.

Aurrez aurreko hartu-emanak, saretzea

Irakurle batzuekin kontaktu zuzena izatea, kultur munduko jende batekin elkartzea

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Durangoko Azokaren ekosistemak sortzaileoi aukera paregabea eskaintzen digu beste eragile batzuekin elkartzeko: publiko ezberdinak, beste sortzaile batzuk, elkarreak, eta abar luzea. Egiten duzuen lan oparoari esker zubigintza une berezi horiek urte osoan luzatzen dira

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Nire lana bakardadean sortzen dudalarik, Durangoko azoka ikusle, bezero eta lankideekin biltzeko aukadan aukera bakarrenetakoa da. Gure lanaren harrera zuzenean ezagutzeko aukera, besteen sorkuntzak jaso eta komentatzeko uneak dira eta lan berriak lotzeko bidea ere. Aurkezpenetako magiak bide onean gabiltzala erakusten digu eta guztira, honetan jarraitzeko indarra ematen digun garaia da Durangoko Azoka

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Azokan hasiberriak direnen edo esperientzia handirik ez dutenen ikuspuntutik, batez ere, **aitortza** bat izan daiteke Durangoko Azokan parte hartzeko abagunea. Aurrera jarraitzeko indar gisa definitu dute, jardun artistikoari hauspoa ematen dion **motibazio** edo akuilu modura.

Lanaren aitortza

Durangoko Azoka Euskal Herri mailan kulturgintzan erreferentzia handia duen ekimena dela pentsatzen dugu, bertan sorkuntzari behar bezalako garrantzia eta espazioa eskaintzen zaiolarik. Honen parte izatea eta gure lana bertan aurkeztu ahal izatea izugarria da guretzat. Bertan, gure lana zabaltzeko eta jende berriarengana iristeko bide edo aukera paregabea dugula iruditzen zaigu. Egindako lanari emandako errekonozimendu bezala ere ulertzen dugu eta oso pozik gaude honekin.

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Motibazioa eta aurrera jarraitzeko indarra

Durangoko Azoka erreferente bat da talde berrientzat. Urteetan bisitatu ostean izugarrizko ilusioa egiten du bertan egon ahal izatea sortzaile moduan. Bertan egoteko aukerak gogorrago lan egiteko gogoia ematen du

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Bultzada bat. Durangoko azokaren bitartez sormen lana ezagutarazteko plaza bat ematea asko eskertzen dut, izan ere, horren bidez, proiektu hau jendearengana heldu daiteke

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



DAren zenbait alderdi negatibo azpimarratu dituzte batzuek. Batetik, **azoka betebeharrak bilakatu daitezkeela** sortzaile askorentzat: azokan egon beharra, azokan egon ezean kultur ekosistematik kanpo sentitzea, azokan ez egoteak eragin negatiboagoa duela egoteak baino...

Bestetik, egun gutxi batzuetan **kontzentratzen** dela Durangoko Azokaren eragina. Intentsitate eta energia handiko ekimena izatea ahalbidetzen du horrek, baina kalteak ere baditu:

- Sortzaile txikiak, hasiberriak eta ez mediatikoak, oihartzun eta arrakasta komertzial handiena dutenen itzalean geratzea.
- Urteko beste garai batzuetan kultur hitzordurik ez egotea edo daudenek behar adinako oihartzunik ez izatea.

Azoka betebeharrak modura

Erakusleio izan baden arren, nire kasu pertsonalean gehiago da ia betebeharrak bat, parte ez hartzeak eragin negatiboagoa lukeelako parte hartzeak baino. Oro har, erabat berreskuratzen zail den lan-denbora eta diru-inbertsioa suposatzen du eta nire ibilbide artistikoan askoz ere inpaktu garrantzitsuagoa duite programatzaile eta hedabideek. Zentzu horretan, hala ere, Ahotsenaren papera bai izan dela positiboa, Azoka (saltoki eta topagune moduan ulertuta) berarena baino

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Asko nekatzen nau "promozio" intentsiboak, dena Durangora begira eta Durango aurretikoa aurkeztu, defendatu behar

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Euskal kulturaren sustapena Azokaren bueltan kontzentratzearen alde negatiboa

Uste dut Azokak bere horretan izan dezakeela eragin positiboa sortzaileok batzeari eta publikoarengana hurbiltzeari dagokionean, baina frustrazioa sortzen dit urte osoan zehar hartzen duen presentziak, abenduko lau-bost egun horiez gain ezer gehiago gertatuko ez balitz lez. Gainera, egun horietan zehar hainbeste gauza gertatzen dira aldi berean, ze batzuetan sentitzen dudana ezinezkoa dela sortzaile hegemonikoen itzalean ez geratzea (nahiz eta ez nukeen esango ni neu ere hegemonia horretatik hainbeste aldentzen naizenik). Uste dut planteamendu polita dela baina birpentsatu beharko litzatekeela nola bultzatu berez arreta mediatiko handia lortzen ez duten sortzaileak ere heldu daitezkeen publikoarengana

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]



Beste eragin negatiboei dagokienez, Durangoko Azokak **zurrumbilo** bat eragiten duela aipatu dute behin baino gehiagotan. Eskaintza- eta promozio-**gaindosi** bat, betekada eragin dezakeena. Eta, beste eraginaren artean, kultur ekoizpen asko eta askori merezi duten arreta eskaintzea zailtzen duena. Izan ere, **ikusgarritasunaren lehian**, handienak, ezagunenak marketing baliabide boteretsuenak eta **arrakasta komertzialik handienekoak** nagusitzen dira.

Gaindosia, zurrumbiloa

Informazio eta eskaintza gaindosia. Zurrumbilo horretan talde txikiok itzalerago gelditzen gara

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Ikusgarritasunaren lehia

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut >5 aldiz Durangon]

Nobedadeen eta arrakasta komertzialen nagusitasuna

Mundu guztia jartzen da Azokari begira eta berritasun edo arrakasta komertzial ez den oro desagertu egiten da. Azokan bertan liburuen bizia gero eta laburragoa da

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Esan bezala lan-denbora eta dirua inbertitzea suposatzen dit, ahalegin hori erabat berreskuratzeko aukerarik gabe. Bestalde iruditzen zait alde biko txanpona dela, positiboa da beste sortzaileekin plaza konpartitzea baina lehia ere sustatzen du: oso bisuala da argitaletxe eta talde/artista batzuek okupatzen duten lekua, zaleen ilarak, salmenta-kopuruak eta abar ikusgarri egiten dituelako, onerako eta txarrerako

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Literaturaren edo musikaren arlo tradizionaletatik kanpo aritzen diren zenbait sortzailek —ikus-entzunezkoak edo arlo digitala, adibidez—, adierazi dute Durangoko Azokaren **formatua ez dela haien proposamenetara** ondo egokitzen.

Sareko formatuetarako eta ikus-entzunezkoetarako ezegokitasuna

Sareko ikus-entzunezkoak bertan aurkezteko zaila da formatu apropos bat topatzea. Aurkezpenez harago, formatuak ez du sareko logikarekin harreman handirik. Gure ikusle potentzialak bertan daude, baina ez dakigu nola heldu euren gana. Postu bat jartzeak uste dugu ez duela zentzu handirik

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Agian ikus-entzunezkoen emanaldiei promozio gehiago egin ahal zitzaien

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Erdararen presentzia handia ere azaldu da erantzunen artean.

Erdararen presentzia handia

Erdara asko dago, euskal erreferentzi bezela izateko. Euskal (hutsa) azoka beharko luke nazio batek


[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Durango Azokari aitortutako garrantzi orokorraz harago, kultur ekoizleei galdetu zaie Azokak zein neurritan hauspotzen duen euren sorkuntzarako grina. 0tik 10erako eskala batean, 6,25eko puntuazioa jaso du, batez beste (0 batere ez eta 10 erabat izanik). Ia hamarretik lauk sorkuntza dezente hauspotzen duela adierazi dute (% 39,1), 7-8 artean puntuatu dute. Hortik gora puntuatu duena, % 16,4 da.

Batezbestekorik altuenak jaso dira, emakumezkoen artean (7,07) eta 35 urtetik beherakoen artean (6,94). Baxuenak, berriz, liburuaren industrian (5,78), gizonezkoen artean (5,57) eta 50 urtetik gorakoen artean (4,55).

35. grafikoa.


Zein neurritan hauspotzen duen DAK sorkuntzarako grina (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

36. grafikoa.

0tik 10erako eskalan, zein neurritan hauspotzen duen DAK sorkuntzarako grina, gurutzaketa-aldagaien arabera (0=batere ez eta 10=erabat izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

38. taula.

Zein neurritan hauspotzen duen DAK sorkuntzarako grina, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Batere ez	7	7,1	5,1	2,2	10,7	0	2,9	3,8	17,4	6,4
Gutxi	11,6	0	7,7	2,2	10,7	14,3	0	9,6	13	7,3
Erdizka	37,2	32,1	12,8	28,3	26,8	28,6	26,5	26,9	30,4	27,3
Dezente	23,3	39,3	56,4	41,3	35,7	57,1	52,9	40,4	17,4	39,1
Erabat	14	21,4	15,4	23,9	10,7	0	17,6	17,3	8,7	16,4
Ed/Ee	7	0	2,6	2,2	5,4	0	0	1,9	13	3,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Batez beste	5,78	6,5	6,55	7,07	5,57	5,71	6,94	6,39	4,55	6,25


Iturria: Siadeco, 2024

Aztertu da, halaber, Durangoko Azoka zenbateraino den garrantzitsua sortzaileek kultur jarduerarekin aurrera egin dezaten. Erdiek baino gehiagok garrantzitsua dela adierazi dute (% 52,7), baina ezinbestekoa dela, % 3,6k baino ez. Herenek eragin txikia duela eta % 8,2k ez duela eraginik.

Kultur jarduerarekin jarraitzeko Azokaren garrantzia ezinbestekoa dela adierazi dutenen pisua azpimarratzeko modukoa da liburuaren sektorean (% 7,0), emakumezkoen artean (% 4,3) eta 35-49 urtekoen artean (% 5,8). Eraginik ez duela adierazi dutenen pisua, aldiz, liburuaren sektorean (% 14,0), gizonezkoen artean (% 10,7,) eta 50 urte edo gehiagokoaren artean (% 17,4).

37. grafikoa.

Zenbateraino den garrantzitsua DA kultur jarduerarekin jarraitzeko (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

39. taula.

Zenbateraino den garrantzitsua DA kultur jarduerarekin jarraitzeko, gurutzaketa-aldagai nagusien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Ezinbestekoa	7,0	3,6	0,0	4,3	3,6	0,0	2,9	5,8	0,0	3,6
Garrantzitsua	44,2	53,6	61,5	71,7	35,7	57,1	61,8	51,9	39,1	52,7
Eragin txikia du	32,6	35,7	33,3	17,4	48,2	28,6	32,4	32,7	39,1	33,6
Ez du eraginik	14,0	3,6	5,1	4,3	10,7	14,3	2,9	7,7	17,4	8,2
Ed/Ee	2,3	3,6	0,0	2,2	1,8	0,0	0,0	1,9	4,3	1,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Sortzaileen herenek baino gehiagok baieztatu dute Durangoko Azokarekiko batere mendekotasunik ez dutela (% 36,4). Mendekotasun txikia edo erdipurdikoa dutela adierazi dutenen ehunekoak oso antzekoak dira —% 23,6 eta % 22,7, hurrenez hurren— eta Azokarekiko dezenteko edo erabateko mendekotasuna du % 12,7k. Orik 10erako eskala batean (0 batere ez eta 10 erabatekoa izanik), batez bestekoa 2,90koa izan da.

Batez bestekorik altuenak musikan (3,41), emakumezkoen artean (3,57) eta 35 urtetik beherakoen artean (3,73) jaso dira. Batez bestekorik baxuenak, aldiz, liburuaren sektorean (2,38), gizonezkoen artean (2,29) eta 50 urtetik gorakoen artean (1,86).

38. grafikoa.


Azokarekiko mendekotasun-maila (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

39. grafikoa.

Orik 10erako eskalan, azokarekiko mendekotasun-maila, gurutzaketa-aldagaien arabera (0=batere ez eta 10=erabat izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

40. taula.
Azokarekiko mendekotasun-maila, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).


	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Batere ez	37,2	32,1	38,5	28,3	44,6	28,6	32,4	36,5	43,5	36,4
Gutxi	32,6	21,4	15,4	21,7	26,8	14,3	8,8	30,8	30,4	23,6
Erdizka	18,6	21,4	28,2	21,7	19,6	42,9	32,4	17,3	17,4	22,7
Dezente	4,7	17,9	12,8	15,2	7,1	14,3	20,6	9,6	0,0	10,9
Erabat	0,0	3,6	2,6	4,3	0,0	0,0	2,9	1,9	0,0	1,8
Ed/Ee	7,0	3,6	2,6	8,7	1,8	0,0	2,9	3,8	8,7	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste	2,38	3,41	3,11	3,57	2,29	3,43	3,73	2,76	1,86	2,9

Iturria: Siadeco, 2024

Kultur ekoizleen erdiek baino gehiagok baieztatu dute Durangoko Azokak gutxi edo batere ez duela baldintzatzen euren sormen-prozesua (epeengatik, Azokaren nolakotasunagatik, hartzaileen profilagatik...etab.) —% 18,2k gutxi eta % 37,3k batere ez—. % 27,3k erdizka baldintzatzen duela adierazi du eta % 16,3k dezente edo erabat baldintzatzen duela —% 14,5ek dezente eta % 1,8k erabat—. 0tik 10erako eskalan, 0 batere ez eta 10 erabat izanik, 3,18koa izan da batez bestekoa.

DAk sormen-prozesua batere baldintzatzen ez duela adierazi dutenen pisua nabarmentzeko modukoa da liburuaren sektorean (% 41,9), gizonezkoen artean (% 55,4) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 65,2). Sormen-prozesua dezente edo erabat baldintzatzen duela adierazi dutenen pisua, berriz, musikan (% 21,5), emakumezkoen artean (% 30,5) era 35-49 urtekoen artean (% 21,2).


40. grafikoa.
Zenbateraino baldintzatzen duen Azokak sormen-prozesua (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

41. grafikoa.

Otik 10erako eskalan, zenbateraino baldintzatzen duen Azokak sormen-prozesua, gurutzaketa-aldagaien arabera (0=batere ez eta 10=erabat izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

41. taula.

Zenbateraino baldintzatzen duen Azokak sormen-prozesua, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Batere ez	41,9	35,7	33,3	19,6	55,4	0,0	29,4	28,8	65,2	37,3
Gutxi	20,9	7,1	23,1	21,7	16,1	14,3	11,8	23,1	17,4	18,2
Erdizka	18,6	35,7	30,8	26,1	21,4	85,7	41,2	25	13	27,3
Dezente	16,3	17,9	10,3	28,3	5,4	0,0	11,8	21,2	4,3	14,5
Erabat	0,0	3,6	2,6	2,2	1,8	0,0	5,9	0,0	0,0	1,8
Ed/Ee	2,3	0,0	0,0	2,2	0,0	0,0	0,0	1,9	0,0	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste	2,88	3,79	3,08	4,29	2,16	4,71	4	3,47	1,48	3,18

Iturria: Siadeco, 2024



Urteroko hitzordu finkoa izateak **epeetan** eragiten du: lanak Durangon aurkeztu ahal izateko, argitaratu arteko kate osoaren katebegi bakoitzaren epe-mugetan, hain zuzen ere. Sortzaileak lana bukatzeko datatik hasita eta inprenta edo fabrikazio-lanetara. Nobedadeak labetik atera berritan aurkezteko helburuarekin antolatu ohi dira kate horiek, sarritan.

Epeak, garai horretarako lanak argitaratzeari begira

Lana azokako urte berean ateratzen saiatu behar da eta data aldetik ondo antolatu

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Batez ere diskoa bukatua eta fisikoki edukitzean

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Epeengatik. Diskoa uda ondoren grabatu ohi dut eta Azokan aurkezteko data-mugarekin kontuz ibili behar dut, urte horretako lanen artean aurkezterakoan

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

DA datorrela, astindu bat ematen diot lanari, modu batean edo bestean erakusteko

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Azken epe bat bezala da, lana azokarako bukatu behar da bertan aurkezteko

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Batez ere epeengatik

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Azokaren datak kontuan hartzen ditut urteroko nobedadea hor aurkezteko

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Data zehatz batzuetan aurkeztu behar delako

[Musika / Ez bitarra / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Argitaratzeko epean

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Epeetan, agertu beharraren presioan

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Datak kontuan hartzea publikazioetarako

[Literatura / Ez bitarra / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Gure lana azokaren parte izatea aberasgarria ikusten dugun geroztik, garrantzitsua iruditzen zaigu diskaren kaleratze datak honetarako aukera ematea

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz 2-5 alditan Durangon]



Gure musika kaleratzeko datak aukeratzekoan azokaren data buruan daukagu. Azokaren aurretik argitaratzen saiatu gara

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da]

Epeak, diskoa kaleratzeko helmuga delako

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Sortzaileok nahi ala ez, argitaletxeek hari begira egiten dituzte programazioak, beraz, guk moldatu beharra dugu haiek egokitzen dituzten epeetan sartu ahal izateko

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Lanak amaitzeko epeak finkatzerakoan beti edukitzen dugu kontuan Durangoko Azoka.

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Datengatik. Urria hasierarako produktuak inprentan egon behar izaten dutelako

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Argitaratze epeetan

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Produktu fisikoak bertan egoteko ekoizpena kalkulatu beharra

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Argitalpen epeei dagokienean

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Agian datari begira baldintzatzen du. Urtean antolatzen gara Durangoko Azokari begira, eta gero artista guztiak batera ateratzen ditugu lanak

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Inoiz edo behin Azokarako kaleratzeko "korrika" apur bat egin behar izan dugula

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Publikazio epeetan

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Presio puntu bat ematen du

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Epemuga zurruna izanik sormen-prozesua bultzatu eta produktua amaitzeko ezinbestekoa izan ohi da

[Besterik / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]



Durangoko Azokaren datak guztiz bestelako zentzuan kontuan hartzen dituzte beste sortaile batzuek. Argitaratze-epeak azokaren **datetatik aldentzen** ahalegintzen dira, hedabideek lekua egin diezaieten. Euren proposamenaren arabera, batzuek zail dutelako Azokaren zurrunbiloan arreta bereganatzea.

Durangoko Azokaren datak gogoan harturik eta publiko zabalenarentzako musika egiten ez dudala kontuan hartuta, saiatzen naiz Durangoko Azokaren datetatik aldentzen argitalpen berriak plazaratzeko, hedabideek lekua eman diezaioten nire proposamenari. Data horietara hurbiltzen joan ahala, hedabideetan lekua izateko aukera murritzten zait

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Hainbat dira, halaber, adierazi dutenak Durangoko Azokak **ez duela haien sormen-prozesua baldintzatzen**. Edo sormen-prozesuan baino, zabalpenari begira eragiten duela, bestela.

Ez du baldintzatzen

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Ez du baldintzatzen

[Literatura / Ez bitarra / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Ez du baldintzatzen

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Ez dut nire sormen prozesuan faktore gisa ikusten

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da]

Apenas baldintzatzen duen

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Hitzordu garrantzitsua denez, kontuan izaten dugu. Baina sortze prozesuan baino zabalpenara begira

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Ez, behin lana argitaratuta zabaltzeko laguntza paregabea da Durangoko Azoka, baina ez du sormen-prozesua baldintzatzen

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da]

Durangoko Azokak **sormen-lanean eragin zuzenik ez** duela nabarmendu dute batzuek. Ez duela prozesua baldintzatzen eta sortzen jarraituko luketela, azokarik ez balego ere.

Eraginik ez sormen-lanean

Gure kulturaren erakusleihu nagusia da, baina berdin jarraituko nuke sortzen hura ez balego ere. Ez dut DAri begira sortzen, geroko ondorioa da

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Nire sormen lanean eragin gutxi du, baina oro har, uste dut euskal kulturgintza hauspotzeko ezinbesteko plaza eta elkargunea dela Durangoko Azoka

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Asko estimatzen dut Durangoko Azoka, baina ez da bera nire sorkuntzarako grina hauspotzen duena

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Irakurleekin, lagunekin eta kideekin egoteko aukera daukat. Ilusioa egiten dit bertara joateak, bizi dugun garaiko giroa ikusteak..., baina nire sorkuntzarako grina hauspotzeko ez daukat zertan joan bertara. Beste leku batzuetatik elikatzen eta hauspotzen da nire grina, ez naiz Durangoren zain egoten horretarako

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]



4. AZOKAKO JARDUNA


4.1. Ezagutzera eman eta saldu: ERAGILEAK

Landakogunean jartzen dituzten standetara eramaten dituzte eragileek sortzaileek sortutako lanak, horiek ezagutaraztea eta saltzea da, hain zuzen, haien eginbeharra Azokan.

Durangoko Azokako standera eramandako lanak ezagutzera emateko moduetako bat da Azokan bertan promozio- edo sustapen-ekintzak egitea. Oso zabalduta daude, hamar eragiletik zazpik egin ditu edizio honetan (% 71,1). Horien pisua handiagoa da 16 alditan baino gehiagotan parte hartu dutenen artean (% 76,2), elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 87,5) eta enpresen artean (% 80,6).

42. grafikoa.

Eragileek DAn bertan promozio- edo sustapen-ekintzarik egiten duten ala ez (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

42. taula.

Eragileek DAn bertan promozio- edo sustapen-ekintzarik egiten duten ala ez, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Bai	70,6	69,6	68,2	76,2	67,4	71,9	87,5	57,1	80,6	75	63,6	71,1
Ez	29,4	30,4	31,8	23,8	32,6	28,1	12,5	42,9	19,4	25	36,4	28,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Azokan bertan produktuen inguruko komunikazio- edo promozio ekintzaren bat eskaini dutenek, oro har, garrantzi handia ematen diete. Handixeagoa guneeetako aurkezpenei sinadurei baino: % 40,7 eta % 32,2k garrantzi handia, hurrenez hurren.

Guneetako aurkezpenei garrantzi handia ematen dietenen pisua nabarmentzen da Azokara 2-5 aldiz joan direnen artean (% 56,3), musikaren industrian (% 56,5) eta bestelako egitura dutenen artean (% 57,1).

Sinaduren kasuan, aldiz, 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 37,5), liburuaren industrian (% 37,9) eta autonomoen artean (% 41,7).

43. grafikoa.

Eragileek DAko promozio- edo sustapen-ekintzei ematen dieten garrantzia (% 71rekiko) (a: guneeetako aurkezpenak (%)).



Iturria: Siadeco, 2024.

43. taula.


Eragileek DAko promozio- edo sustapen-ekintzei ematen dieten garrantzia (% 71rekiko), gurutzaketa aldagaien arabera (a: guneeetako aurkezpenak (%)).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Oso handia	41,7	12,5	26,7	18,8	24,1	13,0	57,1	33,3	12,0	26,7	42,9	23,7
Handia	25,0	56,3	46,7	31,3	27,6	56,5	42,9	33,3	32,0	53,3	57,1	40,7
Erdipurdikoa	8,3	18,8	13,3	25	20,7	17,4	0,0	0,0	32,0	13,3	0,0	16,9
Txikia	8,3	6,3	0,0	12,5	10,3	4,3	0,0	8,3	12,0	0,0	0,0	6,8
Oso txikia	0,0	0,0	13,3	12,5	10,3	4,3	0,0	8,3	12,0	0,0	0,0	6,8
Ez dakit/Ez dut ezagutzen	16,7	6,3	0,0	0,0	6,9	4,3	0,0	16,7	0,0	6,7	0,0	5,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	12	16	15	16	29	23	7	12	25	15	7	59

Iturria: Siadeco, 2024

44. grafikoa.

Eragileek DAko promozio- edo sustapen-ekintzei ematen dieten garrantzia (% 71rekiko) (b: sinadurak) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

44. taula.

Eragileek DAko promozio- edo sustapen-ekintzei ematen dieten garrantzia (% 71rekiko), gurutzaketa aldagaien arabera (b: sinadurak) (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Oso handia	16,7	12,5	40	25	27,6	21,7	14,3	16,7	28	20	28,6	23,7
Handia	33,3	37,5	20	37,5	37,9	26,1	28,6	41,7	32	26,7	28,6	32,2
Erdipurdikoa	16,7	18,8	20	12,5	13,8	17,4	28,6	16,7	16	13,3	28,6	16,9
Txikia	0,0	6,3	0,0	0,0	0,0	4,3	0,0	0,0	0,0	6,7	0,0	1,7
Oso txikia	8,3	18,8	13,3	18,8	13,8	17,4	14,3	8,3	12,0	26,7	14,3	15,3
Ez dakit/Ez dut ezagutzen	25	6,3	6,7	6,3	6,8	13	14,3	16,7	12,0	6,7	0,0	10,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	12	16	15	16	29	23	7	12	25	15	7	59

Iturria: Siadeco, 2024


Eragileen ia % 46k adierazi du Durangoko Azokako promozio-ekintzek eragina dutela ondorengo salmentetan —% 13,3k asko nabaritzen dela eta % 32,5ek zerbait nabaritzen dela—. % 24,1ek adierazi du gutxi nabaritzen dela eta % 13,3k ez dela batere nabaritzen.

Asko nabaritzen dela adierazi dutenen pisua altuagoa da 6-15 aldiz joan direnen artean (% 22,7), liburuaren industrian (% 20,9) eta enpresa direnen artean (% 16,1). Zerbait nabaritzen dela uste dutenena Azokan lehen aldia dutenen artean (% 47,1), musikaren industrian (% 40,6) eta autonomoen artean (% 42,9). Batere nabaritzen ez dela diotenena, 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 19,0), musikaren industrian (% 15,6) eta elkarte direnen artean (% 15,0).

Azokan egiten den promozioak Azokaz kanpo duen eraginari dagokionez, aldiz, neurri txikiagoan aitortzen zaio inpaktua: % 8,3tik % 16,9ra igo da, 2018tik 2024ra, ondorengo salmentetan ez dela nabaritzen adierazi dutenen ehunekoa.

45. grafikoa.

DAko promozio- edo sustapen-ekintzek ondorengo salmentetan duten eragina (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

45. taula.

DAko promozio- edo sustapen-ekintzek ondorengo salmentetan duten eragina, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Bai, ondorengo salmentetan azokaren eragina asko nabaritzen da	5,9	13,0	22,7	9,5	20,9	6,3	0,0	9,5	16,1	15,0	9,1	13,3
Bai, ondorengo salmentetan azokaren eragina zerbait nabaritzen da	47,1	43,5	18,2	23,8	30,2	40,6	12,5	42,9	29,0	35,0	18,2	32,5
Ez, ondorengo salmentetan azokaren eragina gutxi nabaritzen da	17,6	30,4	27,3	19,0	18,6	21,9	62,5	19,0	19,4	30,0	36,4	24,1
Ez, ondorengo salmentetan azokaren eragina ez da batere nabaritzen	11,8	8,7	13,6	19,0	14,0	15,6	0,0	14,3	12,9	15,0	9,1	13,3
Ed/Ee	17,6	4,3	18,2	28,6	16,3	15,6	25,0	14,3	22,6	5,0	27,3	16,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Durangoko Azokan lan horiek saltzearen ondorioz eragileek izan duten fakturazioaren bilakaeraz ere galdetu zaie, eta ia pareko daude igo egin dela (% 26,5) eta jaitsi egin dela (% 25,3) adierazi dutenak. % 21,7k adierazi du berdin mantendu dela. % 20,5ek, lehen aldia izan dutela Azokan.

Fakturazioa igo egin dela adierazi dutenen pisua altuagoa da 2-5 aldiz joan direnen artean (% 60,9), liburuaren industrian (% 27,9) eta elkarte direnen artean (% 30,0). Jaitsi egin dela diotenena, aldiz, 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 47,6), liburuaren industrian (% 34,9), eta bestelako egiturak dituztenen artean (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) (% 36,4).

Azken hiru urteetan enpresa edo elkarteak izandako fakturazioaren bilakaeraren balorazioari dagokionez, jaitsi egin dela adierazi dutenen pisua areagotu da gehien: % 10,1etik % 25,3ra, 2018tik 2024ra.

46. grafikoa.
Azken hiru urteetan (2022, 2023, 2024) Durangoko Azokan enpresa edo elkarteak izandako fakturazioaren bilakaera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

46. taula.
Azken hiru urteetan (2022, 2023, 2024) Durangoko Azokan enpresa edo elkarteak izandako fakturazioaren bilakaera, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Igo egin da	0,0	60,9	27,3	9,5	27,9	25,0	25,0	23,8	29,0	30,0	18,2	26,5
Berdin mantendu da	0,0	17,4	27,3	38,1	23,3	18,8	25,0	4,8	25,8	30,0	27,3	21,7
Jaitsi egin da	0,0	13,0	36,4	47,6	34,9	18,8	0,0	23,8	32,3	10,0	36,4	25,3
Azokan lehen urtea izan da	100,0	0,0	0,0	0,0	11,6	28,1	37,5	42,9	3,2	30,0	9,1	20,5
Ed/Ee	0,0	8,7	9,0	4,8	2,3	9,4	12,5	4,8	9,7	0,0	9,1	6,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Salmenten igoera/jaitsieran eragin duten faktoreen artean, eguraldi txarra eta Azokaren iraupen laburragoa (beste edizio batzuetan baino egun bat gutxiago) azpimarratu dituzte, alde batetik. Aforoa ere bai, jendearen gehiegizko pilaketa.

Azokak egun bat gutxiago izan duelako eta igandean egin zuen eguraldiagatik. Seguru asko, eguraldi ona egin izan balu, jaitsi ere egingo zukeen, baina ez horrenbeste

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

**-Egun bat gutxiago egon delako
-Eguraldi txarraren eragina aurten.
-Nire standaren kokapena.**

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Urteko ekoizpenak, Durangoko azokaren egun kopurua, eguraldia, aforoen kontrola

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Alde batetik, 2024an azoka egun bat gutxiago egon zen, eta, gainera, lehen egunean ezin zen publikoa sartu, afororekin arazoak zeudelako.

[Kooperatiba / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Egun bat gutxiago izan da. Kontsumitzen diren produktu motak: diskoen salmenta nabarmen jaitsi da

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Afluencia de público, organización de aforos, meteorología

[Autonomoa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Azokara nobedadeekin joatea edo ez, hori da salmentetan gehien eragiten duen faktoreetako bat, eragileek adierazi dutenez.

Gehienbat argitaratutako nobedadeetan dago gakoa

[Enpresa / Bizkaia / Musikaren industria / 16-30 aldiz]

Iaz gutxi saldu genuen. 2022an aurtengo berdintsu. Gure kasuan, asko markatzen du ze liburu argitaratu ditugun

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Disko berriaren kaleratzea

[Enpresa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Album berria atera dugula

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Lan berriek reedizioek baina pisu gehiago daukatelako

[Kooperatiba / Nafarroa / Musikaren / 2-5 aldiz]

Nobedadea kaleratzea edo ez. Guk azken aldian 3 urtetik behin kaleratzen dugu nobedade bat (aprox.)

[Enpresa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Iaz oso nobedade berritzaile batekin aritu ginela. Aurten lan gehiago eskaini ditugu, baina, hala ere, salmenta gehienak iazko lanak eman dizkigu

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Nobedade esanguratsurik ez izateak (komiki berri bat, esaterako)

[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]



Standaren kokapena, tamaina edo stand kopurua eta ikusgarritasuna nabarmendu daitezke beste multzo batean. Promozioa ere aipatzen dute, gainera.

Kokalekua, promozio falta azoka barruan eta izenaren aldaketa

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria]

Taldearen ibilbideak eragina izan du. Makusi plataforman saioa estreinatu dugu eta horren harira ere, jende gehiago hurbildu zaigu.

Hedabideetan jarraipena izatea.

Lekuak eragina izan du

[Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria]

Mayor visibilidad, ya que el año pasado participamos con stand pequeño y este con 3 grandes

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria]

Lehenengo aldiz mahai osoa jarri dugu (aurrekoetan partekatua genuen).

Nobedade gehiago genituen aurrean, eta liburu hobeak. Argitaletxea bera ezagunagoa da

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

La editorial es más conocida, el catálogo ha aumentado y la ubicación del stand

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Aurreko hori guztia kontuan izanda, eragile gehien-gehienek Durangoko Azokaren balorazio positiboa egin dute —% 33,7k oso ona eta % 53,0k ona—. % 12,0k erdipurdiko balorazioa egin du.


Balorazio oso ona egin dutenen pisua altuagoa da Azokan lehen aldia dutenen artean (% 52,9), musikaren industrian (% 37,5) eta elkarte, hedabidea, hezkuntza eta ikus-entzunezkoa multzoan (% 45,0). Baina, erdipurdiko balorazioa egin dutenena ere Azokan lehen aldia dutenen artean (% 17,6) eta musikaren industrian (% 18,8) nabarmentzen da, baita bestelako egiturak dituztenen artean ere (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) (% 27,3).

Balorazio ona egin dutenena, altuagoa da, Azokan 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 66,7), liburuaren industrian (% 60,5) eta enpresa direnen artean (% 64,5).

2018ko datuekiko, Durangoko Azokari buruzko balorazio orokorra okerxeagoa da. Balorazio oso ona egin dutenen ehunekoak behera egin du: % 41,3tik % 33,7ra. Balorazio ona egin dutenenak, berriz, gora: % 41,3tik % 53,0ra.

47. grafikoa.

Durangoko Azokari buruzko balorazio orokorra (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

47. taula.

Durangoko Azokari buruzko balorazio orokorra, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Oso ona	52,9	43,5	27,3	14,3	30,2	37,5	37,5	38,1	29,0	45,0	18,2	33,7
Ona	29,4	47,8	63,6	66,7	60,5	43,8	50,0	47,6	64,5	45,0	45,5	53,0
Erdipurdikoa	17,6	8,7	9,1	14,3	7,0	18,8	12,5	14,3	6,5	10,0	27,3	12,0
Txarra	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Oso txarra	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	4,8	2,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	9,1	1,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

2024ko Azokaren balorazioari dagokionez, asko dira Azokaren balorazio positiboa egiten dutenak. Batez ere harremanei eta ikusgarritasunari dagokienez, baina baita salmentei begira ere.

Salmentak gauzatzen laguntzen digulako batetik eta irakurleekin zuzeneko harremana izateko aukera dugulako

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Argitaratzen ditugun liburuen irakurleekin harreman zuzena izateko aukera ematen digulako batetik eta salmentetan laguntzen digulako bestetik

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Taldea ezagutzera emateko aukera bikaina delako eta ekonomikoki lagungarria delako

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Salmenta aldetik pozik gaudelako, baina, batez ere, euskal literaturan gure lekutxoak topatzen ari garela sentitzen dugulako, eta Durangoko azokak asko lagundu digu horretan

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Giro ona izan genuen standean. Salmenta onak izan genituen

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Gure nobedadeek saldutako kopurua espero genuena baino hobea izan delako

[Enpresa / Bizkaia / Musikaren industria / 16-30 aldiz]

Jende asko hurbildu zaidalako nire produktua ezagutu eta erostera

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Behin]

Por la afluencia de gente y por el aumento de ventas

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Guretzat azoka inportantea da, zabaltzeko lana eta saltzeko

[Fundazioa / Nafarroa / Elkartea / 16-30 aldiz]

Ez genuen itxaropenik eta publikoaren harrera ona izan dela ikusi dugu

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / Behin]

Es un momento importante de promoción y consolidación de la estrategia empresarial, así como un % de facturación de peso en las finanzas de la editorial

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Gure helburua elkartea ezagutaraztea da eta gure publikoarekin harremanetan jartzea. Azokak asko lagundu digu horretan, elkar ezagutza lagunduz

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 2-5 aldiz]

Jendearekiko harremanengatik, bai bezeroak bai beste kideekin izandako harremana.

Ikasle taldeekin izandako harremana

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Multzo handi bat da harreman aldetik eta ikusgarritasun aldetik ondo, baina errentagarritasun ekonomikoaren aldetik okerrago baloratzen dutenena.

Ez badugu salmenta zenbaki handirik egiten, guretzat azoka testuinguru ezin hobea da gure arloko jendearekin harremana sortzeko edo zaintzeko, eta partaidetzak edo kolaborazioak sortzen dira Durangon egindako harreman hauetatik

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Bertan egotea, artista txikiarentzako lana ezagutzera emateko aukera da; nahiz eta irabazi gutxiarekin, standaren ordainketa eta bertan egoteak dakartzan gastuekin alde txikia geratzen baita

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Dirua galtzen dugulako. Jendeak ikus gaitzan goaz, eta alde horretatik ondo, baina nobedade esanguratsu bat plazaratu ezean galerak izaten ditugu

[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Nahiz eta salmenten aldetik jaitsiera nabarmena egon, presente egon gara beste behin ere

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / Elkartea / 6-15 aldiz]

Gureari dagokionez arlo ekonomikoan ez da horren emankorra, bestela primeran dago

[Beste bat / Gipuzkoa / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Uste dugu garrantzitsua dela azokan egotea eta jendeak ikus zaintzan, baina orokorrean dirua galtzen dugu azokan

[Enpresa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Nahiz eta gutti saldu, jendea ezagutu eta harreman onak sortu ditut

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / Behin]

Beste batzuek salmenten jaitsieran edo Azokak dakartzan gastuak konpentsatzeko zailtasunetan jarri dute azpimarra.

Salmentei begira, oso exkaxa izan da, aurreko urte batzuekin konparatuta. Asko saldu behar da dauden gastuei aurre egiteko: dietak, loak, desplazamenduak...

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Porque la facturación diaria subió un 10% pero la total fue inferior a la del año anterior al ser un día menos de feria

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Lau egun oso intentsoak dira, fisikoki eta mentalki oso exigenteak. Esposizio handia. Eta etekinik ez dago: bidaia, dietak, standean egon behar diren langileak, lan-orduak...

Ez da saltzen ezta gastuak ordaintzeko ere ez

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 16-30 aldiz]

Gastuak eta etekinak ez dabiltzalako batere parean

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Badago beste multzo bat giroa azpimarratzen duena, edo Azokak ematen duen indarra, edo Azokaren alde sinbolikoa, euskal kulturaren topagune gisa.

Giroak indarra ematen dit lanbide honetan jarraitzeko

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Dagoen kultur guztia ikusten da eta indarra ematen du

[Autonomia / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / Behin]

Euzkotarrontzako elkargune bat da, eta herriari pultsu politikoa hartzeko aukera paregabea ahalbidetzen du Durangoko Azokak

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Liburuaren industria / Elkarte / 6-15 aldiz]

Salmentak, ambientea, Durangoko Azokako lagunak... oso unibertso berezia da, asko gustatzen zaigu parte hartzea.

[Enpresa / Araba / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Azokaren antolakuntza ona azpimarratu duten eragile batzuk ere badaude.

Antolakuntza oso ona: erakusmahaiak, ordutegiak, kontzertuak, etab.

Bisitari kopurua eta haiekin kontaktuan jartzea.

Beste parte hartzaileekin kontaktuak jarri ahal izatea.

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / Behin]

Harrera zoragarria. Jende efektiboa


[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren / Ikus-entzunezkoen industria / 2-5 aldiz]

Azken horri lotuta, Durangoko Azokaren antolaketa eta funtzionamendua oso modu positiboan baloratu dute standa edo erakusmahaia jarritz parte hartu duten eragileek: % 59,0k balorazio oso positiboa eta % 37,3k nahiko positiboa. % 2,4k erdipurdikoa balorazioa egin du eta nahiko negatiboa soilik % 1,2k.

Balorazio oso positiboa egin dutenak nabarmentzen dira Azokan 2-5 aldiz izan direnak (% 78,3), elkarte, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzokoak (% 75,0) eta elkarte direnak (% 65,0). Erdipurdiko balorazioa egin dutenak, berriz, 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 9,5), musikaren industrian (% 3,1) eta autonomoak direnen artean (% 4,8).

48. grafikoa.

Durangoko Azokaren antolaketa eta funtzionamenduaren balorazioa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

48. taula.

Durangoko Azokaren antolaketa eta funtzionamenduaren balorazioa, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Autonomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Oso positiboa	47,1	78,3	40,9	66,7	53,5	62,5	75,0	57,1	54,8	65,0	63,6	59,0
Nahiko positiboa	52,9	21,7	54,5	23,8	44,2	31,3	25,0	38,1	38,7	35,0	36,4	37,3
Erdipurdikoa	0,0	0,0	0,0	9,5	2,3	3,1	0,0	4,8	3,2	0,0	0,0	2,4
Nahiko negatiboa	0,0	0,0	4,5	0,0	0,0	3,1	0,0	0,0	3,2	0,0	0,0	1,2
Oso negatiboa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Azokaren antolakuntzarekin lotuta, hasteko, **alderdi positiboak** aipatu dituztenen multzoa nabarmentzen da.

Oso pozik gaude antolakuntza eta funtzionamenduari

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 2-5 aldiz]

Dena erraztasunak dira beraien partetik

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / Elkartea / 6-15 aldiz]

Jakinez zenbat langile finkoak badiren urtean zehar Durangoko Azoka antolatzeke, chapeau!

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Lan bikaina egiten dutela uste dugu, eta bertan parte hartu ahal izatea asko eskertzen dugu.

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Elkartea / 2-15 aldiz]

Ederra da azoka eta urtero parte hartu nahiko genuke. Hobetzekorik beti egongo da, hala ere, zorionak egiten duzuen lan beharrezko eta distiratsuaengatik!

[Kooperatiba / Bizkaia / Behin]

Oso nabarmentzekoa eta eskertzekoa da urte osoan zehar egiten duten lana. Dena oso ongi eta argi azaldua hasieratik, gertu sentitzen ditugu beti eta edozein zalantza edo arazorekin laguntza jaso dugu segituan

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Dar la enhorabuena por realizar un trabajo tan complejo

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Bertako langile guztien aldetik jaso dugun arreta eta tratua ezin hobeak izan dira, oso eskertuak gaude Gerediaga elkarteko kide zein Durangoko Azokako langileekin

[Autonomoa / Gipuzkoa / Ikus-entzunezkoen industria / Behin]

Jarraitu, horrela lan egiten! Eskerrik asko egiten duten esfortzu guztiagatik!

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Oso tratu polita izan dugula beti

[Kooperatiba / Nafarroa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Orokorrean ona. Antolakuntza aldetik aurretik, azoka egunetan eta ondoren bikain erantzun eta bideratu da guztia

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Antolakuntza oso ona: Parkina, erakusmahaiak, ekitaldien ordutegiak eta programazioa eta bertako partaideen laguntza

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Musikaren industria / Behin /]

Hobetzeko alderdien artean, autoekoizleen standak izan da aipatu denetako bat.

Autoekoizleen estandak "Marx anaiei ganbara" ematen du. Nire esperientziatik esan dezaket, bertan ez bazaude, ez dela erraza zure produktuak saltzea. Ahalegina eskatzen du, baina merezi du
[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Behin]

El stand de autoeditores se gestionó únicamente con las personas que compartían stand, aunque tuvimos asesoramiento previo por parte del grupo Gerediaga, pero durante la azoka hubo mucha desorganización que conllevó pérdida de dinero que fue asumida por todas las personas que compartíamos stand
[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Behin]

Esandakoa, Autoekoizleentzat laguntza gehiago behar dugu. Bakarrik eta galduta sentitu ginen lehen eguna. Hala ere, lan asko egiten dute langileek Azoka aurrera ateratzeko.
[Autonomoa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Behin]

Artista txikien sustapen handiagoa egiteko beharra ere azpimarratu dute eragileek.

Artista txikiak promozionatu eta bultzatzeko neurriak hartu beharko lirateke
[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Azoka ez da batere justua
[Beste bat / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Bere momentuan komentatu genuena mantentzen dut. Agian proiektuak gehiago nahastea ondo legoke, eta batez ere medio publikoek bereiztasunik ez egitea talde eta musikarien proposamenen artean, informazio "ekidistante" bat emonez, eta "top 5" ak ekidinez
[Elkartea / Bizkaia / Musikaren industria / Behin]

Aforoen kontrola, komun gehiagoren beharra, eragileentzako aparkaleku gehiagoren beharra edo garraio publikoaren maiztasun handiagoaren beharra ere jaso dira alderdi negatiboen artean.

Balorazio positiboa egiten dugu orokorrean, hobetzeko ondorengoak ikusten ditugularik: aforoen kontrola eta kudeaketa egiterako garaian bisitariak gustura izateko neurriak hartzea. Atearen ondoan standak ditugunontzako hotzik ez pasatzeko neurriak aurreikustea
[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Aforoen inguruan ahalik eta aforo handiena lortu ahal izateko neurriak egokitzea
[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Ba, seguruenik oker gaude, baina noizean behin erromesaldi batekin alderatuko genuke Durangoko Azoka, urtean behineko zita saihetsezin horietariko baten modura, eta hori bere xarma higitzeko arriskuarekin dator lagunduta. Une batzuetan masifikazioa nabaritu da edizio honetan, egoera itogarria izateraino eroslearentzat, baina bai eta saltzaileentzat ere. Baina, egiari zor, ez dakigu zein den irtenbidea, ematen du beste bi Landako gune ere beteko liratekeela -eta
[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Liburuaren industria / Elkartea / 6-15 aldiz]



-Komun gehiago

-Komunean papera uneoro egotea

-Parking gehiago

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / Behin]

Standa daukagun pertsonentzako komunak jartzea

[Elkartea / Nafarroa / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Aparkalekuarekin brazo larga dagoela uste dugu, bai lanera goazenentzako eta baita bisitarientzako.

Musikaren arloari buelta bat eman behar zaio, gero eta disko gutxiago saldu, merchandisinaren kontua mugitzen hasi da baina arriskutsua izan daiteke, eskuetatik eskapatu daiteke kontua.

Agian nolabait lan berriei eman biharko genieke espazio gehiena, honek hausnarketa potente bat beharko luke

[Enpresa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 6-15 aldiz]

Todo es correcto y ante cualquier problema están dispuestos a ayudar, pero no puedo entender que en 2023 por un puesto pequeño nos den una plaza de parking, y en 2024 por 3 puestos grandes nos den de nuevo una sola plaza de parking

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Tren zerbitzua ugaltu egiten da, baina jai-egunetan ez dago zerbitzu ona Bilbotik trenez lanera joateko; 8:52 da eta hurrengoa 9:52. Erdian beste bat egon beharko litzateke

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]


4.2. Erosi eta ezagutu: BISITARIAK

Euskal kultura sustatzeko asmoz, euskal sortzaileak ezagutzera eta haien produktuak erostera doaz bisitari gehienak Durangoko Azokara, aurretik azaldu dugun moduan.

Hain zuzen, gehiengo bat da Durangoko Azokaren 2024ko edizioan erosketarik egin duena: hamarretik ia bederatzik erosi du zerbait (% 89,6). Emakumezkoek zertxobait gehiago erosi dute gizonezkoek baino (% 90,9 eta % 87,8, hurrenez hurren). Eta adinaren arabera, adinean aurrera egin ahala, erosi dutenen proportzioa areagotuz doa: 16-25 urtekoen % 81,8k erosi du zerbait; eta 55 urtetik gorakoen % 94,4k (alderik handiena 16-25 eta 26-35 urte bitartekoaren artean dago).

49. grafikoa.

Durangoko Azokan erosi dutenak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

49. taula.

Durangoko Azokan erosi dutenak, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkua	Gizo- nezkua	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Bai, zeozer erosi du	90,9	87,8	81,8	88,7	91,7	93,2	94,4	89,6
Ez, ez du ezer erosi	9,1	12,2	18,2	11,3	8,3	6,8	5,6	10,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Durangoko Azokako bisitarien gehiengoak erosi duen produktu-mota liburuak dira, hamarretik zazpi pasatzok erosi ditu (% 74,6). Hamarretik zortzi pasatzok 36-45 urtekoen (% 84,8) eta 55 urtetik gorakoen (% 85,8) kasuan, eta erdiak 25 urtetik behera dituzten bisitarien artean (% 54,8).

Bigarren produkturik erosiena diskoak izan dira, bisitarien ia erdiak erosi ditu (% 46,6). Eta adinaren arabera, 46 eta 55 urte bitarteko erdiak pasata erosi ditu (% 52,1), eta 55 urtetik gorako herena pasatzok besterik ez (% 37,4).

Azken urteetan ez bezala, merchandisinga erosteko aukera izan dute bisitariak aurren, eta indar handiz sartu da Azokan. Laurden batek erosi du halako produkturik (kamisetak, poltsak, biserak...); gazteen artean izan dute arrakasta gehien –% 35,5ek erosi du– eta 55 urtetik gorakoetan, gutxien –% 12,8k erosi du–.


Papertegia % 16,6k erosi du, eta joera argia da: adinean gora egin ahala bisitarien proportzio handiagoak erosi ditu halako produktuak –25 urtetik beherakoetan % 6,9ra jaisten da, eta 46 urtetik gorakoetan, laurden batera igo–.

Gutxien erosi diren produktuak % 1ek baino gutxiagok erosi dituzte: ikus-entzunezkoak % 0,3k eta ikasmaterialak % 0,8k.

Produktu-mota bakoitza erosi duen emakumezkoen proportzioa handiagoa gizonezkoena baino.

50. grafikoa.

Durangoko Azokan produktu-motak erosi dituztenak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.



50. taula.

Durangoko Azokan produktu-motak erosi dituztenak, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburuak	78,3	69,7	54,8	70,3	84,8	79,7	85,8	74,6
Diskoak (CD, binilo)	49,0	43,3	44,2	49,0	47,9	52,1	37,4	46,6
Merchandisinga: kamisetak, poltsak, biserak	28,0	20,2	35,5	19,2	22,8	32,7	12,8	25,0
Papertegia (agendak, egutegiak)	20,3	11,7	6,9	11,4	17,1	25,0	27,4	16,6
Jolasak (mahai-jokoak, puzzleak, panpinak)	9,8	9,0	4,2	5,4	20,1	9,6	3,8	9,4
Aldizkari edota egunkariak	4,3	3,3	2,2	1,9	5,0	5,7	4,7	3,8
Gidak, katalogoak, mapak, etab	2,8	1,9	1,9	2,2	3,8	0,0	3,8	2,4
Besterik	1,2	0,6	1,2	2,4	0,0	0,0	1,3	0,9
Ikasmaterialak	0,8	0,6	1,5	0,7	0,0	1,0	1,3	0,8
Ikus-entzunezkoak (filmak, dokumentalak)	0,2	0,2	1,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3
Guztira	90,9	87,7	82,0	88,8	91,9	93,5	94,2	89,6

Iturria: Siadeco, 2024


2024ko bisitarien gehiengo batek aurrez pentsatu gabe erosi ditu produktu horietako asko: % 35,4k erositako zerbait zeukan aurrez pentsatua, baina dena ez; eta % 33,4k aurretik zer erosi erabaki gabe erosi du.

Emakumezkoek gehiago zuten pentsatua zer erosi gizonetzkoek baino –% 24,8k erositako guztia edo gehiena zuen aurrez pentsatua, eta % 37,7k, erositakotik zerbait–, eta alderantziz, gizonetzkoek gehiago erosi dute aurrez pentsatu gabe (% 35,8). Gainera, gizonetzkoen % 7k ez du ezer erosi; emakumezkoak baino zertxobait gehiago dira.

Adinari dagokionez, 45 urtetik beherakoek erosi dute gehiago aurretik planifikatu gabe: 25 urtetik beherakoen % 35,8; 25 eta 35 urte bitartekoek % 37,7; eta 36 eta 45 urte artekoen % 38,4. Aldiz, aurrez pentsatua zeramatenen ehunekoa altuagoa da hortik aurrera: dena edo zerbait 46 eta 55 urte artekoen % 67,3k; eta 55 urtetik gorakoen % 70,7. 25 urtetik beherakoen % 13,1ek ez du erosketarik egin.

2016 urteko datuekiko, Durangoko Azokan erositakoa aurrez pentsatua zekartenen pisua oso antzekoa da. Guztia edo gehiena pentsatua zekartenen ehunekoa bi puntu eta erdi baxuagoa izan da 2024an —% 26,7tik % 24,2ra— eta 2,2 puntu altuagoa zerbait pentsatua zekartenena —% 33,2tik % 35,4ra—.

51. grafikoa.
Durangoko Azokan zer erosi aurrez pentsatua zuten edo ez (%).



Iturria: Siadeco, 2024.


51. taula.
Durangoko Azokan zer erosi aurrez pentsatua zuten edo ez, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Bai, erositako guztia edo gehiena	24,8	23,4	17,0	25,8	22,0	31,6	27,0	24,2
Erositakotik zerbait bai, dena ez	37,7	32,7	33,3	31,6	35,3	35,7	43,7	35,4
Ez, ezertxo ere ez	31,3	35,8	35,8	37,7	38,4	26,9	24,1	33,6
Ez dagokio (erosketarik ez)	4,7	7,0	13,1	4,3	3,6	2,9	3,1	5,6
Ed/Ee	1,5	1,1	0,7	0,7	0,7	2,9	2,2	1,3
Guztira	90,9	87,7	82,0	88,8	91,9	93,5	94,2	89,6

Iturria: Siadeco, 2024

Aurrera begira jarrita, nahiz eta Azokan bertan ez erosi, % 69,1ek uste du haren eraginez libururen bat edo diskoren bat erosiko duela aurrerago –batez ere, 26 eta 35 urte bitartekoek–: % 23,9k seguru, eta % 45,2k, ziurrenik. Laurden bat baino gehiago ezezkoan dago (% 14,7 seguru, eta % 13,2, ziurrenik); ia herena 46 eta 55 urte bitartekoen kasuan.

Emakumezkoek ziurtasun handiagoa erakutsi dute gizonezkoek baino: % 25,4k baiezkorako, eta % 15,7k ezezkorako. Gizonezkoen ia erdiak esan du ziurrenik erosiko duela (% 48,5).



Iturria: Siadeco, 2024.

52. taula.

Durangoko Azokan erosi ez arren, haren eraginez beste tokiren batean liburu edo diskorik erosiko ote duen, genero eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Seguru baietz	25,4	21,9	20,5	26,6	24,2	26,0	21,6	23,9
Ziurrenik bai	43,3	48,5	50,4	46,7	42,9	38,4	47,8	45,2
Ziurrenik ez	12,2	14,2	14,9	10,8	14,0	15,4	10,4	13,2
Seguru ezetz	15,7	13,0	10,1	14,0	16,1	17,2	16,7	14,7
Ed/Ee	3,4	2,4	4,1	1,9	2,8	2,9	3,4	3,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Azokako produktuen prezioen inguruan, bisitarien artean pisu handiagoa dute garestia irudituzakizkietenek, merkeak direla esan dutenek baino: % 16arentzat garestia dira, eta % 5,9arentzat, aldiz, merkeak. Hala ere, gehiengoan erdian kokatzen da, tartekoak direla uste dutenen artean (% 70,7).

25 urtetik beherakoak gutxiago kokatzen dira erdian: % 20k garestia direla uste du, eta merkeak dira % 9,9rentzat.

53. grafikoa.


Durango Azokako produktuak zein neurritan diren merkeak edo garestia (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

54. grafikoa.

Durango Azokako produktuak zein neurritan diren merkeak edo garestia, generoaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

53. taula.

Durangoko Azokako produktuak zein neurritan diren merkeak edo garestiak, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizonezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Merkeak	6,8	4,7	9,9	2,9	4,5	5,8	6,8	5,9
Tartekoak	71,1	69,8	60,8	72,2	71,8	74,9	75,9	70,7
Garestiak	16,1	15,6	20,0	16,8	16,6	11,6	12,9	16,0
Ed/Ee	6,0	9,9	9,3	8,1	7,1	7,7	4,3	7,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste (0tik 10era)	5,26	5,34	5,35	5,31	5,38	5,21	5,13	5,29

Iturria: Siadeco, 2024

Durangoko Azokako ardatza da Landakogunea, bertan daude liburu eta diskoen standak eta hori da, baita ere, bisitariek gehien ezagutzen duten gunea: bisitari ia guztiek ezagutzen dute (% 98,4) eta ia ez dago alderik bisitatu dituztenekiko (% 96,9). Erakusmahaiena da, baita ere, gunerik erakargarriena ia hiru laurdenarentzat (% 74,4); % 61,9arentzat lehenengo aukera moduan, eta % 12,5 bigarren bezala.

Bigarren lekuan, hamar bisitaritik zortzi pasatxok ezagutzen du Ahotsenea-Musika (% 83,7), baina erdiak baino gehiagok besterik ez du bisitatu 2024an (% 55,4). Bostetik batentzat bi erakargarrien artean dago (% 40,5); gehiago dira bigarren postuan aipatu duenak (% 12,3arentzat lehenengo erakargarriena; eta % 28,2arentzat, bigarrena).

Landakoguneko Talaia Areto Nagusia % 68k ezagutzen du, % 31,4k bisitatu du aurten, eta hirugarren gunerik erakargarriena da, baina oso proportzio baxuan, % 10,5arentzat besterik ez da erakargarria. Gainontzeko guneek ezagutza-maila altua izan arren, maila oso baxuan erakartzen dituzte bisitariak.

Ahotsenea-Literatura gunea % 61,8k ezagutzen du, baina laurden batek besterik ez du bisitatu (% 26,1), eta Irudienea-Zugaza zinema erdiak ezagutzen du (% 52,9) eta % 18,4 bertaratu da.

Erdiak baino gutxiagok ezagutzen dituzte, eta gutxiagok bisitatu dituzte ondorengoak: Szenatokia (% 44,3k ezagutu, % 17,5ek bisitatu), Saguanbara (% 43,7 eta % 14,8); Museoa (% 27,5 eta % 8,6) eta Kabi@ (% 27,3 eta % 9,6).

55. grafikoa.


Durangoko Azokako guneen ezagutza eta bisitatu dituzten ala ez (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

56. grafikoa.

Durangoko Azokako gune erakargarrienak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

54. taula.

Durangoko Azokako guneen ezagutza eta bisitatu dituzten ala ez, eta zein diren bi erakargarrienak (lehenengoa, bigarrena eta biak batuta) (%)

	Baiezko erantzunak		Erakargarrienak		
	Ezagutu	Bisitatu	Lehena	Bigarrena	Bien batura
Liburu, disko eta abarren ohiko standak (Landakogunean)	98,4	96,9	61,9	12,5	74,4
Areto Nagusia: Talaia (Landakogunean): ekitaldi ofizialak, lanen aurkezpenak, solasaldiak	68,0	31,4	1,7	8,8	10,5
Kabi@ (landakogunean): kultura-digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web-garatzailerak, ekintzaileak	27,3	9,6	1,9	3,5	5,4
Ahotsenean-Musika (Musikarien zuzeneko emanaldiak)	83,7	55,4	12,3	28,2	40,5
Ahotsenean-Literatura (Idazleen zuzeneko emanaldiak)	61,8	26,1	2,1	7,2	9,4
Saguganbara. Ume eta gazteekiko transmisioa lantzeko gunea	43,7	14,8	3,6	4,1	7,7
Irudienean-Zugaza zinema: film laburrak, luzeak, dokumentalak, fikzioa, spotak	52,9	18,4	1,2	2,9	4,2
Szenatokia-San Agustin Kulturgunea: arte eszenikoen emanaldiak, maratoiak, solasaldiak...	44,3	17,5	1,7	4,1	5,8
Museoa (erakusketa eta ekitaldi bereziak)	27,5	8,6	0,2	1,4	1,6
Zehaztu gabe			13,4	27,1	

Iturria: Siadeco, 2024

Gazteenek, hots, 16 eta 25 urte bitartekoek neurri txikiagoan ezagutzen dituzte gune guztiak, baina batez ere, Saguganbara (% 25,9k besterik ez du ezagutzen) eta Kabi@ (% 19,7). 25 eta 35 urte bitartekoek ere bi gune horiek ezagutzen dituzte gutxien. Aldiz, 36 eta 55 urte artekoen artean nabarmen ezagunagoa da Saguganbara: % 59,7k eta % 58,6k ezagutzen dute.

Generoen arteko alde nabarmenena Museoa dago: gizonezkoen herenak ezagutzen du (% 33,3), baina emakumezkoen artean ez da laurden batera iristen (% 23,4).

55. taula.

Durangoko Azokako guneen ezagutza, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburu, disko eta abarren ohiko standak (Landakogunean)	98,4	98,4	98,2	97,4	100,0	98,1	97,8	98,4
Areto Nagusia: Talaia (Landakogunean): ekitaldi ofizialak, lanen aurkezpenak, solasaldiak	68,6	67,3	63,6	68,6	67,6	72,3	69,1	68,0
Kabi@ (landakogunean): kultura-digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web-garatzailerak, ekintzaileak	26,1	28,8	19,7	21,3	33,4	33,4	28,9	27,3
Ahotsenean-Musika (Musikarien zuzeneko emanaldiak)	84,1	82,9	80,9	81,4	85,6	84,6	86,5	83,7
Ahotsenean-Literatura (Idazleen zuzeneko emanaldiak)	60,1	63,7	53,8	60,3	66,8	60,5	68,7	61,8
Saguganbara. Ume eta gazteekiko transmisioa lantzeko gunea	44,1	43,7	25,9	31,7	59,7	58,6	41,9	43,7
Irudienean-Zugaza zinema: film laburrak, luzeak, dokumentalak, fikzioa, spotak	54,0	50,6	48,3	53,7	59,2	53,8	46,6	52,9
Szenatokia-San Agustin Kulturgunea: arte eszenikoen emanaldiak, maratoiak, solasaldiak...	42,3	47,4	41,3	45,8	46,4	45,4	41,9	44,3
Museoa (erakusketa eta ekitaldi bereziak)	23,4	33,3	24,6	18,1	40,3	21,0	30,9	27,5

Iturria: Siadeco, 2024

Generoaren arabera, gizonezkoek gehiago bisitatu dituzte Museoa (% 11,4) eta Kabi@ (% 12,1), emakumezkoek baino (% 6,7 eta % 8, hurrenez hurren).

Adinari erreparatuta, alde handienak Saguganbaran daude: 36 eta 45 urte bitartekoak nabarmen gehiago joan dira (% 33,4), eta 36 urtetik beherakoak eta 55 urtetik gorakoak gutxiago (% 6 inguru).

56. taula.

Durangoko Azokako guneak bisitatu dituztenak, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizonezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburu, disko eta abarren ohiko standak (Landakogunean)	96,5	97,3	96,6	98,2	99,3	94,2	94,1	96,9
Areto Nagusia: Talaia (Landakogunean): ekitaldi ofizialak, lanen aurkezpenak, solasaldiak	31,9	31,4	30,2	34,7	25,1	30,8	39,9	31,4
Kabi@ (landakogunean): kultura-digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web-garatzailerak, ekintzaileak	8,0	12,1	8,2	9,9	7,6	14,5	8,6	9,6
Ahotsenean-Musika (Musikarien zuzeneko emanaldiak)	53,8	57,2	63,0	61,8	50,2	52,1	48,0	55,4
Ahotsenean-Literatura (Idazleen zuzeneko emanaldiak)	24,5	27,9	23,4	27,9	21,3	24,2	37,9	26,1
Saguganbara. Ume eta gazteekiko transmisioa lantzeko gunea	16,1	13,3	5,4	6,0	33,4	17,3	5,6	14,8
Irudienean-Zugaza zinema: film laburrak, luzeak, dokumentalak, fikzioa, spotak	19,0	16,7	21,0	18,6	19,4	12,5	19,3	18,4
Szenatokia-San Agustin Kulturgunea: arte eszenikoen emanaldiak, maratoiak, solasaldiak...	17,8	17,0	18,3	25,8	9,2	14,5	22,3	17,5
Museoa (erakusketa eta ekitaldi bereziak)	6,7	11,4	9,8	3,1	10,7	4,8	16,0	8,6

Iturria: Siadeco, 2024

Landakogunea erakargarria da, bereziki, bi muturrentzat, gazteenentzat eta helduenentzat: 25 urtetik beherakoen % 77,2k adierazi du erakargarria dela, eta 55 urtetik gorakoen % 78,4k. Gutxiago erakartzen ditu 36-45 urtekoak (% 68,3); horientzat gainontzekoentzat baino erakargarriagoa da Saguganbara (% 21,3), nabarmen gehiago, gainera.

Ahotsenea-Musika da bigarren gunerik erakargarriena, batez ere, 35 urtetik beherakoentzat: ia erdiak erakargarritzat jo ditu (16 eta 25 urte bitartekoen % 48,4; eta 25 eta 35 urte bitartekoen % 46,6). Aldiz, ez da hain erakargarria 55 urte bitartekoentzat (% 20,7); adin horrentzat gainontzekoentzat baino erakargarriagoa da Ahotsenea-Literatura (% 18,3).

57. taula.

Durango Azokako bisitarientzako gune erakargarrienak (lehenengo biak batuta), generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburu, disko eta abarren ohiko standak (Landakogunean)	75,5	73,0	77,2	75,7	68,3	75,0	78,4	74,4
Areto Nagusia: Talaia (Landakogunean): ekitaldi ofizialak, lanen aurkezpenak, solasaldiak	10,3	10,9	10,1	13,8	8,3	9,6	10,8	10,5
Kabi@ (landakogunean): kultura-digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web-garatzailerak, ekintzaileak	5,5	5,4	7,1	5,6	5,2	3,8	4,7	5,4
Ahotsenea-Musika (Musikarien zuzeneko emanaldiak)	41,0	39,0	48,4	46,6	38,4	43,2	20,7	40,5
Ahotsenea-Literatura (Idazleen zuzeneko emanaldiak)	8,2	10,6	6,0	9,2	9,7	5,8	18,3	9,4
Saguganbara. Ume eta gazteekiko transmisioa lantzeko gunea	7,4	8,5	1,5	2,5	21,3	6,7	2,2	7,8
Irudienea-Zugaza zinema: film laburrak, luzeak, dokumentalak, fikzioa, spotak	4,6	3,1	5,8	1,8	5,2	2,9	5,0	4,1
Szenatokia-San Agustin Kulturgunea: arte eszenikoen emanaldiak, maratoiak, solasaldiak...	6,9	4,1	5,9	7,6	5,4	1,9	8,1	5,8
Museoa (erakusketa eta ekitaldi bereziak)	2,1	0,7	2,2	0,6	0,7	0,0	5,9	1,6
Ed/Ee	11,9	16,1	12,7	12,4	11,6	16,4	15,6	13,4

Iturria: Siadeco, 2024

Standak bisitatzea oso orokortua dagoen moduan, bisitariak oso proportzio baxuan joan dira Durangoko Azokako egitarauko ekitaldietara edo emanaldietara. Hiru dira bisitari gehien jaso dituztenak, baina horietan ehunekoak oso txikiak dira: ia bostetik bat liburuen eta diskoen aurkezpenetan izan da (% 19,7 eta % 19,6, hurrenez hurren). Eta gutxiago, hamarretik bat, haurrentzako emanaldietara joan da (% 10,1). Hortik behera daude beste guztiak: film-emanaldiak (% 7,9), antzerki-saioak (% 7,6) eta mahai-inguruak, solasaldiak eta topaketak (% 7,2).


Ekimen guztietara proportzio handiagoan joan dira 55 urtetik gorakoak –nabarmentzekoa da, batez ere, % 32,2 joan dela liburu aurkezpenetara–, haurrentzako emanaldien kasuan izan ezik. Horietara proportzio handiagoan joan dira 36 eta 45 urte artekoak (% 28).

35 urtez azpiko gazteentzat erakargarriagoak dira diskoen aurkezpenak liburuenak baino: laurden bat inguru egon da musikarien aurkezpenetara (16-25 urtekoen % 21,7, eta 26-35 urtekoen % 27,4).

Generoari dagokionez aldeak ez dira hain esanguratsuak, baina emakumezkoak gehiago joan dira liburuen (% 20,5) eta diskoen (% 21,3) aurkezpenetara gizonezkoak baino (% 18,9 eta % 16,7, hurrenez hurren). Eta nahiz eta neurri txikiagoan izan, gizonezkoen pisua handiagoa izan da mahai-inguruetan, solasaldietan edo topaketetan (gizonezkoen % 8,7, eta emakumezkoen % 6,1).

57. grafikoa.

Durangoko Azokako zein emanalditan parte hartu duten (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

58. taula.

Durangoko Azokako zein emanalditan parte hartu duten, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburuen aurkezpenak	20,5	18,9	12,8	15,6	20,1	22,2	32,2	19,7
Diskoen aurkezpenak	21,3	16,7	21,7	27,4	13,3	15,5	21,1	19,6
Film-emanaldiak	7,7	8,0	7,6	8,0	7,6	4,8	12,4	7,9
Antzerki-saioak	8,5	6,6	4,4	8,9	8,0	3,8	14,2	7,6
Mahai-inguruak, solasaldiak, topaketak	6,1	8,7	7,8	3,7	6,4	4,8	16,0	7,2
Haurrentzako emanaldiak	10,4	9,9	2,2	3,7	28,0	7,7	2,5	10,1
Besterik	3,7	5,7	6,8	5,4	2,6	6,8	0,0	4,4

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien erdiak ez du inolako ekitaldi edo emanalditan parte hartu (% 51,8); hortaz gehiago dira ekitalditara bertaratu ez direnak joan direnak (% 48,2) baino. 55 urtetik gorakoek artean besterik ez da alderantziz gertatzen, erdia baino gehiago joan baita ekitaldiren edo emanaldiren batera (% 54,7).


Joan direnei galdetu zaie ea aurrez pentsatua zuten horietara joatea ala ez. Laurden batek baietz erantzun du, aurrez programazioa begiratuta etorri dela (% 25,4). % 3ak aurrez erabakita zuen beste bide batzuetatik jakin duelako ekitaldi horien berri.

% 12,5 besterik ez da joan ekitaldietara aurrez erabaki gabe: % 5ek programazioa begiratuta zuen, baina Azokan bertan erabaki du joatea; eta % 7,5, aldiz, programazioaren berririk izan gabe bertaratu da.

Azokara programazioa begiratuta joan direnen proportzioa handiagoa da 36-45 urte artekoek – haurren gurasoak, Saguganbarara gehien joaten direnak– eta 55 urtetik gorakoek kasuan: gainera, % 31,5ek eta % 29,3k, hurrenez hurren, erabakita zuten zein ekitalditara edo emanalditara joan.

58. grafikoa.

Durangoko Azokako ekitaldi eta emanaldietan egon direnek aurrez pentsatua zuten ala ez (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

59. taula.

Durangoko Azokako ekitaldi eta emanaldietan egon direnek aurrez pentsatua zuten ala ez, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Bai, aurrez programazioa begiratuta etorri naiz	24,7	26,0	20,1	22,0	31,5	24,1	29,3	25,4
Bai, baina ekitaldi horren/ horien berri besterik ez nuen	3,2	2,6	3,8	4,8	0,0	1,9	5,9	3,0
Zerbait bai, baina ez dena	5,3	6,1	7,1	8,4	3,8	3,8	3,9	5,5
Ez, programazioa begiratuta nuen, baina behin hemen egonda erabaki dut	4,3	6,0	4,9	5,6	6,6	2,9	4,3	5,0
Ez, ez nuen programazioaren berri hona etorri aurretik	8,8	5,9	5,4	7,6	5,5	11,6	9,0	7,5
Ed/Ee	1,2	2,2	2,6	1,2	1,9	0,0	2,2	1,6
Ez naiz horietako bakar batera joan	52,5	51,2	56,0	50,4	50,7	55,6	45,3	51,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien ia bi herenek balorazio oso ona egiten dute Azokak eman dien esperientziaz (% 64,5), eta laurden bat baino gehiagok nahiko ona (% 27,9). % 3k erdipurdiko balorazioa egin dute, eta % 0,2k nahiko txarra.


45 eta 55 urte artean ia hiru laurdenak egiten du oso balorazio ona (% 72,3). Balorazio kaxkarragoa egiten dute 36 eta 45 urte bitartekoek.

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egin dute oso balorazio ona: % 69,5ek eta % 58,6k, hurrenez hurren.

2018 urteko datuekiko, Durangoko Azokaren balorazio oso ona egin dutenen pisuak behera egin du, % 70,8tik % 64,5era. Erdipurdikoa egin dutenenak gora. % 1.0tik % 3.9ra.

59. grafikoa.

Durangoko Azokaz bisitariek egiten duten balorazioa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

60. taula.

Durangoko Azokaz bisitariek egiten duten balorazioa, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Oso ona	69,5	58,6	63,8	65,5	59,2	72,3	63,9	64,5
Nahiko ona	24,2	31,6	32,7	27,2	27,1	24,8	27,0	27,9
Erdipurdikoa, ez ona ez txarra	3,4	2,6	1,6	1,7	6,6	1,0	3,4	3,0
Nahiko txarra	0,3	0,0	0,0	0,0	0,7	0,0	0,0	0,2
Oso txarra	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	2,7	7,1	2,0	5,6	6,4	2,0	5,7	4,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Aurten Azoka bisitatu dutenen ia erdientzat liburu eta diskoen eskaintza osoa izan da erakargarriena (% 49). Laurden batek sortutako giroa nabarmendu du (% 26,1), eta bostetik ia batek programazioari eman dio garrantzia (% 19).

Emakumezkoentzat (% 52,2) eskaintza erakargarriagoa izan da gizonezkoentzat (% 45,2) baino; aldiz, gizonezkoek hobeto baloratu dute programazioa (% 21,3).

55 urtetik gorakoei nabarmen erakargarriagoa egin zaie liburu eta diskoen eskaintza osoa (% 59,5); programazioa guraso izateko adinean daudenei, 36-45 urtekoei (% 23,7); eta giroa, gazteenei –25 urtetik beherakoen % 34,8k adierazi du erakargarriena egin zaiola–.

60. grafikoa.

Durangoko Azokaz bisitariarentzat zer izan den erakargarriena 2024ko edizioan (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

61. taula.

Durangoko Azokaz bisitariarentzat zer izan den erakargarriena 2024ko edizioan, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburu eta diskoen eskaintza osoa	52,2	45,2	42,1	45,7	48,8	52,9	59,5	49,0
Programazioa: eskaini diren kultur emanaldiak eta aurkezpenak	17,0	21,3	18,8	15,2	23,7	15,5	21,1	19,0
Oro har, sortutako giroa	25,7	26,2	34,8	32,9	19,7	24,8	16,0	26,1
Beste bat. Zehaztu	2,9	5,1	1,9	3,1	5,9	6,8	0,0	3,7
Ed/Ee	2,2	2,2	2,4	3,0	1,9	0,0	3,4	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



lido horretatik, bisitariei galdetu zaie zein diren Durangoko Azokaren alderdi positiboenak eta negatiboenak. **Positiboen** artean nabarmendu dute euskal kultura eta euskal sortzaileak sustatzen dituela, eta gune egokia dela, besteak beste: euskal kulturaren sustatzaileak eta sortzaileak topatzeko, euskal kultura ezagutzeko, ikusgarritasuna emateko, bultzada emateko...

Apoyo a la cultura vasca

Euskal kultura bultzatzaile eta sortzaileen topagune ezagunena

Euskal kulturaren bultzada

Euskal kulturari buruz gehiago jakiteko gune oso egokia

Ikusgarritasuna eman euskal kulturari

Kultura kalean egotearen aldarria egiten du

Literatura eta musika bezalako sektoreei bultzada handia ematea

Se impulsa la cultura vasca y el euskera

Hori guztiaz gain, kultur kontsumoa ere sustatzen duela adierazi dute, batez ere, euskarazkoa eta euskarri fisikoan. Oparitarako kultur produktuak erostea ahalbidetzen duela ere nabarmendu dute.

Eguneroko euskarazko kontsumoa sustatu

Euskal kultura erosteko erraztasuna

Euskarazko kultur produktuen kontsumoa

Euskarri fisikoetan kontsumoa mantendu

Kultura kontsumitzeko aukera

Liburuak erosteko aitzakia

Opariak egiteko aproposa

Opariak erosteko aukera

Produktuak erosteko erosoa da

Euskal sortzaileen eta produktuen erakusleioa da Durangoko Azoka: euskal produkzioaren eskaintzaren aniztasuna ikusarazten laguntzen du, eta ondorioz, aukera zabala dago bertan.

Artistentzako eskaparate oso ona

Aukera aniztasuna (interesen arabera)

Aukera asko dago: liburu, musika ingurua...

Azken urteko nobedadeak ezagutzea

Beste lekuetan aurkitzen ez duzuna hemen topatu ahal duzu

Bideo-jokoak euskaraz daudela

Eskaintza zabala dago, erosteko eta ikusteko.

Gran oferta

Leku txikian dagoen aukera handia

Material zaharra (lortzeko zaila)

Normalean ikusten ez ditudan liburuak ikustea

Produktu asko, leku txikian, denbora aurrezteko

Sortzaileen erakusleio nagusia da Euskal Herrian

Urtean zehar kontsumitzen dudan musika-talde guztiak leku berean topatzea

Variedad de puestos, artículos y creadoras

Bisitari batzuentzat Durangoko Azoka kulturaren erakusleio den heinean, aukera ematen du sortzaile zein produktu berriak ezagutzeko, bisitariari ezezagunak zaizkionak baita merkatura atera berri direnak ere.

Aktualizatzeko kulturaren

Artista txikiak ezagutzeko aukera

Aukera duzula bestela ezagutuko ez dituzun produktuak ezagutzeko

Azken eleberriak ikustea

Beste tokietan ez dauden taldeak

Conocer novedades

Euskal Herriko artista eta lan berriak ezagutzea

Euskal produkzioa, diskoak eta liburuak zer dagoen berri ezagutzea



Gauza berriak ezagutzea (liburu, idazle)

Hay cosas que no hay en otros sitios

Idazle eta artista ugari ezagutu ahal izatea

Kultura berria ezagutzea (musika taldeak, idazleak...)

Oportunidad de conocer cosas nuevas

Illo horretatik, Durangoko Azokak sortzaile ezezagunei aukera bat eskaintzen dietela adierazi dutenak ere badaude.

Accesibilidad a los creadores

Euskal artista berriei edo hain ezagunak ez direnei irekitzen zaizkie ateak

Kultur eragile minoritarioek tokia dute

Lagungarria ekoizle hasi berrientzat

Musikarientzako den aukera

Sortzaile txikiei ahotsa

Sortzaileei aukera ematen zaie produktuak saltzeko

Sortzaileei inputso bat ematea

Sortzaileentzako leku ona da lana aurkezteko eta geuk ezagutzeko

Talde txikiei ikusgarritasuna ematen zaie

Eskaintza anitza da produktu- edo sortzaile-moten arabera, baita adinaren arabera ere: adin guztietarako eskaintza dago Durangon, bai produktuei, baita ekintzei dagokienez ere.

Adin guztientzat pentsatuta dago (umeak, helduak...)

Denentzako eskaintza (gazteak, haurrak, helduak)

Denontzako lekua dago

Eremu berdinean kulturgunea sortzea guztientzat

Guztientzako gauzak daude, adin guztientzako

Txikiek kultura bereganatzeko aukera

Umeei ematen dien garrantzia

Umeek txikitatik bisitatu ahal izatea

Umeentzat kulturen sartzeko bidea



Azokaren programazioa ere nabarmentzen dute askok; oro har, zera aipatzen dute egitarauaz: programazioa anitza dela disziplina ezberdinak jasotzen dituelako, eta aukera ematen duela lan ezberdinak leku berean ezagutzeko. Batzuek emanaldiak doan direla nabarmendu dute.

Ahotsenearen aukera musika taldeak ezagutzeko (talde txikiak)

Aurkezpen bat baino gehiago jarraian entzuteko aukera

Espazio aniztasuna

Euskarazko laburmetraiak

Hitzaldi eta liburu aurkezpenak

Kontzertuak sarrera ordaindu gabe

Las actividades culturales

Oferta musical (conciertos)

Programa mistua dela, denetatik topa dezakezu

Programazio anitza (arautua eta ez arautua)

Programazio oso zabala dago eta berria, egungo kulturarekin bat egiten duena (gaztea, modernoa)

Zuzeneko kontzertuak

Kultur programazioaz gain, zenbaiten ustez, Durangoko Azokak sortzailearen eta bisitariaren arteko hartu-emana ahalbidetzen du.

Antzezlanak ikusi, haiekin momentua konpartitu

Artistak ezagutzea: historia, produktuen atzean dagoena

Artistekin zuzenean harremantzeko aukera

Contacto con los creadores

Egileekin harremana izatea, ikustea

Gertutasuna artistekin

Interakzioa sortzaile-publiko

Musika zuzenean entzutea eta musikariekin egotea

Sortzaileekin egoteko aukera

Sortzaileen lana zein beraiek ikusteko aukera



Bisitari asko dira Azokaren giroari erreferentzia egiten diotenak. Zentzu ezberdinetan nabarmentzen dute, gainera: lagun artean egoteko aukera ematen duelako, kultur giroa sumatzen delako, leku askotatik etortzen delako jendea, egun osorako plana egiteko aukera ematen duelako...

Antzinako lagunekin topo egiten duzu

Egun pasa plan bikaina da

El ambiente, el plan

Euskal gazteriak parrandan saretzen laguntzen du

Euskal kulturaren baitan harremantzeko testuinguru oso potente bat ematen da

Euskaldunon erreferente soziokultural nagusienetako

Familia giroa

Festa egiteko aitzakia

Gazteen elkarte gunea

Giro polita sortzen da, osasuntsua

Giro segurua

Giroa, jendetza plan berdinean

Jende nahikoa eta Euskal Herriko leku desberdinetatik

Komunitatea sortu

Kontzientziatuen bilgune

Kultur giroa

Kulturgintza topagunea

Lagunekin elkartzeko eta zaletasunak partekatzeko gunea

Lugar para reunirse con amigos y familia

Plan ona astebukaerarako

Plana umeentzat dibertigarria da

Poteoa

Sortzen den giroa, alaia eta euskalduna

Tradizio bihurtu den eguna

Viene gente de muchos lados

Euskaraz egiteko eta euskaldunekin batzeko aukera baten moduan ikusten dute beste batzuek, eta euskal nortasunarekin eta komunitatearen identifikazioarekin lotura sustatzen dela ere nabarmentzen dutenak ere badaude.

Taldea egin, identitatea indartu

Euskal giroa, identifikazioa

Euskal nortasunaz kontzientzia hartzea

Euskaldunen bilgunea, horrek euskara sustatu

Euskaldunen ohitura edo tradizio bihurtu izana

Jende asko elkartzen da euskaraz hitz egiten

Euskal komunitatea ikusteko/bisualizatzeko aukera, bagarela ikusteko

Euskal komunitatearen arteko interakzioa

Euskalki desberdinak entzuteko aukera

Euskaltasuna bultzatu

Norberaren euskal sena indartzeko

Gutar asko, talde egiten duzu

Nire lagunak euskaraz hitz egitera animatu ditu

Herri izaera berpiztea

Giro hori herri osora zabaltzen dela aipatu dute batzuek, Durango osora, eta hori onuragarria dela herriarentzat. Gainera, ekonomikoki inguruko herrietan ere eragin positiboa duela aipatu dute.

Herriarekiko duen hurbiltasuna

Herriarekin partekatua (zonak)

Herriko komertzioak lagundu

Herrirako (Durango) ona

Durangoko ekonomia sustatzen da

Inguruko herrien ekonomikoki onuragarria

Gune desberdinak Durango inguruan



Azkenik antolakuntza ere modu positiboan baloratu dute askok. Batzuek antolaketari egin diote erreferentzia, orokorrean, eta beste batzuek antolaketarekin lotura duten zenbait elementu aipatu dituzte: kokalekua, instalazioak, data, sarrera librea izatea edota garraio publikoan iristeko erraztasuna, besteak beste.

Organización, mapas y claridad ubicaciones

Azokaren antolamendua praktikoa da

Dataren kokapena, abenduko zubia

Dinamika guztiak astebukaera batean

Dohainik/sarrerarik gabe/sin cita

Erraztasuna dago trenez edo busez etortzeko

Eskaintza dohainik, kultura herrira

Espazio itxia eguraldiarentzat

Espazioa eta kokapena ona da

Gabonetatik gertu

Langile jatorrak

Leku estrategiko batean dago E.H. mailan

Ondo lokalizatuta

Oso ondo prestatutako gunea

Oso tratu ona

Sarrera librea izatea

Trena dago etortzeko (garraio publikoa)



Durangoko Azokaren alderdi **negatiboen** artean, aldiz, bereziki aipatzen da Landakoguneko aforoa txikia geratu dela, jende pilaketak egon direla eta ilara handiak sortu direla, masifikazioa eta agobioa sentitzeraino. Horrek sortzen duen deserosotasuna areagotu egiten da, 2024ko edizioan gertatu bezala, eguraldi txarrarekin.

Aforoaren arazoa

Aglomerazioa / masifikazioa

Agobioa (jende asko dago)

Aretoa (Landagunea) txikia geratzen da

Sartzeko ilara luzeak eta luze itxaron beharra

Batzuetan kaotikoa

Batzuetan jendetza dago eta ezin dira liburuak ondo ikusi

Colapso, no poder parar para mirar

Eguerdi aldean jende asko

Ezin kalitatezko bisita jendetzagatik

Hay mucha gente y dificultad ver los stands

Ilarak hobeto kudeatu behar dira

Ilaretan itxaroten egotea hotzarekin

Jende asko dago, ilarak, ume txikiekin egoteko pixka bat gaizki

Jende masifikazioak zaildu dena ikustea

Jendea pilatzen da (agobiantea)

Jendearen fluxua kontrolatu, aglomerazioak

Koletan aterpeak falta

Masifikazioa: jende pilaketa handia Landakoguneko espazioan, stand-etara hurbildu eta produktuak eroso ikusteko zailtasunak

Muy lleno, cuesta moverse

Pilaketak (barruan eta kanpoan)



Azoka bisitatzen duen jende kopuru handi horri lotuta, instalazioak txikiak geratu direla nabarmendu dute bisitarietako batzuek. Gainera, barnean bero handiegia pilatzen dela adierazi dute, eta ez dagoela deskantsurako edo lasai egoteko lekurik. Instalazioei dagokienez, baita ere, komun gehiago eskatu dituzte.

Batzuetan lekua txikia geratzen da

Beroa barruan

Deskantsurako leku eza

Espazio handiagoa behar da

Handiagotzea, leku gehiago egongo balitz eskaintza handiagoa egongo litzateke, gazteei espazio gehiago.

Ikasleentzako ez dago leku handirik eta asko kanpoan geratzen dira

Jendetza, areto nagusia txikia geratu da

Jendetza, barruko beroa

Klimatizazioa

Komun gutxi

Komun zikinak

Leku gehiago esertzeko euria egiten duen egun horiontzat

Leku gutxi, beroa barruan

Postuak zabalagoak izan behar dira

Soinu asko

Temperatura

Txikia geratu da, jende asko

Ume karroen pilaketa eta jendea (goizean)

Ume txikiekin ibiltzeko zailtasuna

Azokaren instalazioetan jatekoen eta edatekoen eskaintza falta sumatu dute, baita ere.

Bazkaltzeko lekurik ez

Bazkaltzeko zailtasuna

Edateko eta jateko toki gutxi

Janaria eta edaria falta



Jateko aukera gutxi

Jateko eskaintza gutxi dagoen jende guztiarentzat

Plateruerean bazkaltzeko eremua jartzea

Postu gastronomiko gutxi

Eta instalazioak ez direla irisgarriak, ez mugikortasun aldetik, ezta komunikazio aldetik ere.

Ez dago tokirik mugikortasun murriztua duten pertsonentzat

Irisgarritasun arazoak

Zeinu hizkuntza falta/irisgarritasun falta/zaintza-gune falta

Azokaren datekin eta iraupenarekin du zerikusia beste alde negatibo batek; besteak beste, egun gutxi direla, data horietako eguraldia txarra dela, ordutegia ere motz geratzen dela... aipatu dituzte.

3 egun, motz

Aurten motzagoa izan da

Data Espainiako Konstituzioak baldintzatuta

Egun gutxi, aste oso bat hobe

Eguraldia (abendua)

Gehiegi zentralizatu kultur kontsumoa 2-3 egunetan

Lehenago zabaltzea ondo legoke, eguna motza geratzen da eta gainera gero pilatzen da jendea

Oasi moduko batean geldituta (4 egun)

Ordutegi zabalagoa izan behar zen jendea ez pilatzeko

Urtaroa ez da egokia eta beste bat jarri

Urtean behin bakarrik izatea eta urtean zehar ahaztu

Urtean zehar beste tokietan aurkeztu daitezke gauzak



Horrekin lotuta, asko dira 2024ko edizioko eguraldiari erreferentzia egin diotenak, eta horrek sortzen dituen eragozpenak adierazi dituztenak. Horren aurrean, kanpoan aterpeak jarri beharko liratekeela adierazi dute batzuek.

Eguraldia eta kolentzako txarra

Eguraldia umeekin egoteko

El mal tiempo

Euria egin du

Aterpe falta kanpoan

Aterperik ez ilarak egiteko

Euriagatik jendea Landako barruan dago ez ateratze arren eta kolak egiten dira (kalefaktoreak eta kalean karpak soluzio bezala)

Aparkaleku eskasiak Durangoko Azokara iristeko zailtasunak eragiten ditu, baita ere. Gainera, hainbatek adierazi dute TAO ordaindu behar dela eta garraio publikoa eskasa dela. Hortaz, garraio publikoa edo taldekakoa areagotzeko eskaera luzatu dute batzuek.

Aparcamiento

Aparkaleku arazoak, mugikortasuna

Aparkaleku falta

Aparkalekua / jendetza

Aparkalekua, OTA kendu egun hauetan

Aparkatzeko zailtasunak. Atzo isunak ipintzen egon ziren. Agian ikastetxeen patioak zabaldu behar duzue beste urte batean.

Bertaratzeko zailtasunak, Gipuzkoatik autobus gutxi eta trenak asko irauten du. Aparkatzeko zaila da.

Euskotren gutxi

Garraio publiko gehiago beste tokietatik etortzeko

OTA ordaindu behar da

Parking gutxi

Poco sitio para aparcar



Bisitari batzuen pertzepzioa da hain ezagunak ez diren sortzaileek (txikiek, berriek, atzean ekoizle garrantzitsurik ez dutenek...) eta ezagunak direnek Azokan ez dituztela aukera berdinak.

Artista txiki edo alternatiboek leku gutxi

Artistek status/cache nivel zehatz bat behar hemen egoteko

Aurpegi berrientzat zailagoa (kulturatik, kanpokoentzat)

Ekoizle garrantzitsuak ez dituzten sortzaileek ez dute espaziorik

Endogamikoa, artista alternatiboentzat zailagoa

Enpresa handiek espazio gehiegi

Esfera handian dauden sortzaileek duten presentzia

Ez proiektu autogestionaturik

Hainbeste eskaintza egoteak eragin artista "handiek" txikiak eklipsatzea

Hasi berriak diren egileak gehiago sustatu behar dira

Industriaren barneko botere harremanak indartu

Kulturgile txikiek espazio gutxi

Sortzaile txikiek ez dute handiek duten espazio bera

Talde famatuei ordutegi onenak ematen zaizkie

Talde txikiei aukera berdina eman (kontzertuko orduak)

Produktuen eskaintzaren aldetik, besteak beste, jaso da: gaztelaniazko produktu gehiegi dagoela, liburu eskaintza txikia dela...

Euskal kultura sustatzen dutela diote baina euskara bakarrik sustatzen da

Gaztelerazko edukien / liburuen areagotzea

Kalitate gehiago, kantitatea ez da garrantzitsua

Leku gehiegi ematen zaie gaztelerazko produktuei

Liburu eskaintza eskasa (nobela beltza)

Material alternatibo gehiago egotea

Produktuen eskuragarritasun eskasa

Stock gutxi

Txikientzako liburu gehiago

Agian produktu gehiago edo anitzagoak

Agian produktuen eskaintza birpentsatu beharko litzateke



Produktu horien prezioa da batzuek kritikatzeko dutena: garestiak dira batzuen ustez. Gazteentzat prezio merkeagoak jartzea edo azokan eskaintzak egitea proposatzen dute.

Precios caros

Prezioak ez dira guztiontzat eskuragarri

Prezioak gazteentzat merkeagoak izan behar dira

Prezioen eskaintzak egotea

Botere adiktisiboa nahiko handia daukan jendearena

Beste multzo batek Azokaren jarduna salmentara bideratzen dela dio, baina ez kulturaren kontsumo erreal bat egiteko, eta hori kulturaren merkantilizazioa dela.

Artearen merkantilizazioa

Bakarrik kontsumora bideratuta dago

Benetako kontsumoa behar da, jendeak erosten du eta gero ez dute kontsumitzen

Erosketa masiboa

Euskara negozioa dela baina hala berean alde ona dauka

Kontsumismoa, oso kapitalista

Kontsumo ekonomikora oso bideratua

Kontsumoa honera mugatu

Kontsumoa sustatu (kapitalismoa)

Kultura orokorrean nahiko era elitistan ulertu (garestia)

Kulturaren merkantilizazio masiboa

Merkantilista

Merkatu-kontsumora bideratutakoa da



Zenbait bisitariren inpresioa da programazioaren berri gutxiago zabaltzen dela, garrantzia gutxiago ematen zaiola eta hobeto azaldu beharko litzatekeela. Bestela, emanaldi batzuk laburregiak direla uste dute batzuek, eta batez ere, kontzertuen eskaintza indartu beharko litzatekeela (kontzertu luzeagoak, gehiago eta beste ordutegi batzuetan).

Agian gutxi publizitatzen da

Sare sozialetan programa hobeto azaltzea

Egitaraua begiratzea kostatu

Programaziora heltzeko zailtasunak

Programazioari garrantzia gutxi

Ahotsenean kontzertu gutxiegi

Disko aurkezpen gutxi

Emanaldi batzuen iraupen laburra

Kontzertu gehiago aukeran

Kontzertu luzeagoak jarri

Kontzertuen ordutegia (Gazteentzako direnak 20tatik aurrera izatea)

Programaketan ekintzak elkar zapaltzea, ez du denborarik ematen guztia disfrutatzeko

Programazio errepikakorra

Programazio eskasa aurten

Umeentzako ikuskizun gehiago izatea

Geroz eta gehiago dago bideratuta haurrentzat

Gutxi batzuk diote erdara asko entzuten dela Azokan.

Erdara asko entzuten da

Erdara entzuten da

Jendea erdaraz hitz egiten

jendearen hizkuntza erabilera



Nahiz eta onura ekonomikoa ekarri, herrian zenbait ondorio negatibo ere badituela ohartarazi dute: herria saturatzen da, hondakinak daude edonon, trafiko eta zarata handia...

Birziklatzeko aukera gutxi

Ez da jasangarria

Herria saturatzen da

Hondakinak edonon

Hondakinak. Plastiko gastu asko produktuetan

Trafiko asko

Zaborra eta zarata herrian

Zikintasuna



5.

AZOKAREN BEGIRADA EKONOMIKOA


5.1. Antolakuntza gastuak eta diru-sarrerak

756.830,16 €ko aurrekontua erabili du Gerediaga elkarteak 2024ko azoka antolatzeko. Horietatik 201 mila euro inguru komunikazio gastuetarako, muntaia lanetarako 174 mila, langileen soldatak ordaintzeko 150 mila eta programazio-koordinaziorako 83 mila; horiek dira aurrekontu handieneko lau gastu-motak. Aurrekontu baxuagoko gainerako gastu-multzoak dira: zerbitzu teknikoak 53 mila, alokairuak 33 mila, ikerketa eta planak 24 mila, zeharreko gastuak 15 mila eta beste batzuk 13 mila.

Durangoko Azokaren 2024ko aurrekontua, 2018koa baino % 14,9 altuagoa da – Siadecok Durangoko Azokari buruz egindako aurreko ikerketa eta horregatik alderatu dira 2024ko datuak 2018koekin-. Komunikazioan izan du igoerarik handiena % 38,11koa eta programazioan-koordinazioan jaitsiera gertatu da, -% 25,16koa.

Diru-sarrerei dagokienez, dirulaguntzak (464.500 €), stand-en alokairua (194.562 €) eta babesleen ekarpenak (87.000 €) dira hiru diru-iturri nagusienak. Dirulaguntzena da sarrerarik handiena (% 61,4) eta % 41,18ko igoera izan du, gainera, 2018 urtearekiko. Babesleetan, berriz, -% 33,08ko jaitsiera izan du Durangoko Azokak. Standen alokairutik eratorritako diru-sarreretan % 0,69ko igoera besterik ez du izan.

61. grafikoa.
 Azokako gastuaren aurrekontua (2018-2024 bilakaera, eurotan)



Iturria: Gerediaga Elkarte, 2018 eta 2024. Siadecok landua.


62. taula.
 Azokako gastuen aurrekontua eta haren bilakaera (2018-2024)

	2018		2024		Bilakaera %
	Oinarria	%	Oinarria	%	
Langilegoa	138.346,48	21,00	150.300,07	19,86	8,64
Zeharreko gastuak	12.393,82	1,88	15.174,21	2,00	22,43
Alokairuak	33.063,81	5,02	33.014,14	4,36	-0,15
Aseguruak	7.151,98	1,09	10.434,78	1,38	45,90
Muntaia	159.414,29	24,20	173.835,16	22,97	9,05
Zerbitzu teknikoak	46.465,00	7,05	53.323,97	7,05	14,76
Programazioa- koordinazioa	110.464,88	16,77	82.674,39	10,92	-25,16
Komunikazioa	145.722,82	22,12	201.253,11	26,59	38,11
Ikerketa eta planak	-	-	23.537,10	3,11	-
Beste batzuk	5.693,73	0,86	13.283,23	1,76	133,30
Guztira	658.716,81	100,00	756.830,16	100,00	14,89

Iturria: Gerediaga Elkarte, 2018 eta 2024. Siadecok landua.

62. grafikoa.

Azokako diru-sarrereren aurrekontua (eurotan)



Iturria: Gerediaga Elkarte, 2018 eta 2024. Siadecok landua.

63. taula.

Azokako diru-sarrereren aurrekontua eta haren bilakaera (2018-2024).

	2018		2024		Bilakaera %
	Oinarria	%	Oinarria	%	
Dirulaguntzak	329.021,00	49,95	464.500,00	61,37	41,18
Babesleak	130.000,00	19,74	87.000,00	11,50	-33,08
Dirulaguntza eta babesleak	459.021,00	69,69	551.500,00	72,87	20,15
Stand-en alokairua	193.231,56	29,34	194.561,89	25,71	0,69
Publizitatea eta beste batzuk	6.450,00	0,98	9.844,65	1,30	52,63
Gerediagaren ekarpena	-	-	923,62	0,12	-
GUZTIRA	658.702,56	100,00	756.830,16	100,00	14,9

Iturria: Gerediaga Elkarte, 2018 eta 2024. Siadecok landua.


5.2. Bisitarien gastuak

Durangoko Azoka bisitatzeke esperientziaz gain, Azokan bertan egindako gastuari buruz ere galdetu zaie bisitariei: zenbat gastatu duten eta zertan.

Hasteko, Durangoko Azokan zenbateko gastua egitea aurreikusten duten galdetu zaie. Bisitarien % 45,5ek adierazi du Durangoko Azokako produktuak erosten 40 eurotik beherako gastua egiteko asmoa duela –% 9,6k ez du dirurik uzteko asmorik–. % 42,8k 40 eta 100 euro arteko gastua egiteko prest dago. Eta oso gutxi dira hortik aurrera gastatzeko asmoa dutenak: % 8,7k 200 euro arte, eta % 1,2k 200 eurotik gora.

63. grafikoa.

Azokan gastatzeko aurreikuspena (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

Gizonezkoen erdiak 40 eurotik gorako gastua egiteko asmoa adierazi du (% 51,9), eta emakumezkoen artean ia erdia da 40 eta 100 euro arteko erosketak egiteko prest dagoena (% 47,3).

Hala ere, erabaki horretan adinak, eta beraz, erosahalmenak gehiago eragiten du. Adinean behera egin ahala 40 euro baino gutxiago gastatzeko asmoa dutenen proportzioa nabarmen altuagoa da (25 urtetik beherakoen bi heren, % 66,5). Eta aldiz, adinean gora egin ahala gehiago dira 40 eta 100 euro artean gastatzeko prest daudenak (55 urtetik beherakoen erdia, % 51,2). Tarteko adinekoen artean 100 euro baino gehiago utziko lituzketenen pisua handiagoa da (46-55 urtekoen % 17,5 eta 36-45 urtekoen % 14,1).

64. taula.

Durangoko Azokan gastatzeko aurreikuspena, bisitariaren generoaren eta adinaren arabera (%)


	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
0 €	8,6	10,9	16,1	12,0	7,6	4,8	5,6	9,6
20 € baino gutxiago	9,3	16,0	19,4	11,9	10,7	7,5	9,9	12,1
20-40 € artean	22,2	25,0	31,0	30,1	20,7	16,5	17,8	23,8
40-60 € artean	24,1	16,2	17,2	23,7	18,2	18,2	27,9	20,6
60-80 € artean	14,1	11,5	7,5	14,4	17,7	10,6	12,9	12,9
80-100 € artean	9,1	9,5	3,4	4,0	10,4	20,3	10,4	9,3
100-120 € artean	4,5	2,3	1,4	1,8	5,4	5,8	3,4	3,5
120-140 € artean	2,5	2,0	0,3	0,7	3,3	4,8	2,5	2,2
140-160 € artean	0,8	1,7	0,6	0,7	0,7	1,0	3,9	1,2
160-180 € artean	1,0	1,1	0,3	0,0	2,6	1,0	0,9	1,0
180-200 € artean	0,3	1,6	0,0	0,7	0,0	3,9	0,0	0,8
200-250 € artean	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,3	0,2
250 € baino gehiago	1,2	0,7	0,0	0,0	2,1	1,0	2,2	1,0
Ed/Ee	2,0	1,6	2,9	0,0	0,7	4,8	1,3	1,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

2024ko azokan erosle bakoitzak, batez beste, 55,19ko gastua egin du: 30,74 euro liburuak erosteko, 13,39 euro diskotan, eta 5,45 euro, merchandisingeko produktutan. Gainontzeko produktutara bideratutako kopuruak txikiagoak dira: 1,95 euro papertegiko produktutara, 1,85 euro jolasetara, 1,08 euro gidak, katalogoak edo mapak erostera, 0,32 euro aldizkari edota egunkaritan, 0,10 euro ikasmaterialetan, 0,06 € ikus-entzunezkoetan eta 0,26 euro bestelako produktuetan.

64. grafikoa.

Produktu-mota bakoitzean zenbat gastatu duten azokako erosleek batez beste (€/pertsonako)



Iturria: Siadeco, 2024.

Kopuru horiek generoaren eta adinaren arabera aztertuta, badira aldeak:

- Azokan, orokorrean, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erosi dute: batez beste 57,86 euro gastatu dituzte emakumezkoek pertsonako, gizonezkoek baino ia 6 euro gehiago (batez beste 51,97 euro pertsonako).

Eta gauza bera gertatzen da produktuz produktu; alde nabarmenenak, baina, hiru produktutan daude: merchandisingera ia 2 euro gehiago bideratu dituzte emakumezkoek batez beste (6,14 euro eta 4,43 euro); papertegiko produktuetara euro eta erdi pasatxo gehiago (2,63 euro eta 1,04 euro), eta liburutara 1,34 euro gehiago (31,49 euro pertsonako emakumezkoek eta 30,15 euro gizonezkoek).

- Adinaren arabera, diferentzia handia dago 35 urtetik beherakoek eta hortik gorakoek egiten duten gastuan; hain zuzen, 25 urtez azpikoek egiten dute batez besteko gasturik baxuena Azokaren barruan, 34,57 euro pertsonako, eta 46 eta 55 urte artekoek, berriz, altuena, 68,73 euro pertsonako (34 euroko aldea dago).

Adinean gora egin ahala bisitariek gehiago gastatzen dute liburutun eta papertegiko produktutan. Bestela, nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoek batez beste gehiago bideratzen dutela merchandising produktuetan (7,40 euro pertsonako); 46 eta 55 urtekoek diskoetara (17,59 euro pertsonako) eta merchandisingera, baita ere (8,24 euro pertsonako); eta 36 eta 45 urte artean dituztenek, aldiz, jolasetara (4,19 euro) eta gidak, katalogoak eta horrelakoak erostera (3,31 euro pertsonako).

65. taula.


Produktu-mota bakoitzean zenbat gastatu duten bisitariek batez beste, generoaren eta adinaren arabera (€/pertsonako)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizonezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Liburuak	31,49	30,15	13,70	24,01	36,44	37,87	47,12	30,74
Diskoak (CD, binilo)	13,60	13,14	10,07	13,32	14,22	17,59	11,83	13,39
Merchandisinga: kamisetak, poltsak, biserak	6,14	4,43	7,40	4,54	4,90	8,24	1,59	5,45
Papertegia (agendak, egutegiak)	2,63	1,04	0,76	1,08	2,62	2,73	2,88	1,95
Jolasak (mahai-jokoak, puzzleak, panpinak)	1,89	1,86	0,87	0,94	4,19	1,79	0,63	1,85
Gidak, katalogoak, mapak, etab	1,20	0,94	0,35	0,23	3,31	0,00	0,76	1,08
Aldizkari edota egunkariak	0,45	0,14	0,25	0,04	0,26	0,51	0,71	0,32
Ikasmaterialak	0,13	0,04	0,27	0,01	0,00	0,00	0,25	0,10
Ikus-entzunezkoak (filmak, dokumentalak)	0,03	0,04	0,26	0,00	0,00	0,00	0,00	0,06
Besterik	0,31	0,19	0,63	0,37	0,00	0,00	0,31	0,26
Guztira	57,86	51,97	34,57	44,55	65,95	68,73	66,08	55,19

Iturria: Siadeco, 2024

2018ko datuekin alderatuta, generoaren eta adinaren arabera 2018ko datuekiko alde esanguratsuetako batzuk dira, batetik, liburutun 56 urtetik gorakoek 12 euro gehiago gastatu dituztela eta 46-55ekoek 7 euro gehiago. Bestetik, diskotan, gizonezkoek 3,2 euro gutxiago utzi dituztela, baina emakumezkoek 1,3 euro gehiago.

65. grafikoa.
Landakogunean batez beste egindako erosketak eta gastua (2018 eta 2024)



Iturria: Siadeco, 2024.

66. taula.
Landakogunean erosle bakoitzak egindako batez besteko gastua (2018 eta 2024)

	Generoa				Adina										Guztira		Aleak (orokorrean)	
	Emaku- mezkoa		Gizo- nezkoa		16-25 urte		26-35 urte		36-45 urte		46-55 urte		55 urtetik gora					
	2018	2024	2018	2024	2018	2024	2018	2024	2018	2024	2018	2024	2018	2024	2018	2024		
Liburuak	29,87	31,49	29,33	30,15	16,98	13,70	25,03	24,01	39,80	36,44	30,91	37,87	35,04	47,12	29,64	30,74	1,95	1,81
Diskoak	12,35	13,60	16,36	13,14	13,15	10,07	12,12	13,32	18,79	14,22	14,37	17,59	9,13	11,83	14,00	13,39	1,29	0,86
Papertegia	3,11	2,63	1,82	1,04	1,22	0,76	2,68	1,08	2,39	2,62	3,05	2,73	4,14	2,88	2,58	1,95	0,41	0,26
Jolasak	0,85	1,89	1,35	1,86	0,14	0,87	1,21	0,94	1,71	4,19	0,91	1,79	1,15	0,63	1,05	1,85	0,09	0,11
Ikus-entzunezkoak	0,33	0,03	0,33	0,04	0,10	0,26	0,55		0,49		0,12		0,28		0,33	0,06	0,02	0,00
Ikasmaterialak	0,45	0,13	0,17	0,04	0,08	0,27	0,18	0,01	0,58		0,32	0,00	0,52	0,25	0,34	0,10	0,03	0,01
Gidak, mapak, katalogoak...	0,17	1,20	0,58	0,94	0,00	0,35	0,27	0,23	0,58	3,31	0,39		0,43	0,76	0,34	1,08	0,02	0,04
Aldizkariak/egunkariak	0,29	0,45	0,11	0,14	0,23	0,25	0,36	0,04	0,16	0,26	0,21	0,51	0,08	0,71	0,22	0,32	0,02	0,04
Bestelakoak	1,02	0,31	0,75	0,19	0,35	0,63	0,89	0,37	1,00		1,05		1,42	0,31	0,91	0,26	0,10	0,02
Guztira	48,44	51,73	50,80	47,54	32,25	27,17	43,29	40,01	65,50	61,05	51,33	60,49	52,19	64,49	49,41	49,74	3,93	3,16
Merchandisinga: kamisetak, poltsak, biserak	6,14				4,43		7,40		4,54		4,90		8,24		1,59		0,38	
Orokorrean	48,44	57,86	50,79	51,97	32,25	34,57	43,29	44,55	65,51	65,95	51,33	68,73	52,20	66,08	49,41	55,19	3,93	3,54

Iturria: Siadeco, 2024




Bisitariak 2024ko Durangoko Azokan egindako guztirako gastua kalkulatzeko, 2018ko metodologia bera erabili du Siadecok. Horrela, gastu hori kalkulatzeko, Landakoguneko sarrera-irteeretakotako kontagailuek kontabilizatutako bisitarien kopurua hartu da kontuan, eta bisitari bakoitzeko kalkulaturako gastuarekin biderkatu da, ez erosle bakoitzak batez beste egindako gastuarekin. Bisitari bakoitzeko kalkulaturako gastua, erosle bakoitzeko kalkulaturakoa baino txikiagoa da, arrazoi hauengatik:

- Erosle bakoitzeko gastua zenbatekoa izan den jakiteko, inkesta, 16 urtetik gorakoen artean egin da, baina 16 urtera arteko haur eta gaztetxoak ere kontabilizatuak daude Landakoguneko kontagailuek jasotzen dituzten bisitarien datuetan.
- Azokako erosle askok egindako erosketa, familian edo multzoan egindako erosketa da eta inkestari erantzuterakoan adierazitako gastua ez da propio berarentzat egindako gastua bakarrik —adibidez, gurasoek umeentzat erosketak egitean edo bikotean egindako gastu totala eman denean inkestarako—.

Aurreko bi faktore horien eragina txikitzeko, inkestako bi galderetako informazioa erabili da: inkestatua zenbat lagunekin joan den azokara, eta nor diren horiek (seme-alabak ote diren, bikotea, lagunak, etab.). Estimazio horiek eginda, pertsonako batez besteko gastua 30,70 euro da —2018an, prozedura berbera aplikatuta, 27,22 euro—. Eta pertsonako gastua Landakoguneak abenduaren 5etik 8ra izandako bisitariarekin biderkatuta (68.525 bisitari) lortu dugu bisitariak egindako gastu totala. Biderketa hori egiteko erabilitako bisitari kopurua ere ez da Landakoguneko kontagailuek jasotako zifra bere horretan, pertsona berak sartu-irten bat baino gehiago egin ditzakeelako Landakogunera, eta beraz, pertsona bera behin baino gehiagotan jaso da egon kontagailuaren erregistroan. Kontagailuko zifrak zenbatean murriztu jakiteko, inkesta bidez jasotako datu bat erabili da, hain zuzen ere, pertsona bakoitza batez beste zenbat aldiz sartu eta atera den Landakogunetik.

Aurreko kalkuluak eginda, guztira 2.104.030 euroko gastua egin dute bisitariak 2024ko Durangoko Azokan, 2018an baino % 21,1 gehiago. Gastu orokor horren erdia baino gehiago liburutu egin dute eta ia laurdena diskotan. Hala ere, bi multzo nagusi horien pisuak behera egin du 2018ko datuekiko eta merchandisinga (kamisetak, poltsak, biserak...) indarrez sartu da (% 9,88) —2018an ez zegoen halakoak saltzeko aukerarik—, eta jolasak, gidak eta mapak ere gehiago saldu dira.



Iturria: Siadeco, 2024.

67. taula.
Bisitariek guztira egindako gastua produktuaren arabera (eurotan)


	2018		2024	
	€	%	€	%
Liburuak	1.042.321	60,0	1.171.800	55,69
Diskoak	492.165	28,3	510.282	24,25
Papertegia	90.826	5,2	74.389	3,54
Jolasak	37.093	2,1	70.710	3,36
Ikus-entzunezkoak	11.539	0,7	2.125	0,10
Ikasmaterialak	11.836	0,7	3.709	0,18
Gidak, mapak, katalogoak...	11.886	0,7	41.125	1,95
Aldizkariak/egunkariak	7.577	0,4	12.163	0,58
Bestelakoak	32.042	1,8	9.835	0,47
Guztira	1.737.285	100,0	1.896.138	90,12
Merchandisinga: kamisetak, poltsak, biserak	-	-	207.893	9,88
Orokorrean	1.737.285	100,0	2.104.030	100,00

Iturria: Siadeco, 2024

Azokako gune ezberdinetatik eta egitarautik kanpo, baina Durangon eta Azokaren bueltan, 35,51 euroko gastua egin du bisitari bakoitzak batez beste 2024 urtean: taberna edo kafetegietan 17,35 euro pertsonako, jatetxeetan 10,94, dendetako erosketetan 2,48, beste azoka edo kultur emanaldietan 3,66, lo egiteko ostatuetan 0,99 eta bestelako gastuetan 0,09 euro (garraio gastuak sartu gabe).

Diferentzia esanguratsuak daude adinaren arabera: 26-35 urtekoak dira taberna eta kafetegietan gehien gastatu dutenak (19,49 euro, batez beste) eta 55 urtetik gorakoak jatetxeetan (14,1 euro, batez beste) eta denda edo establezimendu komertzialetan (3,88 euro) gehien gastatu dutenak.

67. grafikoa.
Durangon eta Azokaren bueltan egindako gastua pertsonako (eurotan)



Iturria: Siadeco, 2024.

68. taula.
Durangon eta Azokaren bueltan egindako gastua, generoaren eta adinaren arabera (euro/pertsona).


	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Kafetegi/tabernetan egindako gastua	17,18	17,53	15,27	19,49	16,51	18,39	17,48	17,35
Jatetxeetan egindako gastua	11,50	10,23	4,39	10,09	13,87	13,00	14,19	10,94
Denda/establezimendu komertzialetan egindako gastua (azokaz kanpo)	2,11	2,41	1,79	0,68	3,60	2,73	3,88	2,48
Lo egiteko ostatu, hotel edo landa-etxeetan egindako gastua	0,84	1,24	0,11	2,15	0,14	0,98	2,07	0,99
Beste azoka edo kultur emanaldiren batean egindako gastua	4,14	2,97	2,64	3,80	3,91	3,97	4,17	3,66
Bestelako gastuak (garraioa salbu)	0,11	0,07	0,28	0,15	0,00	0,00	0,00	0,09
Guztirako gastua Durangon eta Azokaren bueltan	35,85	34,47	24,47	36,30	38,02	39,07	41,78	35,51

Iturria: Siadeco, 2024

2018ko datuekiko alderaketari dagokionez, orduan baino 9,21 euro gehiago gastatu dituzte bisitariak, batez beste, Azokaren bueltako ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetan. Kafetegi edo tabernetan hiru euro gehiago, jatetxeetan 2,63 euro gehiago, denda edo establezimendu komertzialetan 1,41 euro gehiago.

68. grafikoa.

Azokaz kanpoko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetan egindako batez besteko gastua pertsonako (2018 eta 2024) (euro/pertsona)



Iturria: Siadeco, 2024.

69. taula.

Azokaz kanpoko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetan egindako batez besteko gastua pertsonako (2018 eta 2024) (euro/pertsona)

	2018			2024
	Plateruena	Durango	Guztira	"Durango eta Azokaren bueltan"
Kafetegi edota tabernetan egindako gastua	1,53	12,82	14,35	17,35
Jatetxeetan egindako gastua	0,08	8,23	8,31	10,94
Denda edo establezimendu komertzialetan egindako gastua (azokaz kanpo)	-	1,07	1,07	2,48
Lo egiteko ostatu, hotel edo landa-etxeetan egindako gastua	-	0,94	0,94	0,99
Beste azoka edo kultur emanaldiren batean egindako gastua	-	1,42	1,42	3,66
Bestelako gastuak	-	0,21	0,21	0,09
Guztira	1,61	24,69	26,3	35,51

Iturria: Siadeco, 2024

2018 urteko datuekiko:

- Erosle bakoitzeko gastua 49,41 €tik 55,19 €ra igo da. Sei urte horietan izandako gastuaren igoera, %11,7koa, EAEko KPlak izandakoaren (% 22,3) erdia da.
- Hala ere bisitariak guztira egindako gastua gehiago igo da, bisitari gehiago izan dituelako 2024ko Azokak. 1.737.285 €ko zifra kalkulatu zen 2018an eta 2.104.030 € 2024an, % 21,1eko igoera.
- 2018an, gizonezkoek (50,49 € erosle bakoitzak) emakumezkoek (48,44 €) baino gastu handiagoa egin zuten; 2024an berriz, emakumezkoek erosketa handiagoak egin dituzte eta generoaren arabera aldea handitu egin da gainera.
- Liburuak erosteko, 29,64 € erabili zituen erosle bakoitzak 2018an eta 30,74 € 2024an; beraz hor ez dago igoera esanguratsurik. Diskoetan 14,00 € 2018an eta 13,39 € 2024an, hor ere ez dago igoerarik. Igoera, batez ere merchandising produktuengatik gertatu da, 2018an batere ez, eta 2024an, 5,45 € pertsonako.


5.3. Eragileen diru-sarrerak

Izaera instituzionaleko erakundeak sartu gabe, Durangoko Azokan standa jarritako 110 eragileri bidali zitzaizen galdetegia, 83k erantzun zuten (% 75,4) , baina horietatik 7k ez zuten galdetegian eskatutako informazio ekonomikoa bidali. 76 eragilek eman dute Durangoko Azokan lortutako diru-sarreraren informazioa. 34 eragileren datu ekonomikoen faltan eta ikusita salmenta bolumenean alde handiak daudela eragile batetik bestera, eragileen salmenta bolumen osoaren estimaziorik ez da egin. Hala ere eragileen azokako diru-sarreraren azterketa bat egin da, tarteak bereizita (10 mila eurotik gora, 5 eta 10 mila euro artean, mila eta 5 mila artean edo mila euro baino gutxiago), jakiteko, eragile gehientsuenek zein diru-sarrera lortu dituzten.

Multzorik handiena 1 eta 5 mila euro arteko diru-sarrerak izan dituzten eragileena da (% 35,5). Bostetik batek (% 21,1) 5 eta 10 mila euro artean, lautik batek (% 25,0), 10 mila eurotik gorako diru-sarrerak izan dituzte. % 18,4k, mila eurotik beherakoak.

69. grafikoa.

Eragileen diru-sarrerak, tartearen arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2024.

Liburuak, diskoak eta merchandising produktuak izan dira eragile gehienek saldu dituzten produktu motak. Informazio ekonomikoa eman duten 76 eragiletatik 49k (% 64k) saldu dituzte liburuak azokan, 38k diskoak (% 50) eta 22k (% 29) merchandising produktuak. Eragileek saldu duten produktu-motaren arabera aztertuz —sarrera totalak, ez produktu horri dagozkionak bakarrik—, liburuak (ere) saldutako eragileen artean, eragile “handienen” eta “txikien” arteko proportzioa nahiko orekatua da; erdia pasatxok (% 53ak) 5 milatik gorako salmentak lortu dituzte eta erdia baino zertxobait gutxiagok (% 47) 5 mila eurora artekoak. Disko eta merchandising produktuen saltzaileetan, berriz, 5 milatik beherako salmenta izandako eragile txikien proportzioa altuago da, % 63 eta % 59, hurrenez hurren. Eta gidak, katalogoak eta mapak, edota ikus-entzunezko materialak ere saldu dituzten eragileen salmentak handiagoak izan dira eta 5 milatik beherako salmentako eragile txikirik ez dago horien artean.

70. grafikoa.

Saldutako produktuak, eragileen diru-sarreraren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

70. taula.

Saldutako produktuak, eragileen diru-sarreraren arabera (%)


	<1 mila euroko diru sarrerak	1-5 mila euro arteko diru sarrerak	5-10 mila euro arteko diru sarrerak	10 mila eurotik gorako diru sarrerak	Guztira	N
Liburuak	16,3	30,6	16,3	36,7	100,0	49
Aldizkari eta egunkariak	16,7	66,7	0,0	16,7	100,0	6
Gidak, katalogoak, mapak, etab.	0,0	0,0	50,0	50,0	100,0	2
Diskoak (CD, binilo...)	18,0	45,0	24,0	13,0	100,0	38
Ikus-entzunezko materiala (filmak, dokumentalak...)	0,0	0,0	67,0	33,0	100,0	3
Jolasak (mahai jokoak, puzzleak, panpinak...)	0,0	50,0	0,0	50,0	100,0	4
Papertegia (egutegiak, bulegoko materiala...)	20,0	0,0	60,0	20,0	100,0	5
Merchandising-a (kamisetak, poltsak, bisera...)	14,0	45,0	27,0	14,0	100,0	22
Besterik	50,0	25,0	0,0	25,0	100,0	4

Iturria: Siadeco, 2024

Gehien saldu duten eragileen artean bi joera antzematen dira. Diru-sarrera handienak (20 mila eurotik gorakoak) izan dituzten eragileen artean, erdiek baino gehiagok adierazi dute Durangoko Azokaren azken hiru edizioetan (2022, 2023 eta 2024) enpresak izandako fakturazioa jaitsi egin dela. Eragile bakarrak adierazi du fakturazioa igo egin dela. Aldiz, 10 eta 20 mila euro arteko diru-sarrerak izan dituzten bederatzi eragileetatik bostek adierazi dute haien fakturazioa igo egin dela.

71. grafikoa.

20 mila eurotik gorako diru-sarrerak izan dituzten 10 eragileek Durangoko Azken hiru edizioetan izandako fakturazioen bilakaera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

71. taula.


20 mila eurotik gorako diru-sarrerak izan dituzten 10 eragileek Durangoko Azken hiru edizioetan izandako fakturazioen bilakaera.

	Kop	%
Jaitsi	6	60,0
Igo	1	10,0
Berdin mantendu	1	10,0
Ed/Ee	2	20,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

72. grafikoa.

10-20 mila euroko diru-sarrerak izan dituzten 9 eragileek Durangoko Azken hiru edizioetan izandako fakturazioen bilakaera (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

72. taula.

10-20 mila euroko diru-sarrerak izan dituzten 9 eragileek Durangoko Azken hiru edizioetan izandako fakturazioen bilakaera.

	Kop	%
Jaitsi	3	33,3
Igo	5	55,6
Berdin mantendu	1	11,1
Ed/Ee	0	0,0
Guztira	9	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



6.

AZOKAREN EKARPENA ETA EUSKAL KULTURAN DUEN GARRANTZIA

6.1. Azokaren zabalpenaren eta babesaren garrantzia: ERAGILEAK


Eragile bakoitzaren komunikazio-ekintzek garrantzia duten moduan, Azokak komunikabideetan duen oihartzunak ere inporta du bertan egosten dena herritarrengana iritsi dadin.

Horren inguruan, hamar eragiletik zortzik (% 80,7) uste du komunikabideek behar adinako garrantzia ematen diotela Durangoko Azokari. % 13,3k adierazi du behar baino gutxiagokoa dela garrantzi hori.

Komunikabideek behar adinako garrantzia ematen diotela uste dutenen pisua are altuagoa da Azokara 16 alditan baino gehiagotan joan direnen artean (% 90,5), sektore modura, elkarteak, hedabidea, hezkuntza edo ikus-entzunezkoa multzoan (% 87,5) kokatzen direnetan, eta enpresa-egiturari dagokionez, elkarte direnen artean (% 90,0). Behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela adierazi dutenena, DAN lehen aldia dutenen artean (% 23,5), liburuaren industrian (% 16,3) eta bestelako egiturak dituztenen artean (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) (% 27,3).

73. grafikoa.

Komunikabideek Durangoko Azokari emandako garrantzia (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

73. taula.

Komunikabideek Durangoko Azokari emandako garrantzia, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Oso gutxi edo batere ez	5,9	0,0	0,0	0,0	0,0	3,1	0,0	4,8	0,0	0,0	0,0	1,2
Behar baino gutxiago	23,5	13	13,6	4,8	16,3	9,4	12,5	19	6,5	10	27,3	13,3
Behar adina	70,6	82,6	77,3	90,5	79,1	81,3	87,5	71,4	87,1	90	63,6	80,7
Behar baino gehiago	0,0	0,0	0,0	4,8	0,0	3,1	0,0	4,8	0,0	0,0	0,0	1,2
Gehiegizkoa, neurrigabea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	0,0	4,3	9,1	0,0	4,7	3,1	0,0	0,0	6,5	0,0	9,1	3,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Komunikabideek Durangoko Azokari behar adinako garrantzia ematen diotela adierazi dute batzuek, eta batez ere, EITBk eskaintzen dion arreta aipatu dute.

Duen garrantziaren araberako garrantzia ematen diotela iruditzen zaigu

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Egunero agertzen da EITBn, eta gainerako hedabide euskaldunek ere egunero lantzen dute. Hedabide erdaldunek egiten duten jarraipena ez dut ezagutzen

[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Erreferentzia izanda, presentzia du telebistetan, egunkarietan...

[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / 6-15 aldiz]

Komunikabideak oso presente daudela uste dugu

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-15 aldiz]

Gizartean pizten duen interesaren neurriko dela iruditzen zaigulako

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Promozio ona jasotzen du

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Garaiko ekitaldi kultural garrantzitsuena delako eta komunikabideetan jarraipen zabala izaten du

[Enpresa / Bizkaia / Musikaren industria / 16-30 aldiz]

Garrantzi handia ematen zaio

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria (diskoetxea, musikaria, promotorea...) / Ikus-entzunezkoen industria 6-15 aldiz]

DA euskal kulturaren hitzordu oso garrantzitsua da eta komunikabideek garrantzia ematen diote nire ustez

[Elkartea /Iparr Euskal Herria / Musikaren industria /Behin]

Porque le prestan atención

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Euskal Kulturarekin lotutako urteko egitasmorik garrantzitsuenetakoa da eta garrantzia ematea eskatzen du. Azken urteetan nabarmen egin du, adibidez, EITBren presentziak eta asko nabari da

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Euskarazko komunikabideen eta gaztelaniazkoen arteko aldea markatu dute batzuek: euskarazkoek askoz ere arreta handiagoa eskaintzen diotela.

Euskarazko komunikabideak ez direnei ez zaielako gehiegi axola, seguruena

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Gaztelaniazko komunikabideek oso garrantzi gutxi ematen diote, euskaraz da eta

[Autonomia / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Behin]

Euskal komunikabideek ikusten dute daukan garrantzia, baina erdal komunikabideentzat mundu paralelo bat da

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 6-15 aldiz]

Orokorrean azoka egunetan komunikabideek ondo erantzuten dute. Faltan botatzen dugu urtean zehar euskarazkoak ez diren komunikabideek euskal kulturari egiten dioten jarraipena. Azokako egunetan egin arren gainontzekoetan apenas egiten dute kasu. Euskarazko komunikabideek (idatzia, telebista, irratia...) oso ondo erantzun dute azokan eta gainontzeko egunetan

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Komunikabideek behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela uste dutenak ere badira.

Porque es la gran fiesta de la cultura en euskera y no creo que se le conceda el grado de importancia que eso tiene

[Autonomia / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Euskal kulturaren eta sortzaileen agerraldi eta elkarteratze garrantzitsu bat delako eta behar duen garrantzia eman behar zaiolako

[Kooperatiba / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / Elkartea / 16-30 aldiz]

Musikaren arloan, batez ere, jaso da komunikabideek talde edo proiektu konkretuengan jartzen dutela arretarik handiena. Handien eta txikien arteko desoreka, dena den, beste diziplinekin lotuta ere jaso da.

Musikaren alorrean behintzat ez da Azokan oinarritzen, talde eta proiektu konkretuetan baino

[Elkartea / Bizkaia / Musikaren industria / Behin]

Le dan mucha importancia, pero no se interesan por nuestro tipo de música, a pesar de ser un destacado punto de interés dentro de la feria

[Autonomia / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Solo promocionan lo que interesa a los medios


[Beste bat / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Ikusgarritasuna eman baino, erakunde publikoek babes ekonomikoa ematen diote Durangoko Azokari, haren aurrekontuetan islatzen den moduan. Eragileen % 38,6k, uste dute erakunde publikoek behar adinako garrantzia ematen diotela DAri. Aldiz, eragileen heren batek (% 32,5) “behar baino gutxiago” erantzun du eta Azokari garrantzia handiagoa ematea nahiko luke. Lautik batek (%24,1) ez dakiela erantzun du berriz.

Behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela uste dutenen pisua altuagoa da Azokan 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 42,9), sektoreari dagokionez, elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 75,0), eta enpresa-egiturari dagokionez, bestelako egiturak dituztenen artean (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) (% 54,5). Behar adinako garrantzia ematen diotenena, berriz, DAN lehen aldia dutenen artean (% 52,9), liburuaren industrian (% 41,9) eta elkarte direnen artean (% 45,0).

74. grafikoa.

Erakunde publikoek Durangoko Azokari emandako garrantzia (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

74. taula.

Erakunde publikoek Durangoko Azokari emandako garrantzia, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Oso gutxi edo batere ez	5,9	4,3	0,0	0,0	2,3	3,1	0,0	9,5	0,0	0,0	0,0	2,4
Behar baino gutxiago	23,5	34,8	27,3	42,9	32,6	21,9	75	23,8	32,3	30	54,5	32,5
Behar adina	52,9	30,4	50	23,8	41,9	37,5	25	42,9	38,7	45	18,2	38,6
Behar baino gehiago	0,0	4,3	0,0	4,8	0,0	6,3	0,0	4,8	0,0	0,0	9,1	2,4
Gehiegizkoa, neurrigabea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	17,6	26,1	22,7	28,6	23,3	31,3	0,0	19,0	29,0	25,0	18,2	24,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Erakunde publikoek Azokari ematen dioten garrantziaren balorazio positiboa egiten dutenek, laguntza ekonomikoa azpimarratu dute, bereziki.

Bertarutzen direlako, dirulaguntzaren bat eskaintzen dute

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Creo que hay un apoyo económico

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Laguntza asko jasotzen dituztelako

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Durangoko Azokari garrantzi handia bai, baina urteko gainerakoei gutxi ematen zaiela aipatu dute batzuek.

Urte osoan zehar ekintzak egin behar dira eta ez lau egunetan dena batera

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / 16-30 aldiz]

Beste ekitaldiei ere eman beharko litzaiekelako

[Beste bat / Gipuzkoa / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Erakunde publikoetatik Azokari behar baino garrantzi gutxiago ematen zaiola uste dutenak ere badaude, eta arrazoi ezberdinak aipatu dituzte: argazkia ateratzera soilik gerturatzek direla, ez zaiela politikoki interesatzen, kultura ez dela errentagarria eta ondorioz beste lehentasun batzuk dituztela...

Erakunde publikoetatik at dagoela dirudi

[Kooperatiba / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / Elkartea / 16-30 aldiz]

Argazkia ateratzeko soilik datozelako

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Gehiago bultzatu beharko lukete

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria / Behin]

Kultura ez delako errentagarria eta, orokorrean, lehentasunak beste batzuk direlako

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkartea / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Eragileek dezenteko protagonismoa har dezaketen heinean, politikoki interesatzen ez delako

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 6-15 aldiz]

Mínima publicidad del evento

[Beste bat / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Publizitate gehiago

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Balortzeko daturik ez dugun arren inpresioa da Durangoko euskal eta disko azoka nazionala izanik erabateko konplizitatea eskatzen duela eta instituzioek ez dutela nahiko genukeen parte hartzerik

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

6.2. Kultur sorkuntza sustatzea: zer eta nola SORTZAILEAK


Kultur sorkuntzaren sustapenerako ere, sortzaileen begiradatik, garrantzitsua da komunikabideek zer nolako zabalpena ematen dioten Azokari eta erakunde publikoek zer nolako garrantzia ematen dioten Azokari.

Illo horretatik, sortzaileen artean ere gutxiengoa da hedabideek Durangoko Azokari behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela uste duena. Sortzaileen erdiek baino gehiagok adierazi dute komunikabideek behar adinako garrantzia ematen diotela DAri (% 55,5). Baina ia hamarretik hiruk diote behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela (% 28,2).

Komunikabideek DAri behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela adierazi dutenen pisua altuagoa da emakumeen artean (% 30,4) eta 35-49 urtekoen artean (% 34,5).

75. grafikoa.

Zer nolako garrantzia ematen dioten komunikabideek Durangoko Azokari (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

75. taula.

Zer nolako garrantzia ematen dioten komunikabideek Durangoko Azokari, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Oso gutxi edo batere ez	0,0	0,0	2,6	2,2	0,0	0,0	2,9	0,0	0,0	0,9
Behar baino gutxiago	30,2	21,4	30,8	30,4	26,8	28,6	26,5	34,6	17,4	28,2
Behar adina	48,8	67,9	53,8	56,5	53,6	57,1	64,7	50	52,2	55,5
Behar baino gehiago	7,0	7,1	2,6	2,2	8,9	0,0	2,9	3,8	13,0	5,5
Gehiegizkoa, neurrigabea	7,0	3,6	0,0	6,5	0,0	14,3	2,9	5,8	0,0	3,6
Ed/Ee	7,0	0,0	10,3	2,2	10,7	0,0	0,0	5,8	17,4	6,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Hedabideek Azokari eskaintzen dioten arretari dagokionez, denetariko iritziak jaso dira: arreta **orekatua dela** uste dutenetatik presentzia **handiagoa beharko lukeela** uste dutenetara.

Neurri egokiko tratamendua ematen zaio

Nere ustez ez da informazio gehiago ezta guttiago behar Azokaren inguruan

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Neurri egokian ikusgarri egiten dute, ez zait gehiegizkoa iruditzen

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Asko azaltzen da telebistan eta komunikabide gehienetan

[Besterik / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Garrantzia handia ematen zaio bertako komunikabideetan, euskal kulturaren pisu handia duen ekintza delako; oreka onean dagoela iruditzen zait

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Presentzia handiagoaren beharra

Presentzia gehiago eduki beharko luke. Adibidez emanaldiak zuzenean eman

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Komunikabideek garrantzi edo eremu handiago bat eskaini beharko lioketela iruditzen zait Durangoko Azokari. Izugarrizko lana egiten dela iruditzen zait eta komunikabide zehatz batzuetan honi bere errekonozimendua ematen bazaio ere, beste batzuetan gehiago landu beharko litzatekeela iruditzen zait

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Kultur topaketa handia da Durangoko Azoka, euskaraz eta euskal sorkuntzari buruz egiten dena, miresmena sortu beharko luke. Miresmen gehiago

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Indar eta energia asko jartzen delako egun hauetan eta askotan, eguraldiaren edo zubiaren menpe ibiltzen da. Hau horrela izanik, komunikabideek ere bere garrantzia eman eta jendearengan duten eragina jakinda, bertaratzea bermatzen saiatu beharko lukete

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]



Nolanahi ere, nahikoa zabaldua dagoen iritzia da **erdal hedabideek behar baino garrantzi gutxiago** eskaintzen diotela Durangoko Azokari.

Erdal hedabideek behar baino gutxiago

Euskal hedabideek behar adina, baina erdal hedabideek behar baino gutxiago (eta urteko euskal kulturari ematen diotena baino gehiago)

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Euskarazkoetan oro har nabarmentzen da azoka, baina erdarazkoetan ez du horrenbesteko oihartzunik

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe / ekoiztetxe / konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Gaztelera ardatz duten komunikabideek nahiko albotik jarraitzen dute

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Erdaraz idatzitako prentsak garrantzi gehiago eman beharko lioke

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe / ekoiztetxe / konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Euskaraz argitaltzen ez duten medioek ez diote behar duen garrantzia ematen

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da]

Gaztelerazko hedabideek oso gutxi hitz egiten dute Azokaren inguruan

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Komunikazio lana oso ondo gauzatzen da. Kontua da hedabide batzuk garrantzia ematen diotela, betikoak, baina agian erronka egongo litzateke komunikabide berrietara zabaltzea, euskal kulturatik urrunago daudenengana heltzeko

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Euskarazko eragile eta komunikabideek bakarrik aipatzen dute nabarmen Azoka.

[Besterik / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]



Zenbait sortzailek azpimarratu du komunikabideek ekitaldiari ematen diotela garrantzia, “ebentoari”: urteroko hitzordu tradizional gisa edo abenduko zubiko plan atsegin gisa. Baina **ez dutela edukian sakontzen**. Edo, gehienez ere, alde kuantitatiboari ematen diotela garrantzia: bisitari-kopuruari, salmenta-kopuruari, etab.

Alde kuantitatiboari edo ebentoari ematen zaio garrantzia, ez hainbeste edukiar

Azokaren salmenta, jende kopurua, salmenta kopurua bezalako kontuei erreparatzen zaielako, eta ez atzean egon daitekeen sormen lan guztiari eta, batez ere, sormen lan horren kalitateari.

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe /ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Agian urteroko gertakizun bezala bai jasotzen du atentzioa. Baina edukiak, eta batez ere izen ospetsu bat atzean ez dutenak, atentzio foku horretatik kanpo gelditzen direlakoan nago

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera /Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Zenbat baino gehiago, nolakoa, nolako garrantzia: ezinbesteko plan gisa

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Beste bi alderdi negatibo nabarmendu dira:

- Euskal kultura **Durango**ko Azokara mugatzen dela iradoki dezakeela komunikabideek ematen duten irudiak.
- Proposamen artistiko batzuei eta besteei ematen zaien tratamenduaren artean desoreka handia dela.

Euskal kultura DAra mugatuko balitz bezala

Ez dute islatzen gure herriko benetako kultur panorama. 4 egunetako standak baizik

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Baina Durangotik kanpoko kultur mugimenduari gutxiegi. Badirudi euskal kultura Durangora mugatzen dela. Durangori ematen dioten arreta gainerako mugimendu eta errealitatei ematea osasungarria litzateke

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe /diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Kultur kontsumoa urtean behineko horretara soilik bideratzeko arriskua sortzen duelako

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera /Argitaletxe /diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Batzuetan beste ezer ez balego bezala, eta beste batzuetan zerbait anekdotiko gisa. Ez delako hain inportantea.

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki /Argitaletxe /diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]


Desoreka proposamen artistiko batzuei eta besteei ematen zaien tratamenduaren artean

Ongi deritzot azokari hedabideek (euskarazkoek behintzat) ematen dioten lekuari. Garrantzia ematen diotela iruditzen zait eta hala behar duela ere bai. Beste eztabaida bat da ea proposamen artistiko guztiei modu orekatuan ematen dioten lekua Durangoko Azokaren garaian.
 [Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Erakunde publikoek Durangoko Azokari emandako garrantziaz galdetuta, behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela uste duten sortzaileen multzoa da handiena (% 41,8). Nolanahi ere, erantzun ez dutenen pisua oso altua da galdera honetan (% 31,8).

Behar baino garrantzi gutxiago ematen diotela adierazi dutenen pisua esanguratsua da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (% 46,2), emakumezkoen artean (% 45,7) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 47,1).

76. grafikoa.
 Zer nolako garrantzia ematen dioten erakunde publikoek Durangoko Azokari (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

76. taula.
 Zer nolako garrantzia ematen dioten erakunde publikoek Durangoko Azokari, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Oso gutxi edo batere ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Behar baino gutxiago	39,5	39,3	46,2	45,7	39,3	42,9	47,1	46,2	26,1	41,8
Behar adina	23,3	14,3	33,3	23,9	25	14,3	23,5	23,1	26,1	24,5
Behar baino gehiago	2,3	3,6	0,0	2,2	1,8	0,0	0,0	0,0	8,7	1,8
Gehiegizkoa, neurrigabea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	34,9	42,9	20,5	28,3	33,9	42,9	29,4	30,8	39,1	31,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Erakunde publikoek Durangoko Azokari ematen dioten garrantziari dagokionez, **kritikoak** dira, oro har, jaso diren iritziak. Azpimarratu behar da, hala ere, jasotako iruzkin gehienek **kultur ekosistemari orokorrean ematen dioten garrantziari** eta laguntzari egiten diotela erreferentzia, ez hainbeste Durangoko Azokari, zehazki. Eremu administratiboen arteko alderaketa egin beharko balitz, **Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan Durangoko Azokari EAEn baino arreta gutxiago** eskaintzen diotela jaso da.

Behar baino laguntza txikiagoa azokari eta kultur ekosistemari oro har

Urteetan zehar artistek azaldu dituzten trabei soluzioak emateko ez dira behar adina prest azaldu (diru-laguntzak, aholkularitza, eta abarretan)

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Errazagoa da lau eguneko azokari garrantzia ematea kultur-sistema iraunkor bat eratzea eta mantentzea baino. Azken hau da behar duguna.

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Erakunde publikoei beti eskatu behar zaie gehiago sortzaileei lagun dezaten

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Urtean zehar ahaztu egiten direlako benetako kultur politika eraginkor bat egin beharrekoak.

Babes ekonomiko gehiago behar luke

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Argazkietan ateratzeko soilik

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe / ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Ez da hainbeste sustatzen

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Behar baino arreta gutxiago Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian

Euskal Herriko azoka nagusia da, baina erakunde askok ez diote behar bezalako arretarik jartzen, bereziki Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe / ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Nafarroako erakunde publikoek, orokorrean, ez diote inolako garrantzirik ematen. Hizkuntza politikarekin lotutako aferak tarteko


[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Durango Azokaz egiten den zabalpenak eta ematen zaion babesak bertan lanak aurkezten dituzten sortzaileen sustapenean eragina duen neurrian, euskal kultur gintzari ere egiten dio ekarpena Azokak berak. Horrekin lotuta, hamar sortzailetik zazpi uste dute Azoka dezente edo erabat baliagarria dela kulturzale/kontsumitzaile sare egonkor bat sortzeko begira (% 42,7k dezente eta % 26,4k erabat). Gutxi erantzun duena kultur ekoizleen % 1,8 baino ez da. Erdizka erantzun duena, aldiz, % 20,9.

Gurutzaketa-aldagaien arabera, erdizka erantzun dutenen pisua nabarmen altuagoa da liburuaren sektorean (% 32,6) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 34,8). Erabat baliagarria dela adierazi dutenen pisua aldiz, azpimarratzeko modukoa da 35 urtetik beherakoen artean (% 38,2).

77. grafikoa.

DAren baliagarritasuna kulturzale/kontsumitzaile sare egonkor bat sortzeko (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

77. taula.

DAren baliagarritasuna kulturzale/kontsumitzaile sare egonkor bat sortzeko, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Batere ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Gutxi	0,0	3,6	2,6	2,2	1,8	0,0	0,0	1,9	4,3	1,8
Erdizka	32,6	10,7	15,4	13	26,8	28,6	20,6	15,4	34,8	20,9
Dezente	37,2	57,1	38,5	52,2	33,9	42,9	38,2	51,9	26,1	42,7
Erabat	25,6	25	28,2	28,3	25	28,6	38,2	19,2	26,1	26,4
Ed/Ee	4,7	3,6	15,4	4,3	12,5	0,0	2,9	11,5	8,7	8,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Horrez gain, eragin edo ekarpen horren inguruan, sortzaileek ikusten dizkioten alderdi positiboak eta alderdi negatiboak azpimarratzeko eskatu zaie kultur ekoizleei. **Alderdi positiboetan** ikusgarritasuna eta arreta erakartzea; topaketarako, elkar ezagutzeko eta saretzeko aukera; eta sortzaileentzako bultzada aipatu dituzte.

Alderdi positiboak:

— Ikusgarritasuna

Euskararen bisibilizazioa

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Sortzailearen ikusgarritasuna bermatzen du, sormen-lana kulturazaleari hurbilduz. Sortzaileen arteko harremanari ere laguntzen dio, urtean behineko elkargunea dela iruditzen zait

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sortzaileen ikusgarritasuna

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe / ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Sortzaileei erakusleio bat eskaintzen zaigu eta hori eskertzekoa da. Agian komunikazioa, ikusgarritasuna etab. gehiago zaindu zitezkeen, aurreko puntuetan adierazi dudan bezala

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Euskal kulturari ematen dion ikusgarritasuna

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Eskaparate egokia da arlo guztietan

[Literatura / Ez bitarra / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Durango azoka erakusleio garrantzitsua eta beharrezkoa da euskal kulturgintzarentzat. Sortzaile askorentzat beren lanak ezagutzera emateko aukera bakarrenetakoa da

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

— Euskal kultura erdigunera ekartzea eta arreta erakartzea

Euskara kultura erdigunean jartzen du

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Euskal kulturaz hitz egiten dela, eta hori irla da urtean zehar

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Behintzat egun batzuetan euskal kultura nagusitzen da komunikabide eta sareetan. Lagun zaharrak berriz ikusteko ere

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan]



Momentuan atentzioa bertan zentratzen da eta jende asko erakartzen du. Jai giroan sortzen da eta jarrera positiboa sortu euskal kulturagintzaren inguruan

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Euskal kultura erdigunean jartzen duen jardunaldia da. Gainera, antolatze modua egokia dela uste dut, artisten parte-hartzea zein kontsumitzaileen parte-hartzea sustatu egiten da

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

— Topaketa eta elkar ezagutza

Urtean behin sortzaile-bitartekari-kulturzaileen arteko bilkura-topaketak lagungarriak dira elkar ezagutzeko eta elkar berotzeko

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Euskal kultura batzen du bere orokortasunean

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Euskaldunek eta euskaltzaileek euskaraz sortutako kulturaren inguruan aisiari lotuta topo egin eta euskarazko kulturaren bizitasuna sentitzeko aukera ematen du

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Ikusgarritasuna eta topagunea

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Topalekua eta ikusgarritasuna

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Gure arteko topaketa

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz]

Sortzaileak eta kontsumitzaileak hurbilarazten ditu elkarrengana

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Elkargune positibo eta zabala sortzen du

Hiriguneetatik at dago

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



— Sareak eta konexioak

Permite la creación de redes entre productores creadores y consumidores en lengua vasca

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz]

Sortzaile eta artistak haien kontsumidore eta fanekin konektatzen ditu, aurrez aurreko konexio hori oso garrantzitsua da

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Aukera ezberdinak topatu daitezke, eta hori ona da jendeak artista berriak deskubritzeko.

Sortzaileak elkartzeko lekua da, hortxe ere konexioak areagotzen dira

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

— Bultzada

Euskal kulturgintzarako izugarrizko bultzada da eta beharrezkoa da

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Positiboa euskal kulturari (literatura eta musika, gehienbat) ematen dion bultzada paregabea.

Urteko topaleku funtzioa beharrezkoa da, hori ondo betetzen du, eta urtero zabaltzen ari den "jaialdi" izaera ere bikaina da.

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]



Alderdi negatiboei dagokienez, ondorengoak jaso dira: handien eta txikien arteko desoreka areagotu edo nabarmendu egiten duela; ekimen masifikatua dela eta espazioa txiki geratu dela; eredu kontsumista eta kapitalista sustatzen duela; gehiegizko kontzentrazioaren kalteak — zenbait sortzailek ikusgarritasuna lortzeko zailtasuna, euskal kulturgintzaren egoeraren irudi desitxuratua ematea edo DAk bereganatzen duen arretari urtean zehar eusteko zailtasuna—.

Alderdi negatiboak:

— Handien eta txikien arteko desoreka

Kultur eragile guztiak batera egoteak txikiei ez die asko laguntzen, salmenta guztiak alde batera amiltzen dira. Ez dakit nola baina oreka bat bilatu beharko litzake indar asko dutenen artean eta ez dutenen artean. Batzuentzat oso erreza da Durangon saltzea, duten infrastrukturengatik, aurrekontuagatik eta beraiek eramaten dute % handiena. Saltzea zaila denarentzat aukera gutxi geratzen dira zeren jendeak buruan erosketa kopuru bat du eta ez da fijasen eta arriskatzeko gauza ezberdinak erosten

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Sortzaile txiki eta handien arteko desoreka sortzen du

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Negatiboa artista handiek kontzentratzen dituztela salmenta kopuruak, jakin gabe baino esan nuke %90ean

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Talde txiki eta handien arteko aldea areagotzea

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Azokaren alderdi negatibo bezala esango nuke argitaletxe haundiei begirako azoka dela, eta naiz eta aurkezpenak egiteko aukera eduki, sortzaile edo ekoizle txikientzat azokan postua jartzea ez da ekonomikoki bideragarria

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Aukera paralisia, sortzaile handiek erakar-indar handiagoa dute (normala da) proposamen txikiagoak itzaletan geratzen dira zenbaitetan

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sortzaile txiki/ez-hegemonikoak hegemonikoen itzaletan geratzen dira

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

-Argitaletxe eta ekoizle handiek, txikiek eta elkarteek bezainbeste ordaintzen dute standa

-Distribuzio sarean jada sartuta dauden presentzia handiegia da

-Euskarazko autoekoizle, elkarte eta sortzaile txikientzat lekua falta da

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

— Masifikazioa

Kontsumismoa. Pilaketa. Masifikazioa. Sormen piezek beraien tokia ez izatea

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Beteta egoten dela askotan eta zoramen bat izaten dela lasai ikustea guztia

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da]

DurangonJende eta material pilaketa gehiegizkoa

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Kontzentrazioa eta masifikazioa

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Jende andana

[Besterik / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera /Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Askotan jende gehiagi izaten dela eta ezin dela lasai ibili. Espazio gehiago beharko litzateke, agian, lasaia ibiltzeko eta ikusteko

[Literatura / Ez bitarra / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

— Espazioa txiki geratu izana

Espazioa batzuetan txiki geratzen dela iruditzen zait. Saguanbara eta Kabia ezagutu ditut gehien eta azken urteetan batez ere, jendetza gerturatu da eta espazio falta nabaritu da

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz]

— Eredut kontsumista eta kapitalista

Saltzeko aukera oso ona denez sortzaile askok beraien lanaren edukia eta argitaratzeko era moldatzen dute euskal kulturaren merkantilizazioa areagotzen (era negatiboan) eta neurrigabeko kontsumoa areagotzen

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Kapitalismoaren logikaren baitan

Kulturaren kontsumoa

Gabonekin harremantzen dugu

Mainstream-aren logika

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Ikuspegi komertzialak kontsumo masiboko kultura bultzatzen du eta urteko gainerako egunetan Azokatik kanpo ezer ez dagoela sentiaraz dezake.

Errituala bihurtzen da askorentzat, harago ez doana

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

"Sold out" kulturaren islada. Hau orokorrean gertatzen ari da, agian hortik urruntzea ariketa polita litzateke. Zaila dudarik gabe.

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]



— Gehiegizko kontzentrazioa

Gehiegi kontzentratzen duela kontsumoa egun eta toki zehatz batean

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Abenduan kontzentratzea indarrak eta interesgarria izango zen urte osora begira zabaltzea. Badakigu horretan ari zaretela, eta bide horretatik jarraitzea ondo dagoela iruditzen zait

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Urtean zehar ematen diren kultur jardunaldiak haren itzaletan geratzen dira (jendeak pentsatzen du urtean behin azokan dirutza gastatuta egiten diola behar besteko ekarpena euskal kultur sorkuntzari)

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Badirudi euskal kulturaren bihotz punpatzaile bakarra dela, eta Durangoren nagusitasunak (bestelako azoka, elkargune eta abarren aldean), bihotz gehiagoko kultur-sistema bati itzal egin diezaioke. Durangora joaten den zenbait jendek urte osoan horixe du euskal kulturarekin kontaktu bakarra, liburu-denden sarea, azoka txikiak, antolatzaile txikiak... indartzea denontzat osasungarria izango litzatekeela uste dut

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

— Irudi desitxuratua eman lezake euskal kulturaren osasun-egoerari buruz

Agian ez da euskal kulturgintzaren egoeraren adierazlerik egokiena, urtean zehar kulturgintzaren baldintzei dagokienez bestelako gabeziak daudela ikusten dugulako

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Urteroko zubi horren zaratak ezkuta dezake benetako gabezia: euskarazko kulturaren sistema sendo eta iraunkorra

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut >5 aldiz Durangon]

— Momentuko arreta mantentzeko zailtasuna

Momentuko atentzio hori urtean zehar ez da mantentzen euskal kulturgintzaren inguruan

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

— Ikus-entzunezkoentzako espazio-falta

Ikus entzunezkoentzat ez dago espazio handirik. Egon behar luke.

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut 2-5 alditan Durangon]


Sortzailea ala bisitaria, Durangoko Azokak bietako zein kolektibo lehenesten duen galdetu zaie sortzaileei. 0tik 10erako eskala batean (0 sortzailea guztiz eta 10 bisitaria guztiz izanik), batez bestekoa 5,53koa izan da.

Gehienak erdian kokatu dira, % 61,8k adierazi du sortzailea eta bisitaria neurri beretsuan lehenesten duela Azokak (4 eta 6 artean). % 21,8k, aldiz, bisitaria gehiago lehenesten duela uste du (7 eta 10 artean)—% 20k bisitaria gehiago eta % 1,8k bisitaria guztiz—.

Gurutzaketa-aldagai nagusien arabera, batezbestekorik altuenak jaso dira —bisitariak neurri handiagoan lehenesten direla adierazten dutenak— liburuaren sektorean (5,68), emakumezkoen artean (5,72), 50 urte edo gehiagokoen artean (5,77).

78. grafikoa.


Zer lehenesten duen Azokak: sortzailea ala bisitaria (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

79. grafikoa.

0tik 10erako eskalan, zer lehenesten duen Azokak: sortzailea ala bisitaria, gurutzaketa-aldagaien arabera (0=sortzailea guztiz eta 10=bisitaria guztiz izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

78. taula.

Zer lehenesten duen Azokak: sortzailea ala bisitaria, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera- tura	Musika	Besterik	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Sortzailea guztiz (0-1)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Sortzailea gehiago (2-3)	2,3	14,3	7,7	4,3	7,1	28,6	8,8	7,7	4,3	7,3
Sortzailea eta bisitaria neurri beretsuan (4-6)	67,4	57,1	59	58,7	64,3	57,1	52,9	65,4	65,2	61,8
Bisitaria gehiago (7-8)	23,3	17,9	17,9	30,4	12,5	14,3	26,5	15,4	21,7	20,0
Bisitaria guztiz (9-10)	2,3	3,6	0,0	0,0	3,6	0,0	0,0	1,9	4,3	1,8
Ed/Ee	4,7	7,1	15,4	6,5	12,5	0,0	11,8	9,6	4,3	9,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez bestekoa	5,68	5,38	5,45	5,72	5,47	4,86	5,6	5,38	5,77	5,53

Iturria: Siadeco, 2024


Eta sortzailea ala bisitaria, Durangoko Azokak bietako zein kolektibo lehenetsi beharko lukeen ere galdetu zaie —zein lehenesten duen aztertzen zuen aurreko galderak—. Orik 10erako eskala batean (0 sortzailea guztiz eta 10 bisitaria guztiz izanik), batez bestekoa 4,94koa izan da.

Gehien gehienak erdian kokatu dira, orekaren edo sortzailea eta bisitaria neurri berean lehenestearen alde (% 77,3). Sortzailearen aldera gehiago lerratu beharko lukeela adierazi dutenen pisua handixeagoa da, baina diferentzia oso txikia da.

Gurutzaketa-aldagai nagusien arabera, batezbestekorik baxuenak jaso dira —sortzaileak neurri handiagoan lehenetsi beharko lituzkeela adierazten dutenak— bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala etab.) (4,65) eta 35-49 urtekoen artean (4,71).

80. grafikoa.

Zer lehenetsi beharko lukeen Azokak: sortzailea ala bisitaria (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

81. grafikoa.

Orik 10erako eskalan, zer lehenetsi beharko lukeen Azokak: sortzailea ala bisitaria, gurutzaketa-aldagaien arabera (0= bisitaria guztiz eta 10=sortzailea guztiz izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

79. taula.

Zer lehenetsi beharko lukeen Azokak: sortailea ala bisitaria, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Sortzailea guztiz (0-1)	2,3	3,6	0,0	2,2	1,8	0,0	2,9	1,9	0,0	1,8
Sortzailea gehiago (2-3)	4,7	3,6	15,4	4,3	10,7	14,3	5,9	13,5	0,0	8,2
Sortzailea eta bisitaria neurri beretsuan (4-6)	76,7	82,1	74,4	80,4	73,2	85,7	79,4	71,2	87,0	77,3
Bisitaria gehiago (7-8)	11,6	7,1	5,1	10,9	7,1	0,0	8,8	7,7	8,7	8,2
Bisitaria guztiz (9-10)	2,3	0,0	0,0	0,0	1,8	0,0	0,0	0,0	4,3	0,9
Ed/Ee	2,3	3,6	5,1	2,2	5,4	0,0	2,9	5,8	0,0	3,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Batez bestekoa	5,21	4,93	4,65	5,11	4,85	4,57	4,97	4,71	5,39	4,94

Iturria: Siadeco, 2024

Gai honen inguruko galdera irekietan, sortaileak eta bisitariak elkarri lotuta daudela jaso da, neurri handi batean. Elkarren beharra dutela, hartu-emanen oinarritzen baita kultura. Horregatik, Durangoko Azokak biak zaindu beharko lituzkeela. Bi ikuspegiaren artean alde egin dute sortaile gehienek.

Sortzailea eta bisitaria elkarri lotuta, elkarren beharra

Berez, sortailea eta bisitaria elkar lotuta dauden elementuak dira

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut >5 aldiz Durangon]

Kultura bien arteko armonian sortzen da. Bi atalak zaindu behar dira

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Biek dute elkarren beharra

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Kultura hartu-emana da, hortaz neurri berean lehenetsi beharko luke sortailea eta bisitaria

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Biak dira ezinbestekoak

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Biak zaindu behar ditugu

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Bata ez dago bestea gabe

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]



Rol guztiak beharrezkoak dira, bata bestea barik ez da ezer

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sortzaile barik bisitaririk ez, bisitari barik azokarik ez. Oreka behar da, elkar zaindu

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Kulturgileen lanaren erakusleio izateaz gain, zaleek sortzaile hauekin eta beste zale batzuekin harremana sortzeko tokia dela iruditzen zait, lanak ezagutu eta erosteko aukeraz gain, beraz, nire ustez, bisitari zein sortzaileek pareko garrantzia izan beharko lukete

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Aski orekatua iruditzen zait Azokak batzuei eta besteei ematen dien tokia. Areago gune-osagarriak (Ahotsenea...) berean hartuz

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Iritzi kritikoak ere badaude, hala ere. Alde batetik, **sortzaileak gehiago zaindu** beharra aldarrikatzen dutenenak: sortzaile-mota ezberdinak aintzat hartuz, tarte ugariagoak eta kualitatiboki aberatsagoak eskainiz, programazioa hobeto komunikatuz hartzaile potentzialengana iristeko... Bestetik, Durangoko Azokaren **masifikazioa** eta hainbat bisitariaren **arinkeria eta azalkeria** deitoratu dituztenak ere badaude.

Sortzaileak gehiago zaindu beharra

Bisitariak beti egongo dira nire ustez, baina sortzaileak zaindu behar dira urtero hor egon daitezen, lan izugarria da Azokarako dena prestatzea.

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Publikoa ere egiten da, eraikitzen da. Beraz, uste dut sortzailei ahots pixkat gehiago eman behar zaie eta publikoa beraien proposamenengana bideratu, hurbildu.

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Bisitariak edozer bisitatuko luke. Sortzaileak jartzen du gaitasun eta kalitatearen neurria azokari

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Baina "sortzaile" kategoria ezin da kategori bakar gisa hartu: sortzaile mediatikoa dago, sortzaile-artisaua, modako sortzailea, sarean agertzen dena, ezkutuan dabilena... Bisitariaren kasuan ere antzera gertatzen da: bisitari-turista dago, kultur-eragilea, modan egon nahi duena, plana nahi duena, saltsan egon nahi duena...

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]



Sortzaileentzako tarteak ugariagoak eta askotarikoagoak izan beharko lirateke, aurkezpenak lasaigoak eta ez horren katean; megafoniatik abisatu beharko litzateke, lehen bezala, non eta noiz dauden sinatzen egileak, irakurraldiak eta errezitalak bezalako jarduera gehiago programatu beharko lirateke

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Orekatuagoa izan beharko luke eta, batez ere, oro har hartueman kualitatiboagoa bultzatu, aurrez-aurrekoak eskaintzen duen konektatzeko aukerari begirakoa eta ez hainbeste ahalik eta gehien ikusi eta saldu/erostea bilatzen duena

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Masifikazioa eta arinkeria

Masifikatuegia dago. Kultura sormena kapitalizatu eta produktu soiletan bihurtzen du. Fast food moduko bat. Azkar erosi/azkar ahaztu

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Moralki, kantitateari garrantzi gehiago ematen zaionez halakoetan, kalitateari baino, nahigabea sortzen dit. Bisitari askoren azalderiak ere nahigabetzen nau (dela ikusten duzulako euskara eta euskarazko kultura oso bigarren mailan daukatela, dela kalitate ez bereziki handiko masa-produktuei ematen dietelako garrantzi handiagoa, kalitatezko kultur ekoizpen askori baino)

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]


Durango Azokak euskal kultur gintzari egiten dion ekarpenari lotuta, Azokari buruzko hainbat baieztapenen inguruan zenbateraino dauden ados galdetu zaie sortzaileei. 0tik 10erako eskala baten bidez baloratu dituzte, 0 oso desados eta 10 erabat ados izanik. Ondorengo bi ideia positiboek jaso dute adostasun-mailarik handiena:

- Durango Azokak ikusgarritasuna ematen dio euskal kultur gintzari (onerako): 8,66ko batezbestekoa. Altuagoa da emakumezkoen artean (8,98) eta 35 urtetik beherakoen artean (9,12).
- Durango Azokak euskarazko kultur sorkuntza lehenesten du: 8,66ko batezbestekoa. Bereziki altua da musikan (9,12) eta 35 urtetik beherakoen artean (8,94).

Idea negatiboen artean, adostasun-mailarik handiena jaso duena ondorengo da: DAK kultur ekoizle handien eta txikien arteko desoreka areagotzen du. Batezbesteko hori altuagoa da liburuaren industrian (5,86) 35-49 urte artekoen (5,86) eta 50etik gorakoen artean (6,10).

82. grafikoa.

Otik 10erako eskalan, DAri buruzko baieztapenekiko adostasun-maila (sortzaileak) (0=oso desados eta 10=erabat ados izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

80. taula.

Otik 10erako eskalan, DAri buruzko baieztapenekiko adostasun-maila, gurutzaketa aldagaien arabera (0=oso desados eta 10=erabat ados izanik) (batez bestekoa).

	Zure sormen-lana, zein diziplinearekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Durango Azokak ikusgarritasuna ematen dio euskal kulturgintzari (onerako)	8,69	8,46	8,78	8,98	8,4	8,86	9,12	8,43	8,52	8,66
Durango Azokak ikusgarritasuna ematen dio euskal kulturgintzari (txarrerako)	1,54	1,69	2,06	1,83	1,79	1,14	1,73	1,89	1,52	1,76
Durango Azokak kultur ekoizle txikien ikusgarritasuna bermatzen du	4,77	5,41	6,3	5,65	5,29	5,43	6,33	4,84	5,32	5,45
Durango Azokak kultur ekoizle handien eta txikien arteko desoreka areagotzen du	5,86	5,58	5,29	5,32	5,71	5,86	4,8	5,86	6,1	5,59
Durango Azokak euskal kulturaren kontsumoa kontzentratzen du (onerako)	5,88	7,11	7,71	7,07	6,58	7	7,63	6,69	5,8	6,82
Durango Azokak euskal kulturaren kontsumoa kontzentratzen du (txarrerako)	4,46	4,31	3,5	3,49	4,66	3,86	3,3	4,23	5,14	4,09
Durango Azokak euskal kulturgintzaren instituzionalizazioa irudikatzen du (onerako)	6,11	5,73	6,09	5,73	6,14	6,5	6,43	5,78	5,89	6,01
Durango Azokak euskal kulturgintzaren instituzionalizazioa irudikatzen du (txarrerako)	4,29	4	4,24	4	4,36	4,33	4,14	4,18	4,42	4,2
Durango Azokak euskarazko kultur sorkuntza lehenesten du	8,31	9,12	8,71	8,82	8,56	8,33	8,94	8,61	8,35	8,66
Batez besteko orokorra	5,55	5,71	5,85	5,65	5,72	5,7	5,82	5,61	5,67	5,7

Iturria: Siadeco, 2024

6.3. Durangoko Azokaren balio inmateriala BISITARIAK

Kultur produktuak erosteaz harago, bisitariei eskatu zaie Durangoko Azokak egiten duen ekarpenari buruz haien adostasun-maila adierazi dezaten. Hau da, balio inmaterialari lotutako baieztapen batzuen aurrean non kokatzen diren 0tik 10erako eskala batean.

Ariketa horren emaitza gisa, adostasun-mailarik handiena bi baieztapenek jaso dute: Azoka garrantzitsua da euskal kulturako sortzaileentzako (9,32) eta euskarazko kultur produktuen kontsumoa sustatzen du (9,22).


Beste aldean, adostasun-maila apalagoa izan dute beste bi hauek: urtean zehar erosiko ditudan liburuak eta diskoak ezagutzeko balio dit (7,47) eta beste liburu-dendatan ez dauden liburuak eta diskoak topatzen ditut (7,09).

Emakumezkoek gizonezkoek baino adostasun-maila handiagoa adierazi dute baieztapen guztietan; batez ere hirutan dago alderik handiena: sortzaile eta lan berriak ezagutzeko aukera ematen du; garrantzitsua da euskal kulturako sortzaileentzako; eta euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzen laguntzen du.

Adinari dagokionez, 46 eta 55 urte artekoek adostasun-maila handiagoa adierazi dute kasu gehienetan; aldiz, 35 urtetik beherakoen adostasun-maila batez bestekoaren azpitik kokatzea ohikoagoa da. Hala ere, adostasun-mailarik baxuena, 7tik beherakoa den bakarra, "DAn beste liburu-dendetan ez dauden liburu eta diskoak topatzen ditut" baieztapenak jaso du 55 urtetik gorakoen artean (6,77).

83. grafikoa.

Otik 10erako eskalan, Durangoko Azokaren balio inmaterialari lotutako baieztapenekiko adostasun-maila, generoaren eta adinaren arabera (0=oso desados eta 10=erabat ados izanik) (batez bestekoa).



Iturria: Siadeco, 2024.

81. taula.

Otik 10erako eskalan Durangoko Azokaren balio inmaterialari lotutako baieztapenekiko adostasun-maila, generoaren eta adinaren arabera (0=oso desados eta 10=erabat ados izanik) (batez bestekoa)

	Generoa		Adina					Guztira	Ranking-a
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora		
DA euskal kulturaren ikur garrantzitsuenetako bat da	8,94	8,74	8,40	8,69	8,99	9,12	9,17	8,85	3
DAk euskal identitatea indartzen du	8,86	8,68	8,55	8,59	8,91	8,99	8,89	8,78	4
DAk euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzen laguntzen du	8,75	8,39	8,51	8,52	8,57	8,77	8,59	8,58	5
DA garrantzitsua da euskal kulturako sortzaileentzako (idazleak, musikariak...)	9,49	9,14	9,26	9,17	9,31	9,60	9,35	9,32	1
DAk euskarazko kultur produktuen kontsumoa sustatzen du	9,30	9,13	9,12	9,13	9,36	9,31	9,16	9,22	2
DAri esker sortzaile eta lan berriak ezagutzen ditut	8,73	8,26	8,34	8,53	8,58	8,58	8,71	8,54	6
DAn beste liburu-dendetan ez dauden liburu eta diskoak topatzen ditut	7,14	7,10	7,12	7,05	7,21	7,19	6,77	7,09	8
DAk urtean zehar erosiko ditudan liburu eta diskoak ezagutzeko balio dit	7,66	7,25	7,20	7,36	7,41	8,00	7,50	7,47	7

Iturria: Siadeco, 2024



7.

EUSKAL KULTURAREN EGOERA: KULTURGINTZA, KONTSUMOA ETA ZALETASUNA

Durangoko Azokari buruzko azterketa sakonaz gain, euskal kulturaren egoeraren argazkia ere eskain dezake ikerketa honek, txosten honetan landutako hiru ikuspegiak uztartuz. Helburu hori du ondorengo atal honek, hain zuzen ere.

Berrito azpimarratu beharko genuke, dena den, 2024ko Durangoko Azokan parte hartu duten eragileez eta sortzaileez ari garela, eta Azoka bisitatu duten herritarrez. Ezinbestean aintzat hartu beharko genuke hori, ondorengo datuen irakurketan.

7.1. Ikuspegi orokor alderatua

Ikuspegi orokor bat hartuko dugu lehenengo, katebegi bakoitzaren araberakoan sakondu aurretik.

Euskal kulturgintzaren egoeraren balorazioak jaso dira, alde batetik. Orik 10erako eskala batean kokatzeko eskatu zaie inkestatuei, 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik, eta bi ikuspuntu ezberdinetatik: kultur ekoizpenaren aldetik, batetik; eta kultur kontsumoaren aldetik, bestetik. Oro har, kultur ekoizpenaren egoera hobeto baloratu dute, kultur kontsumoarena baino. Eta eragileek hobeto baloratu dituzte biak, sortzaileek baino.

SORTZAILEEK: 6,61eko batez besteko puntuazioa eman diote kultur ekoizpenari eta 4,27koa kultur kontsumoari. Gurutzaketa-aldagaien arabera diferentzia handienak ondorengoak dira:

- Kultur ekoizpenaren aldetik: batezbestekoa altuagoa da liburuaren sektorean (6,93) eta emakumezkoen artean (6,88).
- Kultur kontsumoaren aldetik: batez bestekoa bereziki baxua da liburuaren sektorean (3,88), gizonezkoen (4,08) eta genero ez bitarreko (3,67) sortzaileen iritziz, 35-49 urtekoen (4,02) iritziz eta 50 urtetik gorakoen artean (4,05).

84. grafikoa.

Euskal kultur gintzaren gaur egungo egoerari buruz sortzaileen iritzia, kultur ekoizpenaren eta kultur kontsumoaren aldetik (0-10 bitarteko balio eskalaren batez bestekoa, 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik).



Iturria: Siadeco, 2024.

82. taula.

Euskal kultur gintzaren gaur egungo egoerari buruz sortzaileen iritzia, kultur ekoizpenaren eta kultur kontsumoaren aldetik (0 eta 10 bitarteko balioen batez bestekoa, 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik,).


	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>= 50 urte	
Kultur ekoizpenaren aldetik	6,93	6,7	6,12	6,88	6,43	6,14	6,48	6,64	6,71	6,61
Kultur kontsumoaren aldetik	3,88	4,52	4,58	4,64	4,08	3,67	4,85	4,02	4,05	4,27

Iturria: Siadeco, 2024

ERAGILEEK: 7,25eko batez besteko puntuazioa eman diote kultur ekoizpenari eta 5,25koa kultur kontsumoari. Gurutzaketa-aldagaien arabera**ko** diferentzia handienak ondorengoak dira:

- Kultur ekoizpenaren aldetik: balorazio altuenak 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (7,45), liburuaren industrian (7,58) eta elkarte direnen artean (7,50) jaso dira.
- Kultur kontsumoaren aldetik: balorazio baxuenak 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (4,35) eta liburuaren industrian (5,18); egiturari dagokionez, aldiz, bestelako egiturak (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) dituztenen artean (4,70).

85. grafikoa.
Euskal kulturgintzaren egoera orokorrari buruz eragileen balorazioa (0-10 bitarteko balio eskalaren batez bestekoa, 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik).
(batez bestekoa).



Iturria: Siadeco, 2024.

83. taula.
Euskal kulturgintzaren egoera orokorrari buruz eragileen balorazioa(0-10 bitarteko balio eskalaren batez bestekoa, 0 oso txarra eta 10 oso ona izanik).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Kultur ekoizpenaren aldetik	6,73	7,43	7,22	7,45	7,58	7,14	6	7,05	7,33	7,5	7	7,25
N	15	23	18	20	40	28	8	20	30	16	10	76
Kultur kontsumoaren aldetik	6,33	5,39	5,12	4,35	5,18	5,25	5,5	5,8	4,8	5,73	4,7	5,24
N	15	23	17	20	39	28	8	20	30	15	10	75
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83


Iturria: Siadeco, 2024

Kultur kontsumoaren bilakaera zein den ere jaso da, bereiziz kultura orokorrean eta euskal kultura zehazki. Eraitza nagusiak dira gero eta gutxiago kontsumitzen dela adierazi dutenen pisua altuagoa dela euskal kulturarekin lotuta. Eta eragileek sortzaileek baino ikuspegi baikorragoa dutela, kasu honetan ere.

SORTZAILEEK: euskal kultura gero eta gutxiago kontsumitzen dela % 52,7k —kultura orokorrean % 37,3k—. Euskal kultura gero eta gutxiago kontsumitzen dela adierazi dutenen pisua altuagoa da musikako sortzaileetan (% 60,7) eta 35-49 urtekoen artean (% 55,8).

86. grafikoa.

Kulturaren eta euskal kulturaren kontsumoa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

84. taula.

Kulturaren kontsumoa, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Gero eta gehiago	16,3	32,1	17,9	19,6	21,4	28,6	35,3	17,3	8,7	20,9
Berdin	39,5	3,6	28,2	28,3	26,8	14,3	14,7	28,8	39,1	26,4
Gero eta gutxiago	25,6	53,6	38,5	37	35,7	42,9	35,3	40,4	30,4	37,3
Ed/Ee	18,6	10,7	15,4	15,2	16,1	14,3	14,7	13,5	21,7	15,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

85. taula.

Euskal kulturaren kontsumoa, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)


	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Gero eta gehiago	2,3	25	23,1	19,6	12,5	14,3	29,4	11,5	4,3	15,5
Berdin	27,9	3,6	10,3	13	17,9	14,3	8,8	15,4	26,1	15,5
Gero eta gutxiago	48,8	60,7	51,3	52,2	53,6	42,9	47,1	55,8	52,2	52,7
Ed/Ee	20,9	10,7	15,4	15,2	16,1	28,6	14,7	17,3	17,4	16,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

ERAGILEEK: euskal kultura gero eta gutxiago kontsumitzen dela % 36,0k —kultura orokorrean % 20,5k—. Gero eta gutxiago kontsumitzen dela uste dutenen pisua bereziki altua da Azokan 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 71,4), sektoreari dagokionez, elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 75,0) eta enpresa-egiturari dagokionez enpresa direnen artean (% 48,4).

87. grafikoa.

Kulturaren eta euskal kulturaren kontsumoa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

86. taula.

Kultura, orokorrean, gero eta gehiago ala gero eta gutxiago kontsumitzen den, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Gero eta gehiago	47,1	30,4	13,6	4,8	18,6	31,3	12,5	28,6	12,9	35	18,2	22,9
Berdin	23,5	34,8	31,8	57,1	41,9	31,3	37,5	38,1	58,1	15	18,2	37,3
Gero eta gutxiago	11,8	17,4	22,7	28,6	23,3	12,5	37,5	9,5	16,1	25	45,5	20,5
Ed/Ee	17,6	17,4	31,8	9,5	16,3	25	12,5	23,8	12,9	25	18,2	19,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

87. taula.

Euskal kultura, gero eta gehiago ala gero eta gutxiago kontsumitzen den, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Gero eta gehiago	41,2	34,8	13,6	4,8	23,3	25	12,5	38,1	12,9	25	18,2	22,9
Berdin	23,5	21,7	27,3	19	25,6	25	0	23,8	29	15	18,2	22,9
Gero eta gutxiago	11,8	30,4	27,3	71,4	41,9	18,8	75	14,3	48,4	35	45,5	36,1
Ed/Ee	23,5	13	31,8	4,8	9,3	31,3	12,5	23,8	9,7	25	18,2	18,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Durangoko Azokako **BISITARIEI** kulturaren garrantziaz galdetu zaie, ez kontsumoaz. Baina kultura orokorrean eta euskal kultura zehazki bereizteko eskatu zaie, baita ere.

Hamar bisitaritik bederatzik adierazi du kulturak garrantzia handia duela: kulturak orokorrean (% 87,6), eta zertxobait gehiago euskal kulturak (% 90,7). Bi kasutan, garrantzia handiagoa du emakumezkoentzat, gizonezkoentzat baino. Euskal kulturaren kasuan, 46 urtetik gorakoentzat garrantzia handiagoa du.

88. grafikoa.

Kulturak eta euskal kulturak duen garrantzia (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

88. taula.

Durangoko Azokaren bisitarientzat kulturak duen garrantzia, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkkoa	Gizo-nezkkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Handia	90,1	84,2	90,0	84,2	88,1	89,6	85,8	87,6
Nahikoa	7,4	14,2	8,3	13,2	9,9	8,5	11,7	10,3
Ertaina	2,0	1,3	0,9	2,0	2,1	1,9	1,3	1,7
Gutxi	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Batere ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	0,5	0,4	0,7	0,6	0,0	0,0	1,3	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

89. taula.

Durangoko Azokaren bisitarientzat euskal kulturak duen garrantzia, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkkoa	Gizo-nezkkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Handia	92,9	87,5	89,7	88,2	91,9	92,5	91,4	90,7
Nahikoa	6,0	11,5	7,3	10,6	8,1	7,5	7,4	8,3
Ertaina	0,6	0,4	1,9	0,6	0,0	0,0	0,0	0,5
Gutxi	0,0	0,2	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Batere ez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	0,5	0,4	0,7	0,6	0,0	0,0	1,3	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

7.2. Sormen-ikuspegia

SORTZAILEAK


Katebegi bakoitzaren ikuspegian sakontzeak irudi osoago bat eskaintzen digu, ordea. Sortzaile edo kultur ekoizleena da aztertuko dugun lehena.

Gutxiengo bat da profesionalizazio-maila altua duena. Izan ere, kultur ekoizleen ia erdiek adierazi dute sorkuntzari eskaintzen dioten denboraren % 20 baino gutxiago dela ordaindua. Aldiz, % 8,1ek soilik adierazi du sorkuntzari eskaintzen dion denboraren % 80 baino gehiago ordaindua dela.

% 20 baino gutxiago ordaindua dela uste dutenen pisua altuagoa da musikan (% 64,3), emakumezkoen artean (% 54,3) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 64,7).

% 80tik gora ordaindua dela adierazi dutenen pisua, berriz, handiagoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...etab.) (% 12,8), gizonetzkoen artean (% 12,5) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 13,0).

89. grafikoa.
Sorkuntzari eskainitako denboraren zein ehuneko den ordaindua (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

90. taula.
Sorkuntzari eskainitako denboraren zein ehuneko den ordaindua, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)


	Zure sormen-lana, zein diziplinearekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
100%	0,0	3,6	7,7	0,0	7,1	0,0	0,0	1,9	13,0	3,6
%80-%99	2,3	7,1	5,1	4,3	5,4	0,0	0,0	9,6	0,0	4,5
%50-%79	20,9	7,1	17,9	13,0	16,1	28,6	14,7	17,3	13,0	16,4
%20-%49	23,3	3,6	15,4	17,4	12,5	28,6	14,7	17,3	13,0	15,5
%20 baino gutxiago	41,9	64,3	41	54,3	44,6	28,6	64,7	38,5	43,5	47,3
Ed/Ee	11,6	14,3	12,8	10,9	14,3	14,3	5,9	15,4	17,4	12,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Aurreko irudiaren osagarri da ondorengo: kultur ekoizleen urteko diru-sarreraren zein ehuneko dagokion sormen-lanetik eratorritakoari. Erdiek baino gehiagok adierazi dute diru-sarreraren % 20 baino gutxiago dela sormen-lanetik eratorritakoa (% 55,5). Sormen-lanetik eratorritakoa % 80tik gora dela, aldiz, % 19,1ek.

Urteko diru-sarreretan sormen-lanetik eratorritakoa % 20tik behera dela adierazi dutenen pisua esanguratsua da musikan (% 71,4). Urteko diru-sarreretan sormen-lanetik eratorritakoa % 80tik gora dela adierazi dutenena, berriz, bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...etab.) (% 33,3), gizonezkoen artean (% 21,4) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 26).

90. grafikoa.
Urteko diru-sarreraren zein ehuneko dagokion sormen-lanetik eratorritakoari (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

91. taula.
Urteko diru-sarreraren zein ehuneko dagokion sormen-lanetik eratorritakoari, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera-tura	Musika	Besterik	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
100%	9,3	7,1	20,5	10,9	14,3	14,3	2,9	15,4	21,7	12,7
%80-%99	4,7	0,0	12,8	4,3	7,1	14,3	11,8	3,8	4,3	6,4
%50-%79	9,3	10,7	2,6	8,7	5,4	14,3	17,6	3,8	0,0	7,3
%20-%49	2,3	0,0	20,5	10,9	5,4	14,3	8,8	9,6	4,3	8,2
%20 baino gutxiago	65,1	71,4	33,3	56,5	57,1	28,6	55,9	53,8	56,5	55,5
Ed/Ee	9,3	10,7	10,3	8,7	10,7	14,3	2,9	13,5	13,0	10,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko ahalmen ekonomikorik izango al luketen galdetu zaie kultur ekoizleei. Batetik, aurreko puntuan ikusi dugu kultur ekoizleen % 12,7k bakarrik adierazi duela diru-sarreraren % 100 datorkiola sormen lanetik. Horri beste % 3,6 erantsi beharko genioke, hala egiten dutela edo zalantzarik gabe ahal izango luketela adierazi baitute.

Erdiek baino gehiagok diote ezin izango luketela (% 52,8): % 35,5ek zalantzarik gabe ezin izango luketela eta % 17,3k ezetz uste dutela.

Ezezkotan dauden horien pisua altuagoa da musikan (% 71,5), emakumezkoen artean (% 45,7) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 56,5).

91. grafikoa.

Sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko ahalmena, ikuspuntu ekonomikotik (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

92. taula.

Sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko ahalmena, ikuspuntu ekonomikotik, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Bai, hala egiten dut	4,7	0,0	0,0	2,2	1,8	0,0	2,9	0,0	4,3	1,8
Bai, zalantzarik gabe	0,0	0,0	5,1	0,0	3,6	0,0	0,0	3,8	0,0	1,8
Bai, baina zailtasunekin	7,0	7,1	10,3	10,9	5,4	14,3	14,7	5,8	4,3	8,2
Agian bai, baina zailtasun handiekin	11,6	14,3	20,5	10,9	16,1	28,6	14,7	17,3	8,7	15,5
Ezetz uste dut	11,6	28,6	15,4	19,6	17,9	0,0	23,5	19,2	4,3	17,3
Ez, zalantzarik gabe	46,5	42,9	17,9	37,0	33,9	42,9	41,2	26,9	47,8	35,5
Ed/Ee	9,3	0,0	10,3	8,7	7,1	0,0	0,0	11,5	8,7	7,3
Sormen lanetik datorkit %100a	9,3	7,1	20,5	10,9	14,3	14,3	2,9	15,4	21,7	12,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Ekonomikoki ahal izango balute sorkuntzan modu eskusiboan aritu nahi al luketen galdetuta, % 44,5ek baietz erantzun du, zalantzarik gabe. % 31,8k ezetz edo ez daukala argi adierazi du, baina ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuentatik.

Zalantzarik gabe baietz erantzun dutenen pisua esanguratsua da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...etab.) (% 53,8), emakumezkoen artean (% 58,7) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 64,7).

Zalantzan edo ezezkoan daudenena, berriz, musikan (% 46,4), gizonzkoen artean (% 35,7) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 39,1).

92. grafikoa.

Sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko nahia, ikuspuntu ekonomikotik (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

93. taula.

Sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko nahia, ikuspuntu ekonomikotik, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonzkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Bai, zalantzarik gabe	37,2	42,9	53,8	58,7	35,7	28,6	64,7	42,3	21,7	44,5
Ez daukat argi, beste arrazoi batzuentatik	20,9	46,4	12,8	21,7	25	28,6	29,4	21,2	21,7	24,5
Ez, beste arrazoi batzuentatik	16,3	0,0	2,6	0,0	10,7	28,6	2,9	5,8	17,4	7,3
Ed/Ee	16,3	3,6	10,3	8,7	14,3	0,0	0,0	15,4	17,4	10,9
Sormen lanetik datorkit %100a	9,3	7,1	20,5	10,9	14,3	14,3	2,9	15,4	21,7	12,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Azalpenak ere eman dituzte kultur ekoizleek, ekonomikoki ahal izango balute, sorkuntzan modu eskusiboan aritzeko nahiari dagokionez. Alde batetik, sorkuntzaz bizitzearen ideia **desio edo aspirazio** modura bizi dutenak daude. Pauso hori eman ez dutenak edo helburua erdiestera iritsi ez direnak.

Alde txarrei dagokienez, egin beharreko **sakrifizioak, jasan beharreko presioa edo iritziak** aipatu dituzte. Baita ekonomikoki sorkuntzaren mendeko izateak ekar dezakeen **askatasun-galera** ere.

Sorkuntzaz bizitzea desio edo aspirazio modura

Sorkuntza delako nire pasioa eta bokazioa. Eta uste dudalako hor eman dezakedala neure onena

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Idazlea izan nahi dudalako, baina bizitzeko beste lanbide bat behar dut

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Irakasle naizenez nire ametsa (dagoeneko ezinezkoa) lan erdia irakasten eta lan erdia sortzea izango litzateke

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Sorkuntza delako definitzen nauena

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Denok sorkuntzara lan eta bizi denbora zehatzak eskaintzeko aukera bagenu gizartean oso positiboki eragingo genuke. Kultur eta sormen desjabetzeak gizarte sarea suntsitzen du maila anitzetan

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Sorkuntzaz bizitzearen alde txarrak

Egun lehentasuna ematen diot arte jardunari baina horretarako sakrifizio handiak egin ditut eta nire adin inguruko pertsona gehienek bizi-mailatik oso urrun nabil

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Sorkuntzak lan eta inplikazio handiaz gain presio eta aurreiritzi asko hartzen ditu bere barne, askotan ez dena erraza kudeatzeko

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Galdera mamitsua da baina ez dakit zein punturaino den sanao biziraupena sormenaren menpe egotea; behar izate hori arriskutsua izan daitekeela uste dut

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Mentalki oso gogorra da mundu hau, eta bakarlaria izanik lan izugarria dago atzetik, askotan itota sentitzea eragiten nau

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Askatasunaren galera

Eroso nagoelako musika sorkuntza ez delako nire diru sarrera nagusia, askatasuna ematen dit nahi dutena sortzeko edonoiz.

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 aldiz Durangon]

Alde batetik, denbora gehiago dedikatu ahal izango nioke, eta hori, berez, ona da sorkuntzarako. Baina, bestetik, independentzia galduko nuke, ze orduan bai egin beharko nieke kasu gehiago merkatu-irizpideei, nire lanaren kalterako izango litzatekeena ziurrenik.


[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Honako hau galdetu zaie sortzaileei: inguruko herrialdeetako (Espainia, Frantzia, Europa...) kultur ekoizleek sorkuntzatik errazago ateratzen al duten bizibidea. Ia hamarretik sei baiezkotan daude (% 58,2) —% 38,2k baietz uste du eta % 20k zalantzarik ez du—. % 16,4k ezetz uste du, baina altua da, galdera honetan, ez dakitela adierazi dutenen pisua ere (% 25,5).

Baiezkoan dauden pisua altuagoa da musikan (% 71,4), emakumeen artean (% 69,5) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 65,2).

93. grafikoa.

Inguruko herrialdeetako sortzaileek errazago ateratzen al duten bizibidea (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

94. taula.

Inguruko herrialdeetako sortzaileek errazago ateratzen al duten bizibidea, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Bai, zalantzarik gabe	16,3	21,4	23,1	21,7	17,9	14,3	26,5	19,2	8,7	20,0
Baietz uste dut	37,2	50,0	30,8	47,8	35,7	0,0	23,5	40,4	56,5	38,2
Ezetz uste dut	20,9	14,3	12,8	13,0	14,3	57,1	29,4	13,5	4,3	16,4
Ez, zalantzarik gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	25,6	14,3	33,3	17,4	32,1	28,6	20,6	26,9	30,4	25,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Gai honi dagokionez, bi faktore azpimarratu dituzte kultur ekoizleek: **laguntza eta erraztasun** handiagoak dituztela beste inguruko herrialdeetan —Frantzia nabarmendu dute—, batetik. Baina **merkatu zabalagoa** dutela ere bai, bestetik.

Laguntza eta erraztasun handiagoak

Frantziako sistema gurea baino errazagoa da

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Frantzia adibide argia da "intermittence"-a

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Azpiegitura eta errekurso gehiago eskaintzen dizkietelako esaterako Frantzian soldata bat dutelako bermatua

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Harremana dut Europa mailako sortzaile askorekin eta haien bizibidea aurrera ateratzeko aukerak ez dira diruditen bezain errazak. Ez da gutxietsi behar, dena den, Europako herrialde askotan arteak duen irudi ona (gurean ez dena hainbeste landu) eta sortzaile batzuentzat baliagarri diren politikak (intermitentzia, egonaldi ordainduak, areto publikoen erabilerarako erraztasunak, diru-laguntza handiak eta abar)

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Beka eta diru-laguntza gehiago dituzte instituzioen aldetik eta sare egonkorragoa publikoaren aldetik

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 aldiz Durangon]

Merkatu-bolumenaz gain, kultur industria babestuago dagoelako estatuen aldetik

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 aldiz Durangon]

Musikan adibidez, Frantzian estatuak laguntzak ematen dizkie musikariei proiektu berriak abian jartzeagatik, diskoak grabatu, kontzertuak eman, proiektu paraleloak...

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Espainian, sortzaileek bizibidea ateratzeko zailtasun gehiago dituzte, finantzaketa eta kultur politikak ez direlako hain sendoak. Frantzian, ordea, kultur laguntza sendoak sortzaileei bizibidea ateratzen errazten diete. Beste Europako herrialde batzuetan, hala nola Alemanian, finantzaketa publikoak laguntza handia eskaintzen die ere

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Argia da Frantziar Estatuaren kasua

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Kuota bat dutelako artistak izateagatik

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]



Merkatu zabalagoa

Beraien hizkuntzak jende gehiagok ulertzen dituelako

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Kontsumitzaile potentzialak askoz gehiago dira hizkuntza horietan hiztun gehiago daudelako

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Merkatu handiagoa dutelako

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Globalizatuago dagoen merkatu batean mugitzen direlako

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Hartzaileen merkatu handiagoa daukate, eta norbaitzuk sorkuntzatik bizi ahal izatea posibleago ikusten dut. Dena dela, ez dut uste sortzaile txikiak bereziki hobeto biziko direnik

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Publiko zabalagoa eta kultura-dirulaguntza gehiago

[Besterik / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Euskarak Euskal Herrira mugatzen gaituelako, pentsatzen dut. Ingelesak ateak edekitzen ditu gehiago nik uste

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]


Euren hizkuntzak kontsolidazio internazionala duelako

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Beste lurralde eta herrialde batzuetan kultur kontsumoa sustatzeko hobariak eta dirulaguntzak eskaintzen direla kontuan hartuz, diruz laguntzekotan, zer lehenetsiko luketen galdetu zaie sortzaileei: kultur kontsumoa sustatzea ala sorkuntza sustatzea. Hamarretik seik baino gehiagok biak beharrezkoak direla adierazi dute (% 62,7). Kultur kontsumoa sustatzearen alde (% 3,6) egin dutenak baino gehiago dira, ordea, sorkuntza sustatzearen alde egin dutenak (% 21,8).

Sorkuntza sustatzearen alde egin dutenen pisua azpimarratzeko modukoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...etab.) (% 28,2) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 35,3).

94. grafikoa.
Diruz laguntzekotan, kultur kontsumoa ala sorkuntza? (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

95. taula.
Diruz laguntzekotan, kultur kontsumoa ala sorkuntza?, gurtzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera- tura	Musika	Besterik	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Kultur kontsumoa sustatzea	2,3	3,6	5,1	6,5	1,8	0,0	5,9	3,8	0,0	3,6
Sorkuntza sustatzea	16,3	21,4	28,2	21,7	23,2	14,3	35,3	17,3	13,0	21,8
Biak dira beharrezkoak	65,1	71,4	53,8	60,9	60,7	85,7	55,9	61,5	73,9	62,7
Beste neurri batzuk eraginkorragoak dira	9,3	0,0	0,0	4,3	3,6	0,0	0,0	3,8	8,7	3,6
Ed/Ee	7,0	3,6	12,8	6,5	10,7	0,0	2,9	13,5	4,3	8,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Azken puntuetan aztertutako gaien harira, sortzaileen bizi-baldintzak hobetzeko zer egin litekeen eta nork egin beharko lukeen galdetu zaie sortzaileei. Ondorengo planteamenduak egin dituzte: karga burokratikoak arindu; erraztasun fiskalak, gutxieneko soldata eta artisten estatutua; sortzaileen baldintzak hobetu (argitaletxeek); programatzaileak eta kultur teknikariak sentsibilizatu; kontsumitzaileen eta kulturazaleen atxikimendua sustatu.

Karga burokratikoak arindu (administrazioak)

Gai konplexua. Lehenengo erraztasunak eman fakturatu ahal izateko, karga burokratikoak erraztu. Bestalde, ekiteko eta ezagutzera emateko ekitaldiak sortzea. Gai hauek administrazioak egin ditzake

[Musika / Gizonezkoa / <35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Erraztasun administratiboak eman, urterik urte zailtasunak erantsi beharrean

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Estatuak sortzaileentzako programak sortu beharko lituzke, eta euskaraz sortzen duten sortzaileei lehentasuna eman

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Erraztasun fiskalak, gutxieneko soldata, artisten estatutua

Erraztasun fiskalak ere bai. Sortzaile autonomoen euskal eredu bat sor liteke, babes apur bat emango diguna. Adibidez, bajaren bat hartzen duzunean babes minimo bat eskainiz

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Artistaren estatutua inplementatu. Iparraldeko intermitentzia moduko zerbait sortu

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Eusko Jaurlaritzak, adibidez Frantzian egiten duten bezala, sortzailearentzat gutxieneko diru sarrera bat bermatu

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Sortzaileen bizi-baldintzak hobetzeko, gobernuek finantzaketa eta segurtasun soziala indartu beharko lituzkete, hala nola Frantzian egiten den bezala. Kultura elkarteek lan baldintzak hobetzeko lan egin behar dute

[Besterik / Emakumezkoa / <35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Instituzioak, politikariek eta euren politikak, Segurantzia Soziala (autonomoen arauak eta ordainketak),...

[Besterik / Gizonezkoa / <35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



Sortzaileentzako baldintzak hobetu (argitaletxeek)

Argitaletxeek, jasotako laguntzak banatuz eta sortzaileei (berriei batez ere) aukerak emanez

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Argitaletxeek, beren baldintzak hobetuz, ondoren

[Literatura / Gizonezkoa / >50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Programatzaileek, kultur teknikariek

Uste dut lurralde eta herri-mailako politketatik asko egin daitekeela. Era berean iruditzen zait sentsibilizazio lanak handia egin behar dela programatzaile eta kultur teknikari publikoei dagokienez

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Kontsumitzaileek, kultur zaleek

Gainera, gizarteak artearen balioa aitortu eta kontsumoaren aldeko konpromisoa hartu behar du

[Besterik / Emakumezkoa / <35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Gehien bat estatus publikotik heldu beharko luke bultzada hori, baina kontsumitzaileek ere badute ardura

[Literatura / Gizonezkoa / >50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 aldiz Durangon]

Kontsumitzaileok euskara lehenetsi, ez itxurakerian, gure egunerokoan

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Bestalde, gizarteak artearekiko atxikimendu handiagoa izan dezan gauza asko egin daitezkeela iruditzen zait. Artea gutxiesten duen gizarte batean gainerako aldaketak gertatzeari zaila deritzot

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]



Kulturzaletasuna bultzatzeko zer egin beharko litzatekeen galdetuta, orokorrean, **erakunde publikoengan** jarri dute ardura, sortzaile gehienek. Kultur politika publikoak, politika integralak galdegin dituzte, merkatuen logikari hain lotuak egongo ez direnak.

Sortzaileak babestuko dituzten kultur politika publikoak sustatu

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Kultur politika integral bat, euskal kultura balioan jarriko duena

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Kultur politika publikoetan merkatuak (ala eredu kapitalistak) sostengarri egiten ez dituen proiektuak bultzatzea

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Politika alorrean epe luzerako Kultur plangintza bat landu. Merkatuari garrantzi guztia eman gabe gure kultura abiapuntu hartuta gizartea hezitu kulturen eta kulturaz nola bizi

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Hezkuntzari erreferentzia egin diote batzuek, azpimarratuz txikitatik sustatu beharko litzatekeela kulturzaletasuna: ikastetxeetan hitzaldi eta tailerrak eskainiz, kultur jarduerak antolatuz, sormena landuz eta interesa piztuz, azken finean.

Ikastetxeetan euskal kulturaren inguruko hitzaldi eta tailerrak eskaini, musikariok ari garen moduan. Kultura landu, sortzaileak hezi

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Politika kultural sendoak. Hezkuntzan dago gakoa. Kulturari gizartean izan beharko lukeen tokia egin

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Politika publiko eraginkorragoak, tinkoagoak eta, gizarte osoari begira, zabalagoak bultzatu, hezkuntza politiketatik abiatuta

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Haurtzarotik hasiz. Ikastola/eskoletan dantza, musika, KANTUA, literatura, pilota eta bertze bermatuz

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Eskolan, txikitatik hasi eta gastu militarren erdia kulturara dedikatu

[Besterik / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Kulturzaletasuna bultzatzeko, hezkuntzan kultur jarduerak integratu behar dira, gaztetik interesa pizteko; kultura guztiontzat eskuragarri izan dadin, sarbide erraza eta prezio eskuragarriak bermatu behar dira. Era berean, tokiko sortzaileak babestu, komunitateko ekimenak antolatu eta kulturaren balioa azpimarratzen duten kanpainak sustatu behar dira

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



Hezkuntzatik hasi

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Kulturzaletasuna txikitatik landu behar da, benetan erakutsiz balio bat duela eta erabilgarria dela, beharrezkoa baita, eskubide bat. Kulturak hezi egiten du, eta pentsatzen irakatsi, eta hori oso aberasgarria da

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Ikusgarritasunari begiratzen diote beste batzuek: komunikabideen arretari, erakusleio eta plaza gehiago edukitzeari, zabalkundeari, etab.

Hedabideetan presentzia gehiago, EITBn batez ere, eta eskoletan ere bai

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Ikusgarritasuna behar du. Ekintza gehiago egin behar dira, kontzertuak etab.

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Ikusgarritasuna lortzeko lan egin. Inbertsioak, bekek eta sariek isla izan dezatela era argitaratu, modu duin batean

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 aldiz Durangon]

Euskal Herritik kanpora ikusgarritasuna bultzatu

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Auzi sakona da. Ez zait bururatzen neurri eraginkor bakarra... Kultura zaindu behar da gizarte gisa, eta instituzioetatik gehiago zaindu beharko zen. Hor presioa sartu beharko genuke.

Bere tokia eman komunikabideetan, dirulaguntza publikoetan, zabalkundean, ezagutarazteko eskapareak sortuz, euskal telebista berrian,...

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 aldiz Durangon]

Arlo ekonomikoa ere batek baino gehiagok aipatu du. Bi ikuspegitatik: **sortzaileen bizi-baldintzei** lotuta, batetik; eta **kultur produktuen prezioekin** lotuta, bestetik.

Kulturatik bizitzeko diru-baldintza egokiak bermatu

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sortzaileen baldintzak hobetu, kalitate eta munta handiagoko lanak sor ditzagun

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Prezioak merkeago jarri eta gaur egungo sare sozialen bitartez promo hobea egin

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 aldiz Durangon]

Denen eskura jarri, batez ere ekonomikoki


[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Luze eta zabal azaldutako testuinguru horretan, euren sormen-prozesuan hartzailea zenbateraino kontuan hartzen duten galdetu zaie sortzaileei.

Gehiago dira hartzailearen ohiko profilari jaramon handirik egiten ez diotenak. % 48,2k adierazi du ez duela gehiegi kontuan hartzen eta % 10ek batere ez duela kontuan hartzen. % 37,3k dezente edo erabat hartzen duela kontuan —% 30,0k dezente eta % 7,3k erabat—.

Nolanahi ere, alde nabarmena dago gurutzaketa-aldagaien arabera. Gehiegi edo batere kontuan hartzen ez dutenen pisua altuagoa da musikan (% 75) eta gizonezkoen artean (% 66,1). Erabat edo dezente kontuan hartzen dutenena, aldiz, bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala, etab.) (% 53,8) eta emakumezkoen artean (% 47,8).

95. grafikoa.
Hartzailearen ohiko profila kontuan hartzea (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

96. taula.
Hartzailearen ohiko profila kontuan hartzea, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Erabat	7,0	0,0	12,8	8,7	5,4	0,0	11,8	1,9	8,7	7,3
Dezente	23,3	25,0	41,0	39,1	25,0	14,3	26,5	34,6	26,1	30,0
Ez gehiegi	51,2	60,7	35,9	39,1	55,4	57,1	50,0	48,1	47,8	48,2
Batere ez	14,0	14,3	2,6	6,5	10,7	28,6	11,8	5,8	17,4	10,0
Ed/Ee	4,7	0,0	7,7	6,5	3,6	0,0	0,0	9,6	0,0	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Sortzaileak bitan banatzen dira, gai honi dagokionez: **sormen-prozesuan hartzailearen ohiko profila kontuan hartzen dutela diotenak** —askotan publiko jakin bati zuzenduak, hurrei adibidez— eta **hartzailearengan pentsatu gabe** sortzen dutela diotenak.

Kontuan hartzen dutenak

Harekin konektatu nahi dudalako, esan behar ditudanak esateko

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Hartzailearekin konexio bat eragiteko

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Antzezlanak nork ikusiko dituen pentsatuz ere sortzen baititut

[Besterik / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

El lector siempre tiene la razón

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Haiek kontsumituko dutelako

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Nire kasuan publiko gaztea da, eta erantzukizun handia sentitzen dut transmititzen dudanarekin

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Publiko target-a kontutan izan behar delako

[Besterik / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Publiko zehatz batentzat (militante feministentzat) baliagarri izateko liburu bat idaztea izan dudalako helburu

[Literatura / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Irakurleak haurrak dira eta beraien tokian jartzen naiz ilustrazioak sortzerakoan

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Haur literatura idazten dudanean baino ez dut kontuan hartzen hartzailearen profila

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Sortzen dudana guztia niretzat ez bakarrik, entzungo duenarentzat sortzen dudalako ere (adina, musika-generoa...)

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]



Kontuan hartzen ez dutenak

Idatzi nahi dudana idazten dut, hartzaile posibleen ezaugarriek ez dute inoiz aldatzen nire lan egiteko modua, ez diot zentzurik ikusten

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Nahi duguna egiten saiatzen garelako, onerako edo txarrerako ez digu inoiz baldintzatu

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan]

Horrek artista bezala esploratzen eta hazten jarraitzea galaraziko lidakeelako

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan]

Sormenerako askatasuna lehenesten dut

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sortzeko askatasuna behar dut

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Gorputzak eskatzen didana egiten dudalako

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Edozein pertsonarekin komunikatu nahi dut, baina ez edozein preziotan

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Jendearen eske eta espektatibei garrantzia gehiegi emateak autozentsurara edo eske horiek direnak baino x-agoak direla pentsatzera eraman zaitzakeela nabaritu izan dut

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]


Maite duguna egiten dugulako. Nahi dugun bezala. Gustatzen baldin bazaio publikoari, hobe!!

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Gaur egungo bizimoduak eta nagusitzen ari diren kontsumo-ohitura berriek euren sorkuntza-joeran eragina dutela onartzen dute kultur sortzaileek. Eragina gutxienez ertaina dela adierazi dute bi herenek eta % 42,8k oso handia edo nahiko handia dela —% 17,3k oso handia eta % 25,5ek nahiko handia—. % 22,7k eragina nahiko txikia dela edo batere eraginik ez duela —eragina nahiko txikia dela % 13,6k eta batere eraginik ez duela % 9,1ek—.

Eragina handia edo oso handia dela uste dutenen pisua nabarmen altuagoa da bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...) (% 53,9) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 55,9). Eragina nahiko txikia dela edo batere eraginik ez duela adierazi dutenena, berriz, liburuaren sektorean (% 34,9), gizonezkoen artean (% 23,2) eta 50 urtetik gorakoen artean (% 34,8).

96. grafikoa.
Bizi- eta kontsumo-ohituren eragina sorkuntza-joeran (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

97. taula.
Bizi- eta kontsumo-ohituren eragina sorkuntza-joeran, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Litera- tura	Musika	Besterik	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Eragin oso handia	11,6	17,9	23,1	17,4	17,9	14,3	20,6	17,3	13,0	17,3
Eragin nahiko handia	20,9	25	30,8	23,9	23,2	42,9	35,3	21,2	17,4	25,5
Eragin ertaina	23,3	32,1	20,5	28,3	23,2	14,3	20,6	28,8	21,7	24,5
Eragin nahiko txikia	16,3	14,3	10,3	15,2	12,5	14,3	14,7	13,5	13,0	13,6
Batere eraginik ez	18,6	7,1	0,0	4,3	12,5	14,3	2,9	5,8	26,1	9,1
Ed/Ee	9,3	3,6	15,4	10,9	10,7	0,0	5,9	13,5	8,7	10,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



Kontsumo-ohitura berriek —gero eta digitalagoak eta globalagoak—, batez ere, produktuaren edo kultur ekoizpenaren **zabalpenean** eragiten dutela adierazi du zenbait sortzailek.

Kontsumitzeko modu berrietara egokitu beharra. Batez ere, zabalpenari begira

Gu ere adaptatu behar gara kontsumo-ohitura horietara: musika plataforma digitalen bitartez entzutea – formatu berriak eskaintzea / sare sozialen bidez promo egitea...

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sormenak jasotzeko eta “kontsumitzeko” moduak ezberdinak direlako. Digitalak, batez ere

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Ekosistema digitala oso presente daukat lana komunikatzeko, nire gaiak lantzeko, baina azken finean liburuak eta erreportajeak idazten ditut:

XX.mendeaz bezalaxe

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Ezinbestean gaudelako behartuta gure sorkuntza merkaturako produktutzat hartzeko eta zentzu batzuetan amore emateko hura irakurleei heltzerik nahi badugu (adibidez, geure burua/irudia elkarrizketa eta bestelakoetan saltzeko, sare sozialetan autopromozioa egiteko...)

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Online denda erabiltzen dugu gaur egun gehien liburuak saltzeko, eta sareetan zabaltzen dugu gure argitalpenen berri

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sarerako euskarazko ikus-entzunezkoak sortzen ditugu, gure proiektua zuzenean dago lotuta gaur egungo kultur kontsumo ohiturekin

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Kontsumoa gero eta digitalagoa eta globalagoa delako

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Gaur egungo kontsumo-ohiturek mundu globalizatura bideratzen dute gure kontsumoa

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]



Digitalizazioarekin bai, baina kontsumo-ohiturekin zerikusirik ez duen beste gai bat ere azaleratu da, dena den. **Burokrazia eta prozedura administratiboak**, hain zuzen ere. Areagotu egin direla, korapilatsuak direla eta denbora asko eskaini behar izaten dietela azaldu dute.

Burokrazia eta prozedura administratiboak areagotzea

Burokratizazioak itomena sorrazten du. Gauza gehiegitarra egon behar dugu sorkuntzan hasterako. Eta atomizazioa eragiten da sortzaileon artean

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Espazio digitala dira, halaber: izenpe, faktura elektronikoak, lizitazio elektronikoak... Eta guzti hauek desabantaila hutsa baino ez dira

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Bizimoduarekin edo bizi-ohiturekin lotutako zailtasunak ere aipatu dituzte batzuek. Batez ere, **kontziliazioarekin lotuta edo sorkuntza beste lan batzuekin uztartzen** dutenen kasuan.

Musikari profesionala ez naizenez, beste lanbide batean aritzeak sorkuntzarako behar dudana askatasuna eta denbora murrizten du.

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Dena presaka egin behar izaten denez, zaila egiten zait sorkuntzari tartea topatzea lana, familia... uztartzerakoan

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Zenbait sortzailek adierazi du ohitura berri horiek **ez diotela eragiten**, sormen-prozesuari dagokionez.

Sortzen dugunean ez diogu jaramon gehiegi egiten tendentziei, eramaten lagatzen gara

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sortze-prozesuan nire emozioak aintzat hartzen ditut eta ez zer salduko den

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Nire sorkuntza prozesua ez dutelako gehiegi baldintzatzen momentuko interesek

[Literatura / Ez bitarra / >=50 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Nire sorkuntza ez dago oso lotua kontsumoari, periferikoa da

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Ez diet jaramonik egiten

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Argi daukat aspalditik zergatik eta zer sortu gura dudan

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Beste zenbait hausnarketa esanguratsu ere eragin ditu galderak. Kontsumoaren norabidearen inguruan, joera horrek **hobesten duen produktu-motaren inguruan** eta zenbait sortzailek egoera horren aurrean bere tokia topatzeko izan ditzakeen zailtasunen inguruan.

Kontsumoa bideratuta dago irabazi handiak lortzeko, eta logika horrek produktu zehatz batzuk ahalbidetzen ditu (mainstream-agoak, domestikatuagoak, esaten den bezala 'industrialagoak'), beste batzuk (apurtzaileagoak, esperimentalagoak, ez hain konbentzionalak) eragozten dituen hein berdinean

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Nire jarduna iraunkor izan dadin alternatibak bilatu beharrean nabil etengabe, eta egungo ekoizpen-joera azkarrek eta eskuragarri dauden proposamenen sorta zabalak nire lekua topatzeko zailtasunak eragin dizkirate. Horregatik diot sorkuntza-joeran eragin ertaina izan duela, hau da, nire sorkuntza-joera ez dut hainbeste aldatu baina hori iraunarazteko zailtasunek etengabe soluzio berriak bilatzera naramate

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Esparru digitalaren garapenak kultur sorkuntzan nola eragin duen azaldu dute sortzaileek, abantailak eta desabantailak nabarmenduz. Abantailen artean, **sorkuntzarako tresna** erabilgarriak ekarri dituela azpimarratu dute batzuek: informazio-bilketa eta dokumentazioa, hiztegien kontsulta, musika-ekoizpena etab. Bestalde, **harremanak eta kontaktuak** lantzeko eta produktuen **zabalpen-lanetarako** ere lagungarria izan daitekeela nabarmendu dute.

Abantailak

— Sorkuntzari begira

Tresna bat gehiago da lanerako

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz Durangon]

Lana egiteko errazagoa da. Sormen, zabaltze eta grabazio aldetik

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Nire idazketa lanerako informazioa eskuratzeko eta kontaktuak egiteko ezinbestekoa da

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Dokumentazio lana erraztu du. Irakurle eta kulturgile sareekin harremanetan jartzea, eta halakoak ehuntzea erraztu du

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]



Nire formakuntza gehiena esparru digitalaren gaparenari esker eskuratu dut, baita nire lan erreminta gehienak ere

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Prozesuaren alde bat erraztu dute (musika sortzeko, efektuak sortzeko, argiak...)

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Liburu bat idazteko dokumentazioa eta ikerketa errazten du

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Informazio-iturri gisa eta tresna gisa (hiztegiak, kontsultak...) erabiltzen dut, batez ere

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

— Zabalpenari begira

Zabaltzeko aukera handiagoak

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Taldearen ikusgarritasuna ahalbidetu du

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Lana zabaltzeko eta publikoarekin harremanetan egoteko ere oso eraginkorra da

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Gure emanaldiak iragartzeko erabiltzen dugu

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sare sozialak entzule, musikari eta kontzertu-antolatzaileekin harremantzeko tresna bikaina da

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Nire sormen lana zabaltzeko bidea, nahiz eta gehienetan etekin ekonomikorik ez jaso

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Harremanak erraztu ditu maila lokalean eta nazioartean. Lehenago eskuragarri ez nituen tresnak eskuragarri jarri dizkit eta diziplina berriak lantzeko aukera eman dit

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sareetan lana partekatzeko aukera

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



Zure lana publikoarekin partekatzeko tresna ona da zure musika igotzeko eta sare sozialak zure lana eta kontzertuak ezagutzera emateko

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Irisgarritasun handiagoa bai nire lana ezagutarazteko, zein beste sortzaile batzuk ezagutu eta zuzenean haiekin kontaktuan jartzeko aukera ematen du, nolabait maila berean jarri gaitu (mainstreametik kanpoko jendeaz)

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Jende gehiagora iristeko medio azkarrago bat baliatzen du

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Errazagoa da beste herrialdetako sortzaileekin lan konexioak bultzatzea

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Arlo digitalaren garapenaren desabantailak ere azaleratu dira, ordea. Hainbat alderdi azpimarratu dituzte sortzaileek, gainera. Lehena, eta agerikoena, **euskarri fisikoaren beheraldia** eta balioa galtzea. Horrez gain, **eskaintza ugaritu eta aukera asko zabaldu** da, sortzaile askori nabarmentzea oso zaila egiten zaielarik. Hainbat proposamen oharkabeen pasatzen dira, horrela. Kultur kontsumoaren abiada ere azpimarratu dute desabantailen artean: gero eta kontsumo azkarragoa eta arinagoa egiten dela.

Desabantailak

— Euskarri fisikoaren atzerakada

Fisikoaren balore guztia galdu da. Diru sarrera aldetik ere sekulako atzerapena izan da. Jendeak ez dauka ohituratik soporteko fisikoak erosteko, gero eta gutxiago

[Musika / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / >5 aldiz Durangon]

Vinilo edo CDak galtzen duen terrenoa...

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

— Aukeren zabaltasuna

Aukera zabalegia eta globalizatua dagoela sortzaile txikiek leku bat eduki dezaten

Lana, despertsonalizatu egiten da eta algoritmoetan galdu egin daiteke

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Atomizazioa. Interneten bat zara milioika sortzailearen artean

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]



Errazagoa denez, jendeak oferta gehiago dauka eta denbora gutxiago eskaintzen dio bakoitzari

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Zarata asko dago, zaila da deigarri izatea hainbeste sortzailearen artean

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

— **Abiada eta arintasuna**

Baina kontsumoa oso azkarra da, eta jendeak gero eta gehiago eta azkarrago eskatzen du

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Abiadura bizitu du, gehiago kalterako onerako baino

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Formatu laburrak nahiago dira

[Besterik / Gizonezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Aurrez aurreko jarduna jaitsi da; besteak beste, bere eraginez, edota berorrek loturiko tempoaren eraginez: "berehala ulertu nahi, berehala jakin nahi, berehala esan nahi, berehala erakutsi nahi..."

[Literatura / Emakumezkoa / >=50 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / >5 aldiz]

Oihan digitalak markatzen ditu erritmoak eta sorkuntza lana debaluatu egiten da

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan]

Larregizko eskaintzak kontsumoa orokorrean areagotzen du aldi berean kontsumoa superfizialago eta iragankorragoa sortuz

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan]



Zabalpena eta harremanak abantailen atalean aipatu dira, baina baita desabantailenean ere. **Sare sozialekin** lotuta, batez ere: sortzen duten mendekotasunagatik —etengabe edukia sortzen eta elkarreragina sustatzen egon beharra— eta beste sortaile batzuekin alderatzeko eta ingurukoak bezain aktiboa ez izateagatik norberaren burua zigortzeko eragin dezaketen joeragatik. Arrazoi horien eraginez, sare sozialetan ez egoteko edo horietatik irteteko hautua egin du hainbat sortailek.

Mendekotasuna. Etengabe sortu beharra

Sare sozialetan egin beharreko zabalpenak lan karga handia suposatzen du batzuetan

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Batzuetan dependentzia gehiegi sortzen da. Etengabe eguneratzen egon behar duzu

[Besterik / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Autoekoizpenean garenez, musikaz aparte diren beste arloetatik arduratzea oso zaila da

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Gauza gehiegi batera zaindu behar ditugu. Sare sozialak...

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Lan gehiegi eskatzen du sare sozialetan promoa egiten eta ez gaude eroso

[Musika / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Etengabe hauek elikatzen egon behar duzu, erabilgarri izan daitezen

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean da nire lanbide bakarra / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 alditan Durangon]

Etengabeko formakuntza eta neure burua sareetan saldu beharra

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Bereziki sare sozialekin etengabe "edukiren" bat sortu behar izatera behartzen gaitu, eta gauzak ganoraz komunikatzen ari garelako lilura sortzen du.

Honekin esan nahi dut gure jarraitzaileei hitz egiten diegula, askotan ohartu gabe talde itxi bati ari gatzatzeak hizeketan eta hedabide orokorrek edo aurrez aurreko harremanek garrantzia handia dutela oraindik orain

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Neure burua etengabe saldu behar dudala sentitzen dut nire sorkuntzak arretarik jasoko badu

[Literatura / Ez bitarra / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 alditan Durangon]

Pertsonaia publiko izan behar izateak pisua kentzen dio sormenari berari

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Eduki sorketa dela gakoak diote batzuek baina orduan jada aldatu da zure sorreraren izatea (askotan gertatzen da)

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da]



Konparatzeko joera

Besteen dinamikak ikustean, normalean oso aktiboak diren musikariek konparatzen dut neure aktibitatea eta ez nuke egin beharko, norberak bere bizi-baldintzen arabera (amatasuna, lanbidea...) ekoizten eta zuzenean adierazten duela ulertzen dudalako. Nire sormenerako eta zuzenean adierazteko beharra artistikoa eta emozionala da, ez dut (naute) zertan oso aktiboa den musikari batekin alderatu behar eta sare sozialetan oso agerikoa da norberaren aktibitatea.

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sare sozialetatik ateratzeko hautua

Sare sozialetatik kanpo nago, mundu oso toxikoa delako, eta balirudike hor ez bazaude lurra irentsi zaituela

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Sare-sozialen inpaktua kaltegarria iruditzen zait kultura lasai eta sakon gozatzeko. Ni ez nago sare-sozialetan eta ez dut egon nahi. Aurrez aurreko harremana hobesten dut


[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Kultur ekoizpenaren arlora iritsia den adimen artifizialari dagokionez, hamar sortzailetik ia seik arrisku gisa ikusten dute (% 59,1). Erronka gisa ere erdiek baino gehiagok (% 54,5). Aukera gisa, aldiz, % 40,9k.

Adimen artifiziala arrisku gisa ikusten dutenen pisua nabarmentzen da musikan (% 64,3), emakumezkoen artean (% 63,0) eta 35 urtetik beherakoen artean (% 73,5). Aukera gisa ikusten dutenena, berriz, bestelako diziplina artistikoetan (ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, eremu digitala...) (% 48,7).

97. grafikoa.

Adimen artifizialaren eragina (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

98. taula.

Adimen artifizialaren eragina, gurutzaketa-aldagaien arabera (%)

	Zure sormen-lana, zein diziplinarekin lotuko zenuke nagusiki?			Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?			Adina			Guztira
	Literatura	Musika	Besterik	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez bitarra	< 35 urte	35-49 urte	>=50 urte	
Aukera gisa ikusten dut	34,9	39,3	48,7	39,1	39,3	57,1	47,1	40,4	30,4	40,9
Erronka gisa	53,5	53,6	56,4	63	46,4	71,4	61,8	57,7	39,1	54,5
Mehatxu gisa	48,8	28,6	46,2	47,8	37,5	57,1	50,0	36,5	47,8	42,7
Arrisku gisa	62,8	64,3	51,3	63	58,9	42,9	73,5	51,9	56,5	59,1
Besterik	7,0	0,0	2,6	4,3	3,6	0,0	0,0	3,8	8,7	3,6

Iturria: Siadeco, 2024



Adimen Artifizialaren gaiari dagokionez, **mehatxu edo arrisku** gisa hautematen dutenen ikuspegia da nagusitzen dena, modu nabarmenean. Sormen-lanaren aurkakoa dela iruditzen zaie, ofizioa debalatu egiten duela.

Mehatxua eta arriskua

Adimen artifiziala bezalako teknologiek sortzaileen suspertzea suntsitzen dute. Eta gizarte sortzaileak mintzen dute

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Eraso bat da. Sortzaileari lan indarra kentzeko diseinatua. Sortzaile praktikak ahalmen kritikoa suspertzen du. Hau suntsitzea boteredunen interes garbia da

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Adimen artifiziala azokatik guztiz kanpo utzi eta publikoki gaitzetsi

[Besterik / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sormenean eragin dezakeen kalteari begira, artifizialki sortutako obrak

[Musika / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Autoekoizlea naiz / 2-5 alditan Durangon]

Sorkuntza (are gehiago) banalizatzen duelako, oro har

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Makinek eskatutakoa bete dezakete, benetan aditu, sentitu, poztu edo haserretu barik, eta giza gaitasunak baliogabetzen dituzte. Ez dira sortzaileak, ez dituzte sortzearen atsegina eta erronka ezagutzen

[Literatura / Gizonezkoa / >=50 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Mehatxu gisa, gehienbat

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea naiz / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Sormenean lagun dezakete baina oportunistek kultura lantzeko, hobeto esanda, saltzeko erabil dezakete

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / 2-5 aldiz Durangon]

Nire sorkuntza ikusteko moduan ez diot lekuri ikusten halako zerbaiti. Ulertu dezaket neurketa, lan errepikakor, zenbaki kontuetan... lagungarria izatea, baina sorkuntzan guztiz gaitzesten dut. Basakeria da nola AA erabil daitekeen oraindik eskubide kontuekin dauden lokatzak izanda, eta ingurumenean duen eragina kontuan hartuta

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Egia da termino berean sartzen ditugula IA ez diren gauza asko. Egia da ere, "IA" batzuk onuragarriak edo baliagarriak izan daitezkeela hainbat ingurunetan, hala nola medikuntzan edo antzekoetan. Baina goraldian dauden IA sortzaileak dira kultura gehien arriskuan jartzen dutenak, lan artistiko eta sortzailea kentzen baitigute, eskulan eta aspergarrienekin lagundu beharrean

[Musika / Gizonezkoa / < 35 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Aurreko bi bideak erabiltzen ditut / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]



Gutxi dira aukera gisa ikusten dutenak edo abantailak ikusten dizkietenak. Badaude, ordea, **halabeharrez asumitu beharreko erronka** modura ikusten dutenak, etorri badatorrelako, eta euskal kulturak ezin duelako atzean geratu. Nolanahi ere, zalantzak eta ziurgabetasuna eragiten dituen gaia dela agerikoa da.

Abantaila eta aukera

Erabilera egokia izanez gero tresna interesgarria iruditzen zait. Betiere modu informatu batean erabilia, atzean zein enpresa dauden jakinda, zein albo-kalte eragin ditzakegun ikertuta eta gizakiak sortutakoari (bereziki arteez ari garela) lehentasuna emanda

[Musika / Emakumezkoa / < 35 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / 2-5 aldiz Durangon]

Lanerako informazioa prozesatzeko baliagarri izan daitekeela uste dut

[Literatura / Gizonezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / 2-5 aldiz Durangon]

Oraindik aztertzeko eta jorrazteko dagoen alor bat dela uste dut, arrisksua bezain interesgarria izan daitekeenaren susmoa pizten dit, baina ezezagutza erabatekotik ari naiz

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpena da nire lanbide bakarra / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Erronka

Euskarak adimen artifizialaren garapenean egon behar du, eta hori erronka bat da

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Beste lanbide bat nagusiki / Argitaletxe / diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / Behin, aurtengoa lehen aldia da Durangon]

Erronka modura hartu eta ezagutu behar dugula uste dut: besteek gurea sortu ez dezaten. Kalitatezko sorkuntza eta euskararen erabilera bermatu dezagun

[Literatura / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Argitaletxe/diskoetxe/ekoiztetxe/konpainien bidez argitaratzen ditut lanak / >5 aldiz Durangon]

Datorrenari egokitu behar zaio

[Besterik / Emakumezkoa / 35-49 urte / Kultur ekoizpenean beste lanbide batekin batera / Autoekoizlea / >5 aldiz Durangon]


7.3. Industria-ikuspegia ERAGILEAK

Landutako azken gaiari —adimen artifiziala— jarraipena emanez helduko diogu kulturaren industriako eragileen ikuspuntuari. Eragileen ia hamarretik zazpik (% 68,7) erronka modura ikusten du adimen artifiziala eta % 57,8k arrisku gisa. % 47 da aukera gisa edo mehatxu gisa ikusten duena.

Arrisku gisa ikusten dutenen pisua handiagoa da Azokara 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (% 71,4), liburuaren industrian (% 62,8) eta enpresa-egiturari dagokionez bestelako egiturak (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) dituztenen artean (% 81,8). Aukera gisa ikusten dutenena, aldiz DAn lehen aldia dutenen artean (% 58,8), elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (% 62,5) eta bestelako egiturak dituztenen artean (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) (% 63,6).

98. grafikoa.

Adimen artifizialaren eragina (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

99. taula.

Adimen artifizialaren eragina, gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Aukera gisa ikusten dut	58,8	47,8	27,3	57,1	41,9	50,0	62,5	52,4	38,7	45,0	63,6	47,0
Mehatxu gisa	35,3	56,5	27,3	66,7	58,1	28,1	62,5	38,1	51,6	30,0	81,8	47,0
Arrisku gisa	47,1	56,5	54,5	71,4	62,8	53,1	50,0	71,4	67,7	15,0	81,8	57,8
Erronka gisa	52,9	78,3	59,1	81,0	69,8	59,4	100,0	57,1	67,7	75,0	81,8	68,7
Besterik	0,0	0,0	9,1	0,0	4,7	0,0	0,0	0,0	6,5	0,0	0,0	2,4

Iturria: Siadeco, 2024

Ikuspegi baikorra dute eragileetako batzuek, adimen artifizialaren inguruan: erabilgarria izan daitekeen tresna edo erreminta modura ikusten dute.

Beste lan tresna baino ez da

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria]

Beste erreminta bat bezala erabili ahal da

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria]

Modu egokian erabiliz gero, adimen artifiziala positiboa izan daitekeela uste dut

[Elkartea / Gipuzkoa / Liburuaren industria]

Tresna baliagarria izango delakoan nago, baina teknologiak arriskua dakar beti

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria]

Kultura duen herria gara, hots, egoera berrietara egokitzen jakin duguna. Baserritik industrializaziora egin genuen jauzi, eta gaur gaurkoz, nanoteknologia, biomedikuntza eta abarrean igerika gabiltzanak, ito gabe!. Beraz, jakingo dugu baita ere teknologia berrietan murgiltzen

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Liburuaren industria / Elkarteak]

Adimen artifiziala, hemen dago eta hemen geldituko da; momentu honetan, erronka da.

Nola funtzionatzen duen ondo ikasten dugunean aukera asko emango/sortuko dizkigu

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria]

Gauza berriak beti onak dira gure ustez. Adaptatu beharra tresna berriei

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Adimen artifiziala tresna bat izango da, baina oraindik ez diogu erabilgarritasuna aurkitu. Mobilekin berdina gertatu zen, baina ezin da bakarrik horretara mugatu.

Sistema irekia da kultura, hortaz orain arte balio izan duten sistemak ahaztu gabe, berriak bultzatu beharko dira

[Elkartea / Bizkaia / Musikaren industria / Behin]

Adimen artifizialaren inguruko ikuspegi ezkorra dutenak ere asko dira, hala ere, eragileen artean.

Porque está vulnerando los derechos de propiedad intelectual utilizando para su entrenamiento obras sin el consentimiento de sus autores

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Jabetza intelektuala, sormen prozesuengan izan dezakeen eragina, kalitatea... Dena dago jokoan eta ezer gutxi ikusten dut argi, araututa, hausnartuta...

[Beste bat / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Elkarteak / Hezkuntza / 2-5 aldiz]

Teknologia berri hau zuzen ez erabiltzeak edota mugarik gabe kulturaren debalorizazioa ekar lezake kontsumitzaileen artean eta sormenaren homogeneizazio bat orokorrean

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Aumentarán los contenidos de poca calidad

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / 6-15 aldiz]

Ba, oso era erraz batean egingo dira gauzak, kontrol barik eta kalitate eta arima barik. Langile askoren lana desagertu egingo da


[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 6-15 aldiz]

Digitalizazioak (streaming plataformak, online erosketak...) euskal kulturgintzaren industrian izan duen eraginari dagokionez, batez beste, 4,95eko puntuazioa jaso du, 0tik 10erako eskalan (0 oso negatiboa eta 10 oso positiboa izanik).

Batez besteko altuenak DAn 2-5 aldiz izan direnen artean (5,76), elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (6,00) eta elkarte direnen artean (6,29) jaso dira. Batez bestekorik baxuenak, aldiz, Azokan 16 alditan baino gehiagotan izan direnen artean (3,61), liburuaren industrian (4,45) eta enpresa egitura dutenen artean (4,31).

99. grafikoa.

Digitalizazioaren eragina (streaming plataformak, online erosketak...) euskal kulturgintzaren industrian (0tik 10era, no 0=negatiboa den eta 10=oso positiboa) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

100. taula.

Digitalizazioaren eragina (streaming plataformak, online erosketak...) euskal kulturgintzaren industrian (0tik 10era, non 0=negatiboa den eta 10=oso positiboa), gurtzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Digitalizazioaren eragina	5,58	5,76	4,93	3,61	4,45	5,28	6	5,2	4,31	6,29	4,5	4,95
N	12	21	15	18	31	29	6	15	29	14	8	66
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83


Iturria: Siadeco, 2024

Merkatuaren eskari berrietarako egokitzapenari dagokionez, komunikazio-sareek jaso dute batez besteko puntuaziorik altuena: 6,70. Beste hiruen hurrenkera ondorengoa da: online salmentak (6,15), online marketing-a (6,02) eta produktu digitalak (5,75).

Komunikazio-sareetan batez bestekorik altuenak Azokara 16 aldiz baino gehiagotan izan direnen artean (6,95), liburuaren industrian (7,08) eta elkartearen artean (7,12) jaso dira.

100. grafikoa.

Industria nola ari den egokitzen merkatuaren eskari berrietara (0tik 10era, non 0=ez da batere ondo egokitzen ari den eta 10=oso ondo egokitzen ari da) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

101. taula.

Industria nola ari den egokitzen merkatuaren eskari berrietara (0tik 10era, non 0=ez da batere ondo egokitzen ari den eta 10=oso ondo egokitzen ari da), gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomia	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Produktu digitalak	6,08	6,16	5,31	5,38	5,67	5,75	6,17	5,6	5,36	6,43	6,17	5,75
N	12	19	13	16	30	24	6	15	25	14	6	60
Online salmenta	6,25	5,7	6,73	6,11	6,54	5,73	5,6	5,8	6,36	6,24	5,83	6,15
N	12	20	15	19	35	26	5	15	28	17	6	66
Online marketing-a	5,92	6,1	6,43	5,67	6,26	5,72	5,8	5,87	6,07	6,19	5,67	6,02
N	12	20	14	18	34	25	5	15	27	16	6	64
Komunikazio-sareak	6,54	6,6	6,64	6,95	7,08	6,24	6,2	6,19	6,89	7,12	6	6,7
N	13	20	14	19	36	25	5	16	27	17	6	66
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83

Iturria: Siadeco, 2024

Plataforma digitalak beste era batera kudeatzea edo euskal kulturagileek gestionatutako sareak sortzea aipatu dira, besteak beste, hobetzeko alderdien artean.

Plataforma digitalen kudeaketa hobetzea, artistaren onurarako izan daiten. Artista txikia ere "derrigortuta" dago modu batean edo bestean plataformetan egoten, eta hor egotea ona da, baina horrek ez du etekinik ematen lan berriak sortu eta ekoizteko.

[Autonomoa / Bizkaia / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Hasteko euskaltzaleok autogestionatutako foru digital edo sare sozial bat sortuko nuke non kulturagileek presentzia daukaten

[Autonomoa / Gipuzkoa / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Euskarazko edukiak existitzen direla nabarmentzeko eta haien eraginean eragiteko sare digitalak, ez soilik gune bat edo beste

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 6-15 aldiz]

Esparru digitala zabalegia da euskalduna bezalako kultura batek ikusgarritasuna lortzeko.

Garrantzia dute euskal kultura bildu ete erakustera bideratutako proiektuek. Adib: Armiarma, Badok, elkar.eus...

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Erakunde publikoen laguntza aipatu dute, finantzazioari eta formazioari begira.

Sortzaileei laguntzak eskaini

[Bizkaia / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Es necesario completamente contar con el apoyo decidido y cuantificado en euros a la cultura por parte de los diferentes gobiernos

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Financiación y formación para mejoras en productos y marketing digital

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Instituzioak laguntzen. Gehienak ezin dugu plataforma handiekin konpetitu (AMAZON eta abar)

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Kultur eragileen formakuntza premiazkoa dirudi

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]


Euskal kulturgintzarekin lotutako zenbait baieztapen baloratzeko eskatu zaie eragileei, euren adostasun-maila 0tik 10erako eskala batean kokatzeko eskatuz (non 0=batere ez eta 10=oso ados). 7,94ko batez bestekoarekin, ondorengoak dira puntuaziorik handiena jaso duten baieztapenak:

- Euskal kulturaren promoziorako ezinbestekoa da bitarteko digitalak erabiltzea
- Kontsumoa sustatzeko dirulaguntza eta hobariak eragin positiboa dute kultur industriarengan

Batez besteko puntuaziorik baxuena (5,76) jaso duena, berriz: euskal kulturgintzaren industriak kontsumo-ohitura berrietara egokitzen jakin du. Beraz, nahiko zabaldua dagoen pertzepzioa da industriak ez duela ohitura berri horietara egokitzen jakin.

101. grafikoa.

Ondorengo baieztapenekiko adostasun-maila (0tik 10era, non 0=ez da batere ondo egokitzen ari den eta 10=oso ondo egokitzen ari da) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

102. taula.

Ondorengo baieztapenekiko adostasun-maila (0tik 10erako eskalan, non 0=batere ez eta 10=oso ados), gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Euskal kulturgintzaren hartzaileen kontsumo-ohiturak gero eta aldakorragoak dira	5,69	6,4	5,4	7,33	6,47	5,96	6,71	6,44	6,52	5,47	6,75	6,29
N	13	20	15	18	32	27	7	16	27	15	8	66
Euskal kulturgintzaren industriak kontsumo-ohitura berrietara egokitzen jakin du	6,08	5,9	5,65	5,47	5,84	5,93	4,5	5,56	5,83	6	5,38	5,76
N	13	21	17	19	37	27	6	16	29	17	8	70
Euskal kulturaren promoziorako ezinbestekoa da bitarteko digitalak erabiltzea	7,6	8,14	7,71	8,21	7,87	7,96	8,29	7,79	7,64	8,18	8,88	7,94
N	15	21	17	19	39	26	7	19	28	17	8	72
Kontsumoa sustatzeko dirulaguntza eta hobariek eragin positiboa dute kultur industriarengan	6,87	8,14	7,6	8,84	8,44	7,56	6,86	7,84	8,07	7,5	8,71	7,94
N	15	21	15	19	36	27	7	19	28	16	7	70
Euskal kultura nazioartekotzeko ahaleaginean jarraitu behar da	8,2	7,5	7,5	7,37	7,45	8	7	7,84	7,68	7,41	7,25	7,61
N	15	22	16	19	38	27	7	19	28	17	8	72
Euskal kulturgintza sendotzeko kuota-sistemak ezarri behar zaizkie, legez, komunikabide, zine-areto eta streaming plataformei	6,85	7,13	7,73	8,11	7,76	6,83	7,83	6,25	7,18	8,42	9,38	7,48
N	13	16	11	18	34	18	6	16	22	12	8	58
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83

Iturria: Siadeco, 2024

Kulturgintzaren industriak aurrera begira dituen erronkei dagokienez, internazionalizazioa eta mundura zabaltzea da aipatzen denetako bat.

Mundura zabaltzea euskal kultura

[Autonomia / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria / Behin]

Nazioartean ezagutaraztea

[Enpresa / Nafarroa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Ikasleen hezkuntzan kulturaren sustapena, komunikabideen eragina

[Elkartea / Ipar Euskal Herria / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Autodefinizioa eta transmisioa ere aipatu dira.

Bere burua definitzea

Euskarazko, euskaldunen.. zer da euskal kulturgintza?

[Kooperatiba / Bizkaia / Behin]

Euskal kultura: transmisioa eta definizioa

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / Ikus-entzunezkoen industria / 2-5 aldiz]

Euskal Kulturaren transmisioa

Kultura behar bezala baloratu behar da, merezi duen eta beharrezkoa den balioa eman behar zaio

[Enpresa / Bizkaia / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Euskal kultura euskal gizartearentzat garrantzitsua izatea. Behar bezalako transmisioa bermatzea

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Kulturgileen lan-prekarietatea gainditzea.

Mantener la heterogeneidad y sortear la precariedad laboral

[Elkartea / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Desprekarizatzea, erakunde publikoetan kulturarekiko ikuspegi aldaketa sakona, laguntzak prozesuei eta ikerketari eta ez soilik emaitzei, euskarazko kuota publikoak erdarazko produkzioaren aldean, euskarazko kulturaren prestigiatzea eta parekidetasuna erdarazko produkzioaren aldean, kontsumitzaile hutsak baino gehiago kulturaren erabiltzaile aktiboak sortzeko programak

[Elkartea / Gipuzkoa / Elkartea / 6-15 aldiz]

Kulturgileak kulturaz bizitzea lortzea

[Autonomia / Bizkaia / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Kalitateari eustea mundu mailako joeretan erori gabe.

Kalitateari eustea, mundu-mailako joeretan galdu gabe. Hau da: kapitalismoaren bilakaerak, gero eta kontsumogai arinagoak hautatzera eraman gaitu, denbora galtzen ari garela pentsarazten digu. Horretatik ateratzea zaila dela uste dugu, batez ere gazteentzat

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Kontsumitzaileak errealitatearen isla jasotzea, eta ez soilik "tendentzia" sistema batean oinarritutako komunikazioa

[Elkartea / Bizkaia / Musikaren industria / Behin]

Erabiltzaileen sare egoki eta iraunkor bat sortzea

[Bizkaia / Liburuaren industria]

Erakunde publikoen inbertsio handiagoaren beharra adierazi dute batzuek.

Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta balio erantsia nabarmentzeko instituzioen aldetik gehiago inbertitzea.

Durango Azokak gaur egungo bidean jarraitu eta sakontzea, liburu eta diskoez gain kultura eskaintza zabaltzen jarraitzea

[Enpresa / Gipuzkoa / Liburuaren industria / Musikaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Euskal kultur industria indartzeko, diru-laguntzak hobetu, ikusgarritasuna handitu, lan-baldintza duinak bermatu eta gazteak erakartzea ezinbestekoa da. Durango Azokak lagundu dezake digitalizazioa indartzeko eta euskal kultura urte osoan sustatuz. Ez dadila izan urteko egun batzuetako ekitaldi bakarrik, baizik eta etengabeko erreferente bat

[Autonomoa / Araba / Musikaren industria / 2-5 aldiz]

Erakundeen laguntza.

Doako laguntzak eskaini enpresa txikiei

Promozio gehiago egitea

[Bizkaia / Liburuaren industria / 30 alditan baino gehiagotan]

Produktzioa handitu, gauza desberdin asko sortuz. Horiek bultzatu egonaldi eta diru laguntzekin

[Beste bat / Gipuzkoa / Musikaren industria / Elkartea / 2-5 aldiz]

Dirulaguntza gehiago instituzioen aldetik, birak egiteko etab.

[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / Musikaren industria / Behin]

No lo sé. Saber eso es cómo tener una bola de cristal. Pero creo que una voluntad clara -y no solo de palabra- de las instituciones ayudaría mucho. Por ejemplo, en el tema de libros, en el que me muevo. Cada año los informes PISA demuestran menor comprensión lectora. Eso es una tragedia que los políticos parecen no querer ver. A esto hay que responder con políticas claras y no partidistas de apoyo a la lectura en las escuelas, con planes de lectura bien estructurados, que se cumplan, con una apuesta por las bibliotecas escolares y con personal para atenderlas -no vale cargar más tarea a los profesores porque esto, a la larga, no funciona, con cursos a los profesores para que conozcan los mecanismos de promoción lectora. Con inversión en Educación, en suma. Y quizás también ayudaría restar dinero a la EITB, que absorbe gran parte del Departamento de Cultura, para ponerlo en otros lados


[Autonomoa / Bizkaia / Liburuaren industria / 2-5 aldiz]

Euskal kulturaren gaur egungo kontsumitzaile arruntena, ohikoena, definitzeko eskatu zaie eragileei. Horretarako, 0tik 10erako eskala batean kokatzeko eskatu zaie, non 0ak esan nahi duen oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumitzailea dela eta 10ak maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duela. 6,07ko puntuazioa jaso du, batez beste. Hortaz, maiztasun jakin batekin kontsumitzeko ohituratik gertuago dago kontsumitzailea, eragileen ikuspuntutik.

Batez besteko hori bereziki altuagoa da DAn lehen aldia dutenen artean (7,00), liburuaren industrian (6,16) eta autonomoen artean (6,70). Eta, bereziki baxuagoa, 16 alditan baino gehiagotan izena eman dutenen artean (5,17), elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (5,38) eta bestelako egiturak (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa...) dituztenen artean (5,30).

102. grafikoa.

Kulturaren ohiko kontsumitzailearen definizioa (0tik 10erako eskalan, non 0ak esan nahi duen oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumitzailea dela eta 10ak maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duela) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

103. taula.

Kulturaren ohiko kontsumitzailearen definizioa (0tik 10erako eskalan, non 0ak esan nahi duen oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumitzailea dela eta 10ak maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duela), gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburu-aren industria	Musi-karen industria	Elkarte, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkarte	Besterik	
Kulturaren ohiko kontsumitzailearen definizioa	7	6,39	5,71	5,17	6,16	6,14	5,38	6,7	5,89	6,06	5,3	6,07
N	16	23	17	18	38	28	8	20	27	17	10	74
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83


Iturria: Siadeco, 2024

Euskal kulturaren ohiko kontsumitzaile horrek, produktu bat hautatzerakoan, asko pentsatzen duen edo ez galdetu zaie eragileei. Otik 10erako eskalan kokatzeko eskatu zaie, 0 ez du batere pentsatzen eta 10 asko pentsatzen du izanik. 5,82koa puntuazioa jaso du, batez beste, ia erdian kokatu dute, beraz.

Batez bestekoa bereziki altua da —gehiago pentsatze aldera lerratuago— DAn 16 alditan baino gehiagotan parte hartu dutenen artean (6,17), liburuaren industrian (6,54) eta enpresa direnen artean (5,85). Bereziki baxua, berriz, 2-5 aldiz joan direnen artean (5,43), elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa multzoan (4,88) eta bestelako egiturak dituztenen artean (kooperatiba, fundazioa, bestelakoa) (4,80).

103. grafikoa.

Kontsumitzailearen hausnartze-maila kultur produktu bat hautatzerakoan (Otik 10erako eskalan, 0 ez du batere pentsatzen eta 10 asko pentsatzen du izanik) (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

104. taula.

Kontsumitzailearen hausnartze-maila kultur produktu bat hautatzerakoan (Otik 10erako eskalan, 0 ez du batere pentsatzen eta 10 asko pentsatzen du izanik), gurutzaketa-aldagaien arabera (%).

	Zenbat aldiz parte hartu du zure elkarte edo enpresak Durangoko Azokan?				Zein sektoretan kokatzen den (txostenerako)			Kultur eragile gisara, zein da zure jardueraren enpresa-egitura?				Guztira
	Behin	2-5 aldiz	6-15 aldiz	16 aldiz baino gehiagotan	Liburuaren industria	Musikaren industria	Elkartea, hedabidea, hezkuntza, ikus-entzunezkoa	Auto-nomoa	Enpresa	Elkartea	Besterik	
Kontsumitzailearen hausnartze-maila	5,88	5,43	5,94	6,17	6,54	5,14	4,88	6,3	5,85	5,81	4,8	5,82
N	16	23	16	18	37	28	8	20	27	16	10	73
N guztirakoak	17	23	22	21	43	32	8	21	31	20	11	83

Iturria: Siadeco, 2024

7.4. Kontsumoa eta zaletasuna BISITARIAK


Landutako azken gai hori —kontsumitzaile arruntaren edo ohikoaren profila— Durangoko Azokako bisitariei egindako inkestako datuak erabiliz aztertuko dugu hemen. Azpimarratu behar da Durangoko Azokako bisitariez ari garela, ez euskal gizarteaz, ezta euskal kulturaren kontsumitzaileez ere. Eta Durangoko Azokara joan izanak diferentzia handia eragiten duela unibertso baten eta bestearen arteko ezaugarrietan.

Hasteko, euskararen ezagutzari dagokionez. Izan ere, ezaugarritzearen atalean ikusi dugun bezala, Durangoko Azokako bisitarien % 1,6 besterik ez da erdalduna. 2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleen % 53,8 denean erdalduna. Baina, kultura kontsumitzeko ohitura handiagoa ere badute Durangoko Azokako bisitariak, atal honetan ikusiko dugun bezala.

Durangoko Azokako bisitarien bi herenak adierazi du kultura maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duela (% 67,7); Otik 10erako eskala batean 7,03ko batez besteko puntuazioa lortu da, 0 oso noizean behingo kontsumitzailea izanik, eta 10, maiztasun batekin kultura kontsumitzeko ohitura duena izanik. Kultura maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura izatearen ratioaren batez besteko balio hori, emakumezkoetan (7,10) gizonezkoetan (6,91) baino altuagoa da eta 45 urtetik beherakoetan ere (7aren gainetik), hortik goraketan (7aren azpitik) baino altuagoa da.

104. grafikoa.


Bisitariak nola definitzen duten euren burua kultur kontsumitzaile moduan (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

105. grafikoa.

Otik 10erako eskalan, bisitariak nola definitzen duten euren burua kultur kontsumitzaile moduan, generoaren eta adinaren arabera (0=oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumoa eta 10=maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duena izanik)(%)



Iturria: Siadeco, 2024.

105. taula.

Otik 10erako eskalan, bisitariak nola definitzen duten euren burua kultur kontsumitzaile moduan, generoaren eta adinaren arabera (0=oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumoa eta 10=maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duena izanik) (%)


	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku- mezkua	Gizo- nezkua	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Noizbehinkakoa	3,2	4,8	1,4	8,4	1,9	4,8	2,7	3,8
Tartekoa	26,7	28,8	22,7	17,6	28,2	38,3	36,5	27,7
Maiztasunarekin	69,1	66,1	75,4	73,5	69,2	56,9	58,6	67,7
Ed/Ee	1,0	0,3	0,6	0,6	0,7	0,0	2,2	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste (0tik 10era)	7,10	6,91	7,33	7,03	7,07	6,83	6,76	7,03

Iturria: Siadeco, 2024

Kultur produktu bat hautatzerakoan, gutxi edo asko, zenbat pentsatzen den bisitariei galdetuta, bisitarien erdiek asko edo dezente pentsatzen dutela erantzun dute kultur produktu bat hautatu aurretik (% 53,4). 0tik 10erako eskala erabilita, non 0 batere ez eta 10 asko den, 5,98 da batez besteko balioa. Batez besteko balio hori altuxeagoa da gizonezkoetan (6,01), eta adinez, baxuagoa da 36tik 55 urtera artekoetan.

106. grafikoa.

Bisitariak asko pentsatzen duten kultur produktu bat hautatzerakoan (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

107. grafikoa.

0tik 10erako eskalan, bisitariak asko pentsatzen duten kultur produktu bat hautatzerakoan, generoaren eta adinaren arabera (0=oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumoa eta 10=maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duena izanik) (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

106. taula.

Otik 10erako eskalan, bisitariek asko pentsatzen duten kultur produktu bat hautatzerakoan, generoaren eta adinaren arabera (0=oso noizbehinkako eta bat-bateko kontsumoa eta 10=maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duena izanik) (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Batere ez/Gutxi	19,7	19,9	15,7	15,9	32,2	19,0	11,7	19,9
Tartekoa	27,3	24,7	32,1	22,7	19,6	26,0	32,6	25,9
Dezente/Asko	51,9	55,0	51,4	60,2	47,6	55,0	54,5	53,4
Ed/Ee	1,1	0,4	0,8	1,2	0,7	0,0	1,3	0,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batez beste (Otik 10era)	5,97	6,01	6,11	6,27	5,39	5,95	6,46	5,98

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitarien ohituretan sakonduz, lagunekin edo familiarekin hitz egiteaz (% 93,8) eta txateatzeaz (% 86,6) gain, bisitarien artean ohikoenak diren eguneroko aisialdiko jarduerak ondorengoak dira: musika entzutea (% 81,5), sare sozialak kontsultatzea (% 72,8), egunkaria irakurtzea (% 51,2), eta telebista ikustea (% 46,4). 25 urtetik beherakoetan, hamarretik bederatzi pasatxok egunero entzuten du musika eta kontsultatzen ditu sare sozialak. Beste aldean, 55 urtetik gorakoan hamarretik zortzi pasatxok egunkaria irakurtzen du egunero. Lagunekin eta familiartekoeekin eguneroko harremana ohikoagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino.


Liburuak irakurri, 10etik 4k (% 42,2) egunero edo ia egunero egiten duela erantzun du, eta 10etik 3k (% 29,0) astean behin gutxienez.

Kirola egin eta pelikulak edo serieak ikusi, astean behin egiten da gehiago: % 40,1ek eta % 38,1ek egiten ditu orduan, hurrenez hurren. Kirola eguneroko jarduera gisa du gizonezkoen % 40,9k; 25 urtetik beherakoan % 43,3k eta 16 eta 25 urte artekoen % 44,6k. Emakumezkoen artean gehiago ikusten dituzte serieak edo pelikulak egunero (% 35,2).

Bisitariei galdetutakoan artean, inoiz egiten ez diren proportzio handieneko jarduerak bi dira: bideojokoetan jolastea (% 82,6) eta podcastak entzutea (% 38,1).

108. grafikoa.

Bisitariek zein maiztasunekin egiten dituzten ondorengo aisialdi-jarduerak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

107. taula.

Bisitariek zein maiztasunekin egiten dituzten ondorengo aisialdi-jarduerak, generoaren eta adinaren arabera (%) (1/2)

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Kirola egin	Egunero/la egunero	28,5	40,9	43,3	44,6	23,2	22,2	32,9	33,3
	Astean behin gutxienez	43,2	36,0	33,6	38,6	46,9	47,2	31,7	40,1
	Astean behin baino gutxiagotan	17,9	15,2	14,9	11,3	18,5	21,0	20,7	16,9
	Inoiz ez	9,7	7,1	6,9	5,0	11,4	8,6	13,5	8,9
	Ed/Ee	0,7	0,8	1,3	0,6	0,0	1,0	1,3	0,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Telebista ikusi	Egunero/la egunero	46,4	47,5	34,1	44,0	45,7	50,1	64,6	46,4
	Astean behin gutxienez	20,4	22,1	22,0	20,1	24,1	19,1	18,4	21,1
	Astean behin baino gutxiagotan	18,6	15,2	22,4	18,7	16,6	18,3	6,3	17,1
	Inoiz ez	14,1	14,4	20,4	16,7	13,7	11,6	9,5	14,8
	Ed/Ee	0,6	0,8	1,0	0,6	0,0	1,0	1,3	0,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Etxean pelikulak edo serieak ikusi	Egunero/la egunero	35,2	25,9	35,0	40,5	19,7	27,9	35,3	31,1
	Astean behin gutxienez	36,2	40,5	40,2	32,4	42,0	43,4	30,4	38,1
	Astean behin baino gutxiagotan	18,9	25,6	18,1	21,6	26,3	23,1	16,0	21,5
	Inoiz ez	9,2	7,1	5,9	4,9	11,9	4,6	17,1	8,6
	Ed/Ee	0,5	0,8	0,7	0,6	0,0	1,0	1,3	0,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Sare sozialak kontsultatu	Egunero/la egunero	74,6	69,8	93,5	84,2	73,2	59,5	41,0	72,8
	Astean behin gutxienez	7,8	8,7	3,6	5,0	12,5	7,7	12,8	8,2
	Astean behin baino gutxiagotan	6,7	6,3	0,6	4,0	4,0	13,4	14,7	6,5
	Inoiz ez	10,3	13,9	1,1	5,6	10,4	18,4	30,2	11,6
	Ed/Ee	0,5	1,4	1,1	1,2	0,0	1,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Podcastak entzun	Egunero/la egunero	13,4	15,2	11,0	22,3	15,4	13,3	6,8	14,3
	Astean behin gutxienez	21,5	21,6	27,0	26,5	23,9	14,5	11,2	21,6
	Astean behin baino gutxiagotan	27,1	22,9	33,6	29,2	16,1	25,0	22,8	25,2
	Inoiz ez	37,3	39,5	27,1	21,4	44,6	46,3	57,9	38,1
	Ed/Ee	0,7	0,8	1,3	0,6	0,0	1,0	1,3	0,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Egunkaria irakurri (paperean edo euskarri digitalean)	Egunero/la egunero	48,1	56,5	18,7	40,4	64,0	59,8	82,0	51,2
	Astean behin gutxienez	17,9	15,2	21,7	24,3	12,5	16,4	6,8	16,8
	Astean behin baino gutxiagotan	15,3	11,9	24,8	15	10,6	13,5	2,5	13,9
	Inoiz ez	17,7	15,5	32,9	19,7	13,0	9,4	7,4	17,2
	Ed/Ee	0,9	0,8	1,9	0,6	0,0	1,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Liburuak irakurri	Egunero/la egunero	48,3	33,4	31,4	33	46,4	43,2	63,3	42,2
	Astean behin gutxienez	27,6	31,4	29,5	34,6	23,2	34,6	23,6	29
	Astean behin baino gutxiagotan	17,9	24,1	23,6	24,5	21,6	18,3	10,1	20,4
	Inoiz ez	5,5	10,2	14,3	7,3	8,8	1,9	1,8	7,4
	Ed/Ee	0,8	1,0	1,1	0,6	0,0	1,9	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Bisitariek zein maiztasunekin egiten dituzten ondorengo aisialdi-jarduerak, generoaren eta adinaren arabera (%) (2/2)

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Musika entzun	Egunero/la egunero	82,3	80,5	94,1	90,2	84,4	72,2	56,3	81,5
	Astean behin gutxienez	13,9	14,9	4,5	7,4	13,0	21,0	32,9	14,3
	Astean behin baino gutxiagotan	2,9	3,7	0,4	1,8	2,6	5,8	8,3	3,3
	Inoiz ez	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,3	0,2
	Ed/Ee	0,6	0,8	1,0	0,6	0,0	1,0	1,3	0,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Bideo- jokoetan jolastu	Egunero/la egunero	2,0	4,2	4,7	3,3	2,6	2,9	0,0	2,9
	Astean behin gutxienez	2,5	8,3	9,0	6,0	5,0	2,9	1,8	5,2
	Astean behin baino gutxiagotan	6,7	11,1	11,2	10,0	11,4	5,8	0,0	8,4
	Inoiz ez	87,7	75,5	73,0	80,3	81,0	87,5	96,9	82,6
	Ed/Ee	1,0	0,8	2,2	0,6	0,0	1,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Gizarte- talde edo elkarteetan parte hartu	Egunero/la egunero	14,6	15,8	15,4	13,9	20,2	10,7	13,3	15,2
	Astean behin gutxienez	23,5	23,3	25,6	24,4	27,9	16,3	20,3	23,5
	Astean behin baino gutxiagotan	18,5	21,5	19,7	16,1	17,3	27,1	21,6	19,9
	Inoiz ez	42,3	38,1	37,8	44,5	34,6	44	43,5	40,3
	Ed/Ee	1,0	1,2	1,6	1,1	0,0	2,0	1,3	1,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagunekin edo famieliarekin hitz egin	Egunero/la egunero	95,3	91,8	96,6	92,0	93,8	93,2	93,2	93,8
	Astean behin gutxienez	3,5	5,8	1,2	6,2	5,5	4,8	4,7	4,5
	Astean behin baino gutxiagotan	0,5	0,6	0,4	0,6	0,7	1,0	0,0	0,5
	Inoiz ez	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,1
	Ed/Ee	0,6	1,6	1,8	1,2	0,0	1,0	1,3	1,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagunekin edo famieliarekin txateatu	Egunero/la egunero	90,4	81,4	95,0	91,4	89,1	82,8	67,5	86,6
	Astean behin gutxienez	6,3	11,8	3,2	7,5	7,1	11,4	18,2	8,7
	Astean behin baino gutxiagotan	1,2	2,4	0,3	0,6	1,2	1,9	5,7	1,7
	Inoiz ez	1,5	3,7	0,7	0,0	2,6	2,9	7,4	2,4
	Ed/Ee	0,5	0,8	0,7	0,6	0,0	1,0	1,3	0,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Kultur jardueri dagokienez, bost bisitaritik ia bi askotan joaten da musika kontzertuetara (% 38,5) –35 urtetik beherakoen artean erdia, eta 55 urtetik gorakoen % 13,8– eta bostetik ia bat zinemara (% 19,8) –25 eta 36 urte artekoen laurden bat–. Hala ere, noizean behin joaten direnen multzoa handiagoa da kasu gehienetan. Erdia baino gehiago noizean behin joaten da zinemara (% 57,6), antzerki emanalditara (% 57,3), musika kontzertutara (% 52,3) eta beste kultur jarduera batzuetara (% 51,6).

Bertso-saioen eta literaturarekin lotutako saio eta ekitaldien kasuan, gehiengoa ez da inoiz edo ia inoiz joaten: % 55,4 eta % 64, hurrenez hurren.

Generoen arteko alderik nabarmenena antzerki emanalditan dago: emakumezkoen % 60,6 noizean behin joaten da (gizonezkoen % 52,4) , eta inoiz edo ia inoiz joaten ez direnen ehunekoa 10 puntu altuagoa da gizonezkoetan.

109. grafikoa.

Durango Azokako bisitariek urtean zenbatetan egiten dituzten ondorengo kultur jarduerak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

108. taula.

Durangoko Azokako bisitariek urtean zenbatetan egiten dituzten ondorengo kultur jarduerak, generoaren eta adinaren arabera (%)

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Antzerki emanaldietara joan	Askotan	12,9	12,2	6,1	13,8	15,4	15,4	13,7	12,8
	Noizean behin	60,6	52,4	51,1	50,3	60,0	63,3	64,6	57,3
	Inoiz ez / la inoiz ez	24,7	34,7	41,0	34,2	23,2	21,3	20,5	28,6
	Ed/Ee	1,7	0,7	1,9	1,8	1,4	0,0	1,3	1,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Bertso saioetara joan	Askotan	8,5	6,1	6,7	7,2	2,8	7,7	17,6	7,5
	Noizean behin	33,5	39,3	32,2	34,1	34,6	38,4	40,8	35,6
	Inoiz ez / la inoiz ez	56,1	53,5	59,0	56,9	61,2	52,9	40,3	55,4
	Ed/Ee	1,8	1,2	2,2	1,8	1,4	1,0	1,3	1,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Musika kontzertuetara joan	Askotan	39,7	36,3	55,5	52,5	30,3	32,8	13,8	38,5
	Noizean behin	51,5	53,6	40,5	42,6	56,6	61,4	65,8	52,3
	Inoiz ez / la inoiz ez	7,1	8,7	2,0	3,1	11,8	4,8	19,1	7,7
	Ed/Ee	1,6	1,4	2,0	1,8	1,4	1,0	1,3	1,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literaturarekin lotutako saio/ekitaldietara joan	Askotan	4,7	4,1	3,7	3,7	2,1	7,7	8,3	4,6
	Noizean behin	30,1	29,3	25,9	33,0	29,4	28,0	33,1	29,7
	Inoiz ez / la inoiz ez	63,3	65,3	68,5	61,5	67,1	62,4	57,4	64,0
	Ed/Ee	1,9	1,4	2,0	1,8	1,4	1,9	1,3	1,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zinemara joan	Askotan	20,8	18,3	20,5	25,5	11,9	21,2	22,3	19,8
	Noizean behin	55,0	61,0	60,5	58,1	60,5	52,8	53,2	57,6
	Inoiz ez / la inoiz ez	22,3	19,8	17,0	14,6	26,1	25,0	23,2	21,1
	Ed/Ee	1,9	0,9	2,0	1,8	1,4	1,0	1,3	1,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Beste kultur jardueretara joan (erakusketak, hitzaldiak...)	Askotan	9,4	12,4	12,0	13,1	9,0	10,7	9,5	10,9
	Noizean behin	53,1	49,4	47,7	48,3	53,6	53,7	56,1	51,6
	Inoiz ez / la inoiz ez	25,0	29,1	32,2	28,5	24,9	22,2	24,1	26,6
	Ed/Ee	12,5	9,0	8,1	10,2	12,5	13,5	10,3	10,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Atal honen hasieran aurreratu dugun bezala, Durangoko Azokako bisitariek kultura kontsumitzeko ohitura handia dute, herritarren datu orokorrekin alderatuta, nabarmen handiagoa. Euskal Herriko kultur ohituren inkestako (Eusko Jaurlaritza-Kulturaren Euskal Behatokia, 2019) zenbait datu ekarri ditugu, alderaketa hori egiteko:


- Azken hamabi hilabeteetan gutxienez liburu bat irakurri duten herritarrak: % 75 (DAko bisitarien artean % 91,6).
- Musika egunero entzuten duten herritarrak: % 57,7 (DAko bisitarien artean % 81,5).
- Musika kontzertu batera gutxienez behin joan direnak: % 63,2 (DAko bisitarien artean % 90,8).
- Zinemara gutxienez behin joan direnak: % 70,2 (DAko bisitarien artean % 77,4).

Durangoko Azokako hamar bisitaritik zortzik erosi du euskarazko libururik azken 12 hilabeteetan: % 30,6k 3 eta 5 liburu artean, % 25,3k 1 edo 2 liburu, eta beste % 25,3k, 6 liburu baino gehiago. Bostetik ia bik ez du euskarazko libururik erosi azken urtean (% 18,9).

Libururik erosi dutenen % 19,9k urte osoan erosi dituen euskarazko liburu guztiak Durangoko Azokan erosi ditu; eta % 22,7k, urte osoan erositako euskarazko liburu guztiak ez baina erdia baino gehiago Durangoko Azokan erosi ditu Horrela, Durangoko Azokako 10 erosletatik 4 baino gehiagok (% 42,6), Azokatik aparte, urte osoan ez dute euskarazko beste liburu bakar bat ere erosten, eta erosten badute, gutxi, Azokan erositako liburuen erdia baino gutxiago. Beste aldean, % 20,8k ez du euskarazko libururik erosi Azokako postuetan.

110. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko liburuak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

109. taula.


Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko liburuak (%)

	Guztira
0 liburu	18,9
1-2 liburu	25,3
3-5 liburu	30,6
6-10 liburu	18,9
10 liburu baino gehiago	6,4
Guztira	100,0
N (pond)	659

Iturria: Siadeco, 2024

111. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko liburuetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

110. taula.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko liburuetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (Libururen bat erosi dutenen artean soilik) (%)


	Guztira
% 0	20,8
% 50 baino gutxiago	36,6
% 50 edo gehiago (%100 izan ezik)	22,7
% 100	19,9
Guztira	100,0
N (pond)	535

Iturria: Siadeco, 2024

Azken urtean euskara ez den beste hizkuntza batean libururik erosi dutenak hamarretik ia sei dira (% 59,1): % 21,4k 3-5 liburu, % 20,3k 1 edo 2 liburu eta % 17,5ek 6 liburu baino gehiago. Durangoko Azokan ia ez dute euskaraz ez den libururik erosi, % 5,5ek besterik ez du halakorik erosi.

112. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako liburu ez-euskaradunak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

111. taula.


Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako liburu ez-euskaradunak (%)

	Guztira
0 liburu	40,9
1-2 liburu	20,3
3-5 liburu	21,4
6-10 liburu	12,5
10 liburu baino gehiago	5,0
Guztira	100,0
N (pond)	692

Iturria: Siadeco, 2024

113. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskara ez den beste hizkuntza batean dauden liburuetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (libururen bat erosi dutenen artean soilik) (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

112. taula.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskara ez den beste hizkuntza batean dauden liburuetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (Libururen bat erosi dutenen artean soilik) (%)

	Guztira
% 0	94,5
% 50 baino gutxiago	4,9
% 50 edo gehiago (%100 izan ezik)	0,6
% 100	0,0
Guztira	100,0
N (pond)	409

Iturria: Siadeco, 2024


Azokaren bisitariak azken urtean irakurritako liburuen % 71 batez beste euskarri fisikoan erositakoa izan da, % 19,5 ordaindu gabe eskuratutakoa, eta % 9,5, aldiz, euskarri digitalean erositakoa.

Euskarri fisikoan erositakoaren batez besteko pisua altuagoa da 26-35 eta 55 urtetik gorakoan artean, irakurtzen duten horren hiru laurden ingurukoa (% 75,2 eta % 75,4, hurrenez hurren). Aldiz, euskarri digitalean irakurtzen duten horren batez besteko pisua altuagoa da 46 eta 55 urte artekoetan (% 16,2). Ordaindu gabekoaren proportzio handiena 36 eta 45 urte bitartekoetan dago: batez beste ia laurden bat irakurtzen dute ordaindu gabe (% 23,1).

Gizonezkoek batez beste zertxobait gehiago irakurri dituzte erositako liburuak (euskarri fisikoan nahiz digitalean), eta emakumezkoek, aldiz, ordaindu gabe eskuratutakoak (liburutegian hartu izanagatik, euskarri digitaletan ordaindu gabe irakurtzeagatik, oparitutakoak...).

114. grafikoa.

Azken urtean irakurritakoaren batez beste zer portzentaje izan den euskarri fisikoan erositakoa, euskarri digitalean erositakoa edo ordaindu gabe eskuratutakoa (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

113. taula.

Azken urtean irakurritakoaren batez beste zer portzentaje izan den euskarri fisikoan erositakoa, euskarri digitalean erositakoa edo ordaindu gabe eskuratutakoa, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Euskarri fisikoan erosita	69,4	72,7	71,7	75,2	67,8	65,9	75,4	71,0
Euskarri digitalean erosita	9,2	10,3	7,6	8,1	9,1	16,2	7,3	9,5
Ordaindu gabe eskuratuta	21,4	17,0	20,7	16,7	23,1	17,9	17,2	19,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Durangoko Azokako bisitariek azken urtean zertxobait gehiago irakurri dute erdaraz: irakurritako liburu guztiak edo gehienak erdaraz irakurri dituzte Azokako bisitarien herena baino gehiagok (% 36,6); aldiz liburu denak edo gehienak euskaraz irakurritakoak %30,2 dira. Eta irakurritakoen erdiak euskaraz eta beste erdiak erdaraz, % 28,9k. % 9k irakurri dituen liburu guztiak ziren erdaraz (liburu guztiak euskaraz % 11,0), eta % 27,6k gehienak erdaraz irakurri ditu (liburu gehienak euskaraz % 19,2k). Gizonezkoen artean zabalduago dago dena edo gehiena euskaraz irakurtzea (% 12,8k dena eta % 20,2k, gehiena) eta emakumezkoen artean, aldiz, zertxobait gehiago dira gehiena erdaraz irakurri dutenak (emakumezkoen % 29,5 eta gizonezkoen % 25,5).

Euskaraz bakarrik irakurritakoen ehuneko altuena, 36-45 adin-tarteari dagokio eta erdaraz bakarrik irakurritakoena 55 urtetik gorakoei: 36 eta 45 urte bitartekoak % 17k dena euskaraz irakurri du, eta aldiz, 55 urtetik gorakoetan bostetik bi pasatxok dena edo gehiena erdaraz irakurri dute (% 10,8k dena, eta % 30,6k gehiena).

2018 urteko datuekiko, euskarazko liburuak irakurri dituztenen pisuak gora egin du. Baina erdarazko liburuekin batera irakurtzen da euskaraz: azken hamabi hilabeteetan denak erdaraz irakurri dituztenen ehunekoak behera egin du, % 30,5etik % 9,0ra. Baina denak euskaraz irakurri dituztenenak ere bai, % 15,4tik % 11,0ra.

115. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitariak azken 12 hilabeteetan zein hizkuntzatan irakurri dituen liburuak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

114. taula.

Durangoko Azokako bisitariak azken 12 hilabeteetan zein hizkuntzatan irakurri dituen liburuak, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Denak euskaraz	10,0	12,8	9,8	8,6	17,0	9,7	7,4	11,0
Gehienak euskaraz	18,9	20,2	19,7	22,6	18,2	18,3	16,0	19,2
Erdi eta erdi	29,0	27,8	28,8	25,6	28,0	30,7	33,1	28,9
Gehienak erdaraz	29,5	25,5	22,9	27,5	30,3	27,0	30,6	27,6
Denak erdaraz	8,9	8,9	11,6	9,4	5,2	9,6	10,8	9,0
Ed/Ee	3,8	4,9	7,2	6,2	1,4	4,8	2,2	4,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Siadeco, 2024

Bost bisitaritik bik bakarrik erosi dute euskarazko diskorik azken 12 hilabeteetan, Azokan erositakoak ere kontatuta; % 59,4k ez du euskarazko diskorik erosi. Multzorik handienak, bisitarien laurden batek, 1 edo 2 disko erosi ditu azken urtean (% 25).

Euskarazko diskorik erosi dutenetik, % 42,4k Durangoko Azokan erosi ditu urte osoan erositako disko guztiak eta %18,4k erositako disko guztien erdia baino gehiago.

116. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko diskoak (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

115. taula.


Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko diskoak (%)

	Guztira
0 disko	59,4
1-2 disko	25,0
3-5 disko	10,7
6-10 disko	4,0
10 disko baino gehiago	1,1
Guztira	100,0
N (pond)	576

Iturria: Siadeco, 2024

117. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko diskoetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (diskoren bat erosi dutenen artean soilik) (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

116. taula.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskarazko diskoetatik zer portzentaje den Durangoko Azokan erositakoa (Libururen bat erosi dutenen artean soilik) (%)


	Guztira
% 0	26,8
% 50 baino gutxiago	12,3
% 50 edo gehiago (%100 izan ezik)	18,4
% 100	42,4
Guztira	100,0
N (pond)	234

Iturria: Siadeco, 2024

Euskara ez den beste hizkuntza batean gutxiago erosten dituzte diskoak Azokara bertaratu direnek. % 85,6k ez du halako diskorik erosi urte osoan, beraz, % 14,4k bakarrik erosi du diskoren bat, gehienek, 1 edo 2 (% 9,2). Horietako bakar bat ere ez dute Durangoko Azokan erosi.

118. grafikoa.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskara ez den beste hizkuntza batean dauden diskoak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

117. taula.

Azokako bisitariek azken 12 hilabeteetan erositako euskara ez den beste hizkuntza batean dauden diskoak (%)

	Guztira
0 liburu	85,6
1-2 liburu	9,2
3-5 liburu	2,9
6-10 liburu	1,6
10 liburu baino gehiago	0,8
Guztira	100,0
N (pond)	774


Iturria: Siadeco, 2024

Musikari dagokionez, ordaindu gabe entzuten den musikaren batez besteko proportzioa da handiena: batez beste bisitariek entzuten duten musikaren % 42,7 ordaindu gabekoa da – gizonezkoen eta 36 eta 45 urte artekoen kasuan ia erdia batez beste–. Euskarri digitalean erositakoa da entzuten den musikaren % 30,4 batez beste, eta euskarri fisikoan erositakoa laurden bat batez beste (% 26,9).

Adinean behera egin ahala, handiagoa da euskarri digitalean erositako musikak duen batez besteko pisua: % 16,7koa da 55 urtetik gorakoen artean eta % 43 ingurukoa 35 urtetik beherakoan artean. Euskarri fisikoan erositakoak 46 urtetik gorakoetan du batez besteko pisurik handiena: 46-55 adin-tartean % 40,1 da bide horretatik entzundakoa, eta 55 urtetik aurrera, % 38,5.

119. grafikoa.

Azken urtean entzundako musikaren batez beste zer portzentaje izan den euskarri fisikoan erositakoa, euskarri digitalean erositakoa edo ordaindu gabe eskuratutakoa (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

118. taula.

Azken urtean entzundako musikaren batez beste zer portzentaje izan den euskarri fisikoan erositakoa, euskarri digitalean erositakoa edo ordaindu gabe eskuratutakoa, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Euskarri fisikoan erosita	27,8	26,2	16,4	15,6	30,1	40,1	38,5	26,9
Euskarri digitalean erosita	34,3	24,3	43,2	43,4	23,0	20,0	16,7	30,4
Ordaindu gabe eskuratuta	37,9	49,5	40,4	41,0	46,9	39,9	44,7	42,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024


Bisitariak entzun duten musika euskaraz izan duen presentziari dagokionez, bostetik bi pasatxok azken urtean entzun duten musika dena edo gehiena euskaraz izan da –%11,3k dena, eta % 30,2k, gehiena–. Hala ere, multzorik handienak erdi eta erdi entzuten du (% 40,3).

36-45 adin-tartekoek entzun dute, batez ere, euskarazko musika gehien: erdiak baino gehiagok entzun du dena edo gehiena euskaraz –% 12,8k dena, eta % 39,6k, gehiena–. Beste aldean, gazteenek proportzio handiagoan entzun dute erdarazko musika: 25 urtetik beherakoen % 17,7k azken 12 hilabeteetan entzundako musika guztia edo gehiena erdaraz zen.

Emakumezkoek ere gehiago entzun dute erdaraz gizonzkoek baino –gizonzkoen % 44k dena edo gehiena euskaraz–, nahiz eta dena euskaraz entzun duten emakumezkoen ehunekoa handiagoa izan –% 13,5k dena euskaraz entzun du azken urtean–.

120. grafikoa.

Durangoko Azokako bisitariak azken 12 hilabeteetan zein hizkuntzatan entzun duen musika, generoaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

119. taula.

Durangoko Azokako bisitariak azken 12 hilabeteetan zein hizkuntzatan entzun duen musika, generoaren eta adinaren arabera (%)

	Generoa		Adina					Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Denak euskaraz	13,5	8,4	9,6	8,5	12,8	13,5	12,4	11,3
Gehienak euskaraz	26,9	35,6	26,4	30,5	39,6	29,0	20,5	30,2
Erdi eta erdi	40,1	40,1	40,1	40,2	39,3	37,3	46,4	40,3
Gehienak erdaraz	12,0	10,3	14,5	14,8	5,5	12,5	11,7	11,5
Denak erdaraz	2,6	1,5	3,2	1,2	0,7	2,9	3,4	2,1
Ed/Ee	4,9	4,1	6,2	4,8	2,1	4,8	5,6	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024

Bisitariei eskatu zaie Otik 10era adierazi dezaten euskal kultura kontsumitzerakoan zer-nolako garrantzia ematen dioten zenbait alderdiri. Horren arabera, bi alderdik garrantzi handia edo erabatekoa dute ia guztientzat: gaia interesekoa izateak (% 95,8arentzat garrantzi handia edo erabatekoa), eta kalitatezkoa izateak (% 94,5). Jarraian, euskaraz izateak ere garrantzi handia du % 89,7arentzat.


Kalitatezkoa izateari garrantzi handiagoa ematen diote 36 urtetik gorakoek, eta euskaraz izateari, aldiz, gazteenek eta 36 eta 45 urte artekoek.

Neurri txikiagoan ematen diote garrantzia euskal sortzaileen lana izateari (% 76,8), eta are gutxiago, sare sozialetan edo interneten bolo-bolo dagoen lana izateari (% 28,4). Azken alderdi hori erabakigarriagoa da 25 urtetik beherakoen artean; hain zuzen, % 41,6k garrantzi handia edo erabatekoa aitortzen dio.

Emakumezkoek gizonetzkoek baino garrantzi handiagoa ematen diote kalitatezkoa, euskal sortzaileen lana, eta sare sozialetan edo interneten bolo-bolo dabilena izateari. Eta aldiz, gizonetzkoek gehiago baloratzen dute gaia interesekoa izatea edo euskaraz izatea.

121. grafikoa.

Bisitariek euskal kultura kontsumitzerakoan zer neurritan ematen dioten garrantzia ondorengo alderdiei (%).



Iturria: Siadeco, 2024.

120. taula.

Bisitariek euskal kultura kontsumitzerakoan zer neurritan ematen dioten garrantzia ondorengo alderdiei, generoaren eta adinaren arabera (%)

		Generoa		Adina					Guztira
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	16-25 urte	26-35 urte	36-45 urte	46-55 urte	55 urtetik gora	
Euskaraz izatea	Handia / Erabatekoa	88,9	90,7	92,1	83,9	93,6	88,5	89,2	89,7
	Tartekoa	8,6	6,9	6,1	11,9	5,0	10,6	6,8	7,9
	Batere ez / Gutxi	1,4	1,7	1,3	2,3	0,7	1,0	2,7	1,5
	Ed/Ee	1,0	0,7	0,6	1,9	0,7	0,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Kalitatezkoa izatea	Handia / Erabatekoa	95,5	93,7	90,6	91,9	96,7	97,1	96,9	94,5
	Tartekoa	2,3	4,5	8,6	3,7	1,9	1,9	0,9	3,6
	Batere ez / Gutxi	1,0	1,0	0,0	2,5	0,7	1,0	0,9	1,0
	Ed/Ee	1,1	0,7	0,8	1,9	0,7	0,0	1,3	0,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Sare sozialetan edo interneten bolo-bolo dabilena	Handia / Erabatekoa	31,0	24,3	41,6	27,4	28,5	24,8	14,7	28,4
	Tartekoa	33,9	31,6	34,6	39,4	28,6	34,6	26,3	32,9
	Batere ez / Gutxi	32,7	41,1	22,7	31,3	41,0	34,8	55,6	36,1
	Ed/Ee	2,4	3,0	1,1	1,9	1,9	5,8	3,4	2,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Euskal sortzaileen lana izatea (nahiz eta euskaraz ez izan)	Handia / Erabatekoa	79,7	72,9	77,5	72,2	81,0	80,0	71,6	76,8
	Tartekoa	15,0	22,5	17,4	18,2	16,3	16,2	25,4	18,2
	Batere ez / Gutxi	3,6	3,3	4,2	6,6	2,1	2,9	0,9	3,5
	Ed/Ee	1,7	1,2	0,9	3,0	0,7	1,0	2,2	1,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Gaia interesezkoa izatea	Handia / Erabatekoa	95,4	96,2	95,1	95,2	96,7	98,1	93,2	95,8
	Tartekoa	2,7	2,5	4,3	2,3	2,6	1,9	1,3	2,6
	Batere ez / Gutxi	0,5	0,7	0,0	1,2	0,0	0,0	2,2	0,6
	Ed/Ee	1,3	0,7	0,6	1,2	0,7	0,0	3,4	1,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Beste bat	Handia / Erabatekoa	2,6	2,2	2,2	3,0	3,3	1,9	0,9	2,4
	Tartekoa	0,2	1,3	0,4	1,9	0,0	1,0	0,0	0,7
	Batere ez / Gutxi	0,2	0,7	0,0	1,2	0,0	0,0	0,9	0,4
	Ed/Ee	97,0	95,8	97,4	93,8	96,7	97,1	98,2	96,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024



8. ONDORIOAK

1. Hiru katebegi, elkargune bat.

Sortzaileak, eragileak eta bisitariak dira Durangoko Azokaren hiru katebegiak: sortzaileentzat erakusleihoa da Azoka, hartzaile berriengana iristeko aukera bat; eragileek sortzaileen produktuak eramaten dituzte –batzuetan zuzeneko saltzaile gisa, eta beste batzuetan, bitartekari moduan–, eta euskal kulturako produktuen salerosketa izan daiteke haiek bertan egoteko arrazoi nagusia; eta bisitariak dira erosleak, ia kasu gehienetan, hamarretik ia bederatzik erosten baitu zerbait. Baina hiruontzat Durangoko Azoka elkargune bat da: hartu-eman sortzen duena, sortzaileen beraien artean, saltzaile eta erosleen artean edota euskal kulturagile eta zaleen artean.

2. Liburu eta disko fisikoak erostea, giroak erakarrita.

Oraindik ere, liburu eta disko fisikoak dira bisitariak gehien erosten dituzten bi produktu-motak: hamarretik zazpi libururen bat erosi du, eta erdiak, diskoren bat. Hain zuzen, bisitari batzuen urte osoko kultur produktuen erosketaren zati handia hartzen dute Azokan egindako erosketek: bostetik batek Azokan erosi ditu azken urtean erositako euskarazko liburu guztiak, eta beste batek, urte osoan erositako euskarazko liburuen erdia baino gehiago. Diskoen kasuan, euskarazko disko guztiak Azokan erositakoak dira bostetik birentzat, eta beste batentzat, urte osoan erositakoen erdia baino gehiago. Merchandisinga da hirugarren produkturik salduena; gazteen artean izan du arrakasta gehien. Gerora ere eragina du Azokak: ia hamarretik zazpi uste du Azokan ikusi izanaren eraginez libururen bat edo diskoren bat erosiko duela aurrerago.

Euskal kultur produktuak erosteko eta kultura sustatzeko ematen duen aukeraz gain, Durangoko Azokaren bueltan sortzen den giroagatik joaten dira bisitari asko, batez ere, gazteak. Hain justu, haiek dira gutxien erosten dutenak: % 13,1ek ez du erosketarik egin. Gainera, bisitariantzat ekintza soziala da Durangoko Azokara joatea: hamarretik zortzi ez da sekula joan bakarrik. Lagunekin joan izan dira noizbait gehienak (hamarretik zortzi), are gehiago, gazteenen artean; hamarretik zazpi, bikotekidearekin; eta hamarretik ia hiru seme-alabekin joan da inoiz.



3. Salmentatik harago, Azokak garrantzi berezia du.

Salmentei dagokionez, Azokan standa jarritako eragile batzuentzat urte ona izan da eta beste batzuentzat ez hain ona; fakturazioaren azken hiru urteetako bilakaerari dagokionez, ia pareko daude fakturazioa igo egin dela eta jaitsi egin dela adierazi dutenak: laurdenaren bueltan. Aurtengo salmentetan eragina izan dute, besteak beste: eguraldi txarrak, Azokaren iraupenak, jendearen gehiegizko pilaketek... Baina orokorrean, badira eragiten duten beste faktore batzuk ere: Azokara nobedadeekin joatea, standaren kokapena, standaren tamaina edo kopurua, eta ikusgarritasuna, baita egiten den promozioa ere –hamarretik zazpi promozio-ekintzak egiten ditu Azokan bertan–.

Salmenta-datu kaxkarrak izan dituztenen artean, multzo batek Azokak dakartzan gastuak konpentsatzeko zailtasunak dituela adierazi du, Azokak errentagarritasunik ez duela beretzat.

Hala ere, salmentaz harago, Azokak ematen dizkieten beste onura batzuk nabarmentzen dituzte: zuzeneko harremanak eta ikusgarritasuna, giroa, Azokak ematen duen indarra, euskal kulturaren topagune gisa duen alde sinbolikoa...

4. 55,19 euroko gastua erosleko, zatirik handiena liburutan eta diskotan, eta merchandisinga indarrez sartu da.

Durangoko Azokako produktuetan, 55,19 euroko gastua egin du erosle bakoitzak batez beste; eta emakumezkoek egindako gastua, gizonezkoek egindakoa baino handiagoa izan da, 6 euroko aldea, batez beste. Adinez, 46 eta 55 urte bitarteko erosleek egin dute gasturik handiena Azokaren barruan, 68,73 euro eta 25 urtez azpikoek, aldiz, txikiena: 34,57 euro pertsonako.

2024ko Durangoko Azokako bisitarien zein erosleen kopuruak kontuan hartuta, guztira 2.104.030 euro erabili dira Azokako produktuak erosteko. Gastu horren erdia baino gehiago liburutan egin da eta ia laurdena diskotan. Azokako kultur produktuetan egindako bi milioi eurotik gorako gastuaz aparte, bisitatiek Azokaren bueltan Durangoko tabernetan, jatetxetan eta dendetan egindako kontsumoa ere kontuan hartu behar da: beste 36 euro pertsona bakoitzeko.

Landakogunean standa jarritako eragileek lortutako salmentetan, alde handiak daude eragile batetik bestera. Salmenta-bolumenaren arabera eragileekin lau multzo egin dira: eragileek laurdenak (% 25,0) 10 mila eurotik gorako salmentak egitea lortu du; bostetik batek (% 21,1) 5 eta 10 mila euroren artean saldu ditu; herena pasatxok (% 35,5) mila eta 5 mila euroren artean; eta bostetik bat inguruk (% 18,4) mila euro baino gutxiago.

5. Azokari buruz, partaide guztien balorazioak positiboak dira.

Bisitariek nahiz eragileek 2024ko Durangoko Azokaz egiten duten balorazioa positiboa da: aho-zapore gozoarekin joaten da gehiengoa Durangotik. Bisitarien ia bi herenek balorazio oso ona eta laurden batek ona; balorazioa hobea da emakumezkoen eta 46 eta 55 urtekoen artean. Eragileen kasuan, ia hamarretik bederatzik egin du balorazio positiboa Azokari buruz, eta are balorazio positiboagoa izan da antolakuntzak jaso duena: ia eragile guztiek balorazio oso positiboa edo nahiko positiboa egin dute.

Bisitarien artean, Landakogunea bisitatzen dute gehien, gune hori da gehien ezagutzen dutena eta erakargarriena haientzat, bertan eragileek jartzen dituzten erakusmahaiak ikusteko eta elkarrekin hartu-emanen aritzeko aukera dute. 55 urtetik gorakoei liburu eta diskoen eskaintza erakargarriagoa egiten zaie. Giroa gazteek baloratzen dute hobeto, eta programazioa, aldiz, guraso izateko adinean dauden bisitariek. Bisitarien erdiak ez du inolako ekitalditan parte hartu –programazioaren berri gehiago zabaldu behar dela aipatu da–.

6. Jende pilaketak eta garraio arazoak, hobetzekoak.

Hutsuneen artean badira bisitariek nahiz eragileek, biek, aipatu dituztenak: jende pilaketak eta ilarak –eguraldi txarragatik areagotu dira– eta garraio arazoak –garraio publikoaren maiztasuna eta aparkatzeko arazoak aipatu dituzte–. Instalazioan hobetzekoak ere badaudela diote: komun gehiago, aireztapena hobetzea, deskantsurako lekuak jartzea, etab.

7. Euskal kultur sortzaileei ikusgarritasuna ematen dien intentsitate handiko ekimena.

Hamar sortzailetik zortzik baino gehiagok garrantzi handia edo oso handia aitortu dio Durangoko Azokari. Azokak ematen dien ikusgarritasuna, hartzaile berriengana iristeko bidea, aurrez aurreko harremanak, saretzea, motibazioa eta aitortza... nabarmentzen dute. Batez ere, emakumeentzat da garrantzitsua Azoka, baina horrek beste alde bat ere badu, menpekotasun handiagoa dutela ekimenarekiko –haien sormen-prozesua gehiago baldintzatzen du, baita ere–. Era berean, sortzaile batzuentzat betebeharrak bilakatzen da Azokara joatea, egon ezean kultur ekosistematik kanpo sentitzeagatik.

Gainera, haien ustez, Durangoko Azoka baliagarria da kulturzale/kontsumitzaile sare egonkor bat sortzeari begira. Izan ere, sortzaileek eta bisitariek elkar elikatzen dute, eta hori da, hain zuzen, Azokak zaindu beharko lukeena, bien arteko oreka hori. Horretarako, besteak beste, kultur ekoizlea gehiago zaindu beharko litzateke eta txikiei ikusgarritasun handiagoa eman.

Bestalde, urtean behin, epe finkoetan eta egun gutxi batzuetan kontzentratzeak intentsitate handiko ekimena izatea eragiten du, eta horrek baditu bere alde txarrak ere. Besteak beste, zurrumbiltoa eragiten du, eskaintza- eta promozio-gaindosia, eta sortzaile handien eta txikien arteko desoreka areagotu egiten du zenbaiten ustez; urteko beste kultur ekimenek oihartzun txikiagoa dute –eta garrantzi txikiagoa komunikabideetan eta erakunde publikoentzat–; edota argitalpenean parte hartzen dutenen epeak baldintzatzen ditu.

Liburuen eta diskoen azoka izanik, literaturaren edo musikaren arlo tradizionaletik kanpo aritzen diren zenbait sortzailek –ikus-entzunezkoak edo arlo digitala, adibidez–, adierazi dute Azokaren formatua ez dela haien proposamenetara ondo egokitzen.

8. Kultur kontsumo-ohitura berrietara eta eremu digitalera egokitzeko beharra.

Digitalizazioak eraginda, batez ere, kultur kontsumoa aldatu egin da. Horrek abantailak eta desabantailak eragin ditu sortzaileentzat nahiz eragileentzat: lagundu egiten du informazio-bilketan, harremanetan eta zabalpen-lanetan; baina euskarri fisikoak balioa galdu du eta eskaintza ugaritu eta aukerak zabaldu dira, sortzaile askori nabarmentzea oso zaila egiten zaielarik. Gainera, gero eta kontsumo azkarragoa eta arinagoa egiten omen da. Euskal kultur ekoizpena, kontsumoa baino bilakaera hobea izaten ari dela uste dute eragile eta sortzaileek, baina batzuen pertzepzioa da ez duela kontsumo-ohitura berrietara egokitzen jakin.

Durangoko Azokako bisitarien artean kontsumo-ohitaren aldaketaren zantzu batzuk badaude – hala ere, kontuan hartu behar da bisitarien kultur kontsumoa handiagoa dela biztanleria orokorrarena baino–. 35 urtetik beherako bisitarien artean, hiru laurdenak kultura maiztasun batekin kontsumitzeko ohitura duela adierazi du; baina agian, kultura kontsumitzearen kontzeptua da aldatu dena: egunero musika entzutearekin, kontzertuetara askotan joatearekin edota pelikulak eta serieak etxetik ikustearekin lotzen dute. Eta horietako asko euskarri digitalean erosita egiten dituzte: 25 urtetik beherakoen artean azken 12 hilabeteetan entzundako musikaren % 43,2 euskarri digitalean erosita entzun du. Gainera, euskal kultura kontsumitzerakoan, garrantzia ematen diote sare sozialetan edo interneten bolo-bolo dabilen lan bat izateari: 25 urtetik beherakoen bostetik bik garrantzi handia edo erabatekoa ematen dio horri.

9. Euskal kultur ekoizpena, sortzaileen afizioari lotuagoa.

Kontsumoaren aldean kultur ekoizpena egoera hobean dagoela uste dute bai sortzaileek, baita eragileek ere. Sortzaileen iritzia ezkorragoa da, okerrago baloratzen dute haien ekosistema. Haien egoera propioa egon liteke pertzepzio horren atzean.

Izan ere, sortzaileen profesionalizazio-maila oso baxua da: erdia beste lanbide batean ari da, nagusiki –emakumezkoen artean, gehiago–, eta gehiengoarentzat euren diru-sarreraren % 20 baino gutxiago da sormen-lanetik eratorritakoa. Egun, erdiak baino gehiagok uste du ikuspuntu ekonomikotik ezingo lukeela bizi sorkuntzatik, baina zenbakiak emango balute, sorkuntzan modu eskusiboan aritu nahiko luke sortzaileen % 44,5ek, gehiagok emakumezkoen eta literatura edo musika ez diren bestelako disziplina artistikoen artean.

Batzuek sorkuntzaz bizitzeko ideia hori desio edo aspirazio modura bizi dute. Beste batzuek, aldiz, alde txarra ikusi diote: ekonomikoki sorkuntzaren menpeko izateak askatasun-galera ekar lezakeela.

Illo horretatik, gehiengo batek uste du inguruko herrialdeetan errazagoa dela sorkuntzaz bizitzea, besteak beste, laguntza eta erraztasun gehiago dituztelako.